



GAIKAKO MONOGRAFIAK:

FINKAMENDU-SISTEMA

Laguntza teknikoa

TALLER DE IDEAS 

LAAen berrazterketa


2008KO ABUZTUA

1.

Finkamendu-sistema LAAetan

1.1. LAAk eta finkamendu-sistema

Lurralde-ereduan hirigintza-sistemari funtsezko protagonismoa ematen diote LAAek, hau da, gure lurraldean nagusi diren maila desberdineko eta elkarren artean harremana duten hirien multzoari. Horretarako, hiru hiriburu nagusiak eta garapen eta oreka eginkizun garrantzitsuak betetzeko bokazioa duten tamaina ertaineko hiri-sare osoa identifikatzen dituzte.



LAAek proposatzen duten finkamendu-sistemaren antolamendua hiri-sistemen funtzionaltasunaren azterketan oinarritzen da eta oinarrizko hiru helbururen arabera bideratzen da:

- Hiri-sistemaren maila gorena indartzea. Horretarako, hiru hiriburuetako bakoitzean jardun behar da eta hirien arteko profil osagarriak eta lotura-sistemak definitu behar dira, Europako gune dinamikoenetan sortzen diren aurrerapen ekonomiko, sozial eta kulturalak antzemateko gai izango den sistema polizentriko, integratu eta lehiakor bat antolatu ahal izateko. Halaber, aurrerapen horiek Euskadiko gune eta maila desberdineko lurraldeetara modu orekatuan hedatu ahal izateko. Hiru hiriburu funtzioa zein hiri-eskaintza aldatzeko gaitasuna industria osteko ekonomia berri baterako urratsa ahalbidetzeko aukera ezinbestekotzat jotzen da.
- Lurraldearen Ereku Funtzionalen multzoa modu egokian egituratzeko gai izango den hiri ertainen sarea indartzea. Buru hauen oinarrizko eginkizuna landa-espazioak hiri-sistemaren baitan integratzea da. Ereku Funtzionalak “piezak” osatzen dituztela kontuan hartzen da, eta haien maila egokia da Autonomia Erkidegoaren testuinguru osoan lurraldearen orekarako balizko estrategiak aplikatu ahal izateko.
- Desorekak zuzentzeko (bereziki Bilbo Metropolitarran eta Araba Erdiko eremu funtzionalen antzemandakoak) eta Gipuzkoako lurraldearen oreka mantentzeko globalki pentsatutako lurraldearen berrerekarako ekimenak sustatzea (industria-lurzorua sortzea, bizitegirako hazkunde selektiboa, irisgarritasun-mailak hobetzea, hiriak berritzeko lanak, bigarren bizilekua, habitat alternatiboak, ekipamendu berriak sortzea, eta abar.).

1.2. Euskal Hiriburuen Gune Anitzeko Sistema

Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Sisteman, elkarren artean distantzia gutxira dauden hiru hiri garrantzitsu daude eta elkarrekin Euskadi osoa eta Lurralde Historiko bakoitza modu orekatuan gidatzeko gai dira.

Bilbo Metropolitarrak, Donostiak eta Gasteizek bakoitzari dagokion lurralde historikoarekiko paper egituratzaile oso positiboa jokatzen dute, haien tamaina funtzionalari eta kokapen geografiko estrategikoari esker. Euren hirigintza jarduerak eta ekipamenduak elkarren osagarri bezala hartu behar dira kontuan. Ikuspuntu ekonomiko, kultural eta bereziki hiritarretik, Euskal Hiriburuen Gune Anitzeko hiru hiriek elkarrekin gidatu behar dute Autonomia Erkidegoaren lurralde osoa.

Europako espazioan paper aktiboa jokatzeke, hiri-egitura tinko bat eskuragarri izatea lurraldeari dagokion faktore erabakigarriena da, eta partikularki, oso zorrotza eta lehiakorra den testuinguru global baten eskakizunei erantzuna emateko gai diren hiri-eskaintzak eskuragarri izatea. Hiriburu bakoitzaren hiri-dimentsioak, bakoitza bere aldetik, ez nahikoak izan daitezke helburu hori lortu ahal izateko. Dena dela, hirien arteko gertutasuna eta bakoitzaren sendotasun nabarmena aprobetxatuz, Bilbo, Donostia eta Gasteiz biltzen dituen hiri-egituraren indarra askoz ere handiagoa da.

1.3. Buruak eta Lurraldearen Eremu Funtzionalak

Lurraldearen osotasunari hiri- eta zerbitzu-oinarri egokia emateko gai den hiri ertainen multzoa finkatzeko beharra planteatzen dute LAAek. Hiri ertain hauetan oinarrituko lirateke pilotutako eremuak presio demografiko txikiagoa duten eremuetara pasatzeko berrereka prozesuak.

Lurraldearen Eremu Funtzionalak hiri- eta landa-eremuen integrazio-eremu gisa nola udalaz gaineko eremuen antolamendu espazio gisa egituratzeko oinarritzko elementuak izango lirateke. Lurraldearen proposamenak gauzatzeko orduan LAAek LZPei ematen dien papera dela-eta, hauek guztiek protagonismo handia hartuko dute.

1.4. Landa-gunerako estrategiak

Euskadiren lurraldearen tamaina eskasa eta demografia-dentsitate handia kontuan hartuta, lehen mailako jarduerak produktu gordinari egiten dioten kontribuzio soila gainditzen duten balio estrategikoa dute landa-guneek. LAAen arabera, oinarritzkoa da landa-guneak balioztatzeke estrategia bat antolatzea, eta haien idiosinkrasia mantentzea eta enplegua sortzeke eta haien garapen iraunkorrerako baldintza egokiak sortzea.

Landa-guneak eta gune tradizionalak berpizteke neurri-multzo zabala proposatzen da. Horien artean, hirigune historikoak birgaitzea, atsedenlekuak eta lurraldera sartzeko guneak antolatzea, bigarren bizilekua arautzea, habitat alternatiboak sortzea, landa-gunean integratutako tamaina


ertaineko guneak indartzea, ekipamendu eta azpiegitura proposamenak, eta abar.

1.5. Lurraldearen Desoreken Zuzenketa

Lurraldeen desorekak zuzentzerako bideratutako finkamendu-sistemaren antolamendurako proposamenak, LAAek egindako balorazio batetik abiatzen dira. Hain zuzen ere, Gipuzkoako lurraldearen oreka eredugarriaren kontrastea, Bilboko eremu funtzionalean sortzen den gehiegizko biztanleria kontzentrazioarekiko eta Araba Erdiko eremu funtzionalaren baitan Gasteizko makrozefalia ezagunarekiko.

LAAetan, honako ekimenei lotutako jarduera-multzoa proposatzen da: industria-lurzoruaren sorkuntza, bizitegi-hazkunde selektiboa, irisgarritasun-mailen hobekuntza, hirien berritze lanak, bigarren bizilekua, habitat alternatiboak, ekipamendu berrien sorrera, eta abar. Alde batetik, jarduera hauek Bilbo Metropolitarraren inguruan eta Araba Erdiaren eremu funtzionalean antzemandako desorekak zuzentzeko, eta bestetik, Gipuzkoan egungo lurraldearen oreka-mailak mantentzeko globalki pentsatutakoak dira.

Bizkaiko lurraldearen desorekak zuzendu ahal izateko, hazkunde selektiboko ekintzak planteatzen dira Balmaseda-Zallan, Mungian, Igorren, Urduñan eta Durango-Abadiñon, Bilbo Metropolitarraren berriztatze-prozesuarekin koordinazioan. Ildo horretan, Bilboko erdigunea nazioarteko izaera duten jardueretara progresiboki espezializatzea planteatzen da, eta ondoren, eskualdeko jarduerak inguruko lurraldeetara zabaltzea.



Araban, Gasteizko makrozefalia arintzeko, jarduerak neurri handi batean lurraldearen gainontzeko eremura zabaltzea planteatzen da. Honela, berrorekarako gaitasun handiagoa duten guneak indartzen dira eta garapen-prozesu berriak sortzen dira, hain zuzen ere, Arabako eskualde askok duten indar endogenoa aprobetxatuko dutenak. Lurralde-ereduak proposatzen duen desoreken zuzenketa Lautada, Arabako Errioxa eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako indar handiena duten guneetan oinarritzen da. Honako hauek dira proposatzen diren egitasmoetako batzuk: funtzionaltasuna hobetuko duten ekintzak, bizilekuen eta jarduera

ekonomikoetarako guneen hazkunderako ekimenak, bigarren bizilekuari babesa ematea eta konexio sendoagoak.

Gipuzkoan, eremu funtzional bakoitzaren ekimenak zehatzagoak dira, bere garapen historikoaren ondorioz eredu orekatuagoa eta desberdinagoa duen lurraldeari dagokion moduan. Horretarako, Donostiako eremu funtzionala metropoli-bihurtze prozesu garrantzitsua modu egokian antolatzea beharrezkoa dela uste da. Tolosa, Eibar, Beasain-Zumarraga, Zarautz-Azpeitia eta Arrasate-Bergarako eremuetako gune garrantzitsuak azpimarratzen dira, hiri-berrikuntza lanen, berrekipamendua eta eremu funtzional hauen garapena sustatzeko eta laguntzeko neurri koordinatu eta sinergiko multzoaren bitartez.

1.6. Finkamenduen antolamendua

Tradizionalki udalerrri bakoitzaren herri-ikuspegitik aztertzen ziren Udalerrien Antolamenduaren alde askori LAAek heldu diete, xede duen Lurralde-Ereduaren konfigurazioan zuzenki eragiten baitute.

Bizilekuen eta jarduera ekonomikoaren garapenerako proposatutako ekimenak, dagozkien lurralde plan partzialen eta udal-planen arabera zein bi lurralde arloko planen arabera antolatzen dira: Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzoruaren LAP eta Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren LAP.

Orokorrean, LAAek udalerriek beren udal-planak bideratzeko duten askatasuna errespetatzen dute. Hala ere, udalerrri zehatzetan eta atal zehatzei dagokienez, LAAek berariazko ekintzak proposatzen dituzte, lurralde-eredu zehatz baten lorpenaren ikuspegi orokorretik sortutakoak.

Tokiko hirigintzaren eta Autonomia Erkidego osoaren Lurraldearen Antolamenduaren arteko integrazio mekanismo bat da.

Orientazioetako batzuk honako hauek dira:

1.6.1. Bizitegi-Lurzoruaren Politika

Bizitegi-lurzoruaren politika LAAek xede dituzten lurralde helburuak lortzeko tresna garrantzitsutzat jotzen da.

Lurraldearen hainbat lekutan, bizitegi-lurzorua sortzeko hainbat lan bateratu proposatzen dira, lurralde-ereduaren aldaketarako estrategiei erantzunez.

Bereziki, LAAek hiri-maila handiagoa eskuratu arteko Hazkunde Selektibo garrantzitsua proposatzen dute hainbat gunetan. Proposamen hau Balmaseda, Zalla, Getxo-Sopela, Barrika, Gorniz, Mungia, Durango-Abadiño, Urduña, Markina-Xemein-Etxebarria, Tolosa-Ibarra, Agurain eta Guardia udalerrietarako planteatzen da.

Era berean, dentsitate baxuko habitat alternatiboak sortzea proposatzen da, bizitegi familiabakarreko tipologiak dituztenak, naturarekin harremana dutenak eta landa-izaerako guneekin lotura dutenak. Estrategia hau honako udalerrietan aplikatzen da: Arantzazu, Gasteiz-Miranda ardatza, Gordexola, Galdames, Sopuerta, Meñaka, Dima, Areatza, Zeanuri, Artea, Markina-Xemein-Etxebarria, Hondarribia, Oiartzun, Gabiria, Ezkio-Itsaso, Ataun, Iruñea Oka, Zuia, Zigoitia, Legutio, Arratzu-Ubarrundia eta Asparrena.

1.6.2. Garapen Turistikoa eta Bigarren Bizilekua

Euskal ekonomiaren eta lurraldearen etorkizunari begira, LAAek protagonismo handia ematen diete garapen turistikoaren eta bigarren bizilekuaren garapen fenomenoari. Bigarren bizilekuaren garapena modu sakabanatuan proposatzen da, eta guztira, 96 udalerriren gainean, gehienak landa-izaera dutenak, haien idiosinkrasia mantenduz eta ekipamendu-maila hobetuz.


Landa-guneei lotutako bigarren bizilekuaren garapenerako proposamena LAAek proposatutako alternatiba da, hain zuzen ere, naturarekiko eta landa-guneekiko loturaren inguruko eskakizunari emandako erantzuna da, landa-eremuetan zehaztugabeko hirigintza-prozesuetan erori gabe.

Hainbat udalerritan bigarren bizilekua egun fenomeno sortzen den mugetatik haratago indartzea proposatzen da. Guzti hori, deskongestio estrategia orokorren atal gisa, eta hiri nagusietatik hurbilen dauden lurraldeetan antzeman den bigarren bizilekua lehen bizileku bihurtzearen prozesuaren arabera proposatzen da. Ildo hau honako udalerrietan proposatzen da: Lanestosa, Karrantzako Bailara, Abanto, Zierbena, Artziniega, Orozko, Lekeitio, Mendexa, Ondarroa, Zalduondo, Legutio, Burgu, Gaubea, Kanpezu, Leza, Eltziego, Ekora eta Guardia.

1.6.3. Etxebizitzen Sustapen Publikoa

Etxebizitzen Sustapen Publikorako LAP bat egitea proposatzen dute LAAek, egun izapidetze-fasean dagoena. Dena dela, Etxebizitza Sailak garatutako planek zein LZPEk eta udal-planek LAAen proposamenak jaso dituzte, eta aurreikusitako garapenen kuantifikazioa egin dute, herri bakoitzaren ezaugarriak jasotzeaz gain, lurralde-ereduaren proposamenei lotutako elementuak jasotzen dituen sistema erabiliz. Gaur egun, hiri-plangintzak planteatutako etxebizitzaren guztizkotik % 32 BOEei dagokie. Onartutako LZP

desberdinek datozen 16 urtetan garatzear dagoen bizitegi-lurzoruaren eta udalerrri bakoitzerako prozesu honetan sartuko diren lurzoru publikoen, zein hortik aterako diren etxebizitzaren kuantifikazioa erantsi dute.




1.6.4. Industria-Lurzoruaren Politika

Lurralde-Ereduari erantzunez, Industria Jarduerako Gune berriak sortzea proposatzen da, ondo zaindutako hirigintza eta arkitektura tipologiak izango dituztenak. Eremu hauek honako udalerrietan kokatzen dira: Aiala, Zornotza-Durango ardatza, Adunako Ibarra, Andoain-Astigarraga, Lantarón-Gasteiz, Balmaseda-Gueñes ardatza, Mungia-Derio ardatza, Zumarraga-Beasain ardatza, Igorre, Guardia-Oion Ebroko igarobidea, Markina-Xemein, Agurain, Donostia-Baiona eta Txorierriko Bailara.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren LZPa onartzeak honi dagokionez jarraibideak guztiz garatzea ekarri du. Lurzoru hauen garapen-prozesua arrazionalizatzea ahalbidetu du, eta eragile guztientzat erreferentzia orokorra ekarri du. Txosten honentzat oinarritzko ekarpenak izan dira industria-ekimene eta merkataritza-gune handien hiri- eta lurralde-integrazioa, eta isurialde kantauriarreko lurzoruaren erreserba estrategikoen hausnarketa. Politika horren proposamenek LAAek proposatutako lurralde-eskemari jarraitzen diote, eta eremu funtzionalaren zein udalerriaren arabera zehazten dituzte. Halaber, garapen berriak gauzatzeko kokapenak identifikatzen dituzte, ondoren EAEko jardueretarako lurzoruaren sorkuntzaren hainbat agentziak garatu dituztenak, hain zuzen ere.

1.6.5. Ongizaterako eta Berrikuntzarako lurralde-ekimenak

Ez dira Lurralde-Ereduaren zati, baina ereduarekin eta finkamendu-sistamarako proposatutako estrategiekin harreman handia dute LAAek. Honela, hiri-berrikuntzari, gune historikoen berpizkundeari edo ekipamenduei dagozkion ekimen-sorta planteatzen dute.



Euskal hiri kopuru nabarmenak erakusten zuen hiri-egoerari heltzea luzaezineko erronka zen. Anbizio handiko hiri-berrikuntza programa beharrezko hau garatu ahal izateko, LAAek lanerako molde berriak eta lehenasunen sistema planteatzen dituzte. Industria garaiko ekoizpen eskakizunen arabera garatutako hiriak dira, isurialde kantauriarren bailara estuetako sakoneran kokatuak, eta lurzoruaren eskasiaren ondorioz, erabilera desberdinen arteko lehia sortu da, erabilgarri dauden gune urriak okupatu ahal izateko.

Hainbat euskal hiritan, hiri-aldaketa positiboak ahalbidetuko dituzten Hiri-Berrikuntza ekimenak garatzea proposatzen da.

Bestalde, hiriko eta lehen mailako arkitektura ondare diren 69 Gune Historiko daude Euskal Autonomia Erkidegoan. Egindako ahaleginez gain, haiek mantendu eta berreskuratzeko irudimena eta eraginkortasuna duten formulak asmatzen jarraitzea ezinbestekoa da. Sarritan, utzikeria jasaten duten hainbat Gune Historiko udalerraren isolamenduari, udalerraren demografia dinamika atzeragarriari, tokiko oinarri ekonomikoaren bideraezintasunari eta beste hainbat baldintzen ondorio dira. Guzti horrek zaildu egiten du soilik tokiko ikuspegi baten arabera sortutako birgaitze-prozesu endogeno bat gauzatzea.

1.6.6. Finkamenduei lotutako bestelako gaiak

Arlokako politika ekipamenduen arabera eta lurralde-ereduaren arabera bideratzeko proposamenak ere egiten dituzte LAAek. Erreferentzia gisa, hiru maila edo eskala planteatzen dituzte: maila nazionala, Lurralde Historikoaren maila eta eskualdekoa edo eremu funtzionalarena.

Adierazitako gaiez gain, finkamenduei dagokienez LAAek bestelako gaiak ere kontuan hartzen dituzte. Hala nola:

Bizitegi-Lurzoruaren Eskaintzaren kuantifikazioa.
Industria-Paisaiaren Antolamendua
Udal-Planen Bateragarritasunak
Kultura-Ondarearen Antolamendua, eta abar.

2.

Hiri-sistema bat Arku Atlantikoan

2.1. Arku Atlantikoaren Errotula

Lurralde-garapen eta gune europarraren integrazio prozesuen testuinguruan, LAAen helburu nagusietako bat Euskal Autonomia Erkidegoa gune europar berri honen baitan modu eraginkorrean integratu ahal izateko giltzarri diren izaera fisiko eta funtzionaleko elementu estrategikoak definitzea izan zen.



Euskadik kokagune estrategikoa du Paris-Madril ipar-hego igarobidearen elkargunean eta zeharkako bi igarobidetan, Ebroren ardatzean eta Erlaitz Kantauriarraren ardatzean. Arku Atlantikoaren buru izateko eta Arku Atlantikoaren eta Hegoaren Iparraldearen (etorkizun handiko bi erregio europar handi dira) arteko integrazio-erro garrantzitsua izateko bokazioa du. Gainera, erdiguneko nodo europar garrantzitsu baten grabitate-zentroan kokatzen da. Bertan, EAEren lurraldearekin batera, Kantabria, Errioxa, Nafarroa eta Baionako eremua biltzen dira.

Euskal Hiriburuen Gune Anitzeko Sistemak berrikuntza areagotzeko eta ekonomia berrirako garapen-nodo indartsu bat osatzeko helburua du, bere inguruko erregio espainiar eta frantziarretan maila honetako hiri-sistematik ez dagoela kontuan hartuta. Gune europar bakarraren finkamenduaren eta herrialdeen arteko mugen desegite progresiboaren ondorioz, lurraldeen arteko lehia eta lankidetzaren areagotzen ari da gero eta gehiago. Europaren etorkizunari begira, lurralde bakoitzak eta hiri bakoitzak elkarren arteko testuinguru baten baitan garapenerako dituen asmoak eta estrategiak identifikatu behar ditu. Euskadiren kasuan, gainontzeko erregio europarrekiko funtzio- eta egitura-integrazioaren giltzarriak definitzea ezinbestekoa da.

LAAen Lurralde-Ereduak garrantzi berezia ematen dio bere kokapenak Euskadiri eskaintzen dizkion abantailak identifikatzeari eta horiei probetxua ateratzeko lurralde-ekimenak proposatzeari, lurralde-garapenaren elementu giltzarri gisa:

- Iberiar Penintsulako beste erregio atlantikoek (Kantabria, Asturias, Galizia eta Portugal) baino askoz ere kokapen europar zentralagoa du. Horren ondorioz, "Goi-Teknologien Eremua" deiturikotik hurbilago dago eta


Europako Komunitatearen gune garrantzitsuekin integratzeko aukera handiagoak ditu.

- Era berean, Arku Mediterraneoan (Europako gune dinamikoetako eta hazkunde handienetako duena) hurbilen dagoen Arku Atlantikoko lurraldea da Euskadi.
- Ipar-Hego igarobide europarraren (Europa iparraldetik Andaluziaraino doana, tartean Paris, Akitania, Euskadi bera eta Madriletik pasatuz) eta bi zeharkako igarobideren (Ebroren ardatza eta Erlaitz Kantauriarren igarobidea) elkargunean kokatzen da.
- Euskal hiriburuen inguruan garrantzi handiko hainbat hiri daude, distantzia gutxira eta funtzio-elkarreragin handiagoa gauzatzeko aukera eskaintzen dutenak. Santander, Logroño, Iruñea eta Baiona dira. Guztiak elkarrekin erdiguneko nodo europar garrantzitsua osa dezakete, irismen handiagoko guneen hiri-artikulazio errotula gisa aritu daitekeena.
- Bere lurralde-konfigurazioaren eta kokapen geografikoaren ondorioz, Euskadik Arku Atlantikoaren eta Europako gune dinamikoaren arteko artikulazio "Errotula" garrantzitsua osatzeko abantaila lehiakor garrantzitsua du.

2.2. Aldaketa-dinamikak Arku Atlantikoan

Errotularen kontzeptuak etorkizunari begira erreferentzia baliagarria izaten jarraitzen du, EAEn kokapenaren eta dinamiken eta gune europarraren garapen-prozesuen ikuspegi koherentea baita. Arku Atlantikoaren baitako gune gisa definitu direnak (Frantziako mendebaldeko kosta atlantikoak, Espainia, Portugal eta Britainiar uharteak), historikoki, tarte askotan, Europaren osotasunean integratzeko zailtasunak izan dituzten hiri-azpisistema osatu dute. Gune hau eragin maila eta gaitasun apaleko hiriez osatuta dago. Hiriak euren artean isolatuta daude eta egitura eta dinamismo

urriko hiri-guneak osatzen dituzte, sarritan "Finisterreak" izena eman zaie. Euren artean gaizki konektatutako erregioz osatuta daude eta sarritan hiri ertainen inguruan biltzen dituzte indarrak, baina funtzio-dibertsifikazio eskasa dute.



Euro-erregio honetan egun ez dago garapen ekonomikoa eta gizarte-ongizatea ahalbidetzen duten aurrerakuntzen sorkuntza-transmisioa bideratuko duen gidaritza eraginkorra gauzatzeko gai diren maila gorenekO

hiri-aglomeraziorik. Beraz, megalopoliarekiko eta bakoitzari dagozkion nazio-hiriburuekiko dependentzia-maila oso altua da.

Erregio europar honetako hiriak tradizionalki izan duten hiri-papera mantentzearen eta ezaugarri dituzten isolamenduari, koordinazio ezari eta funtzio-ahultasunari bukaera emango dion hirien arteko lankidetzak mekanismoen bilaketaren artean eztabaida ari dira.

Ikuspegi orokor honen arabera, gune honek erakusten du Atlantikoko Euro-erregioak homogeneoak ez diren eta arazo desberdinak dituzten guneak biltzen dituela. Barne-mailako desorekak daude biztanleriaren dentsitateari, joera demografikoei, egoera sozio-ekonomikoari, eta abarrei dagozkienak.

Seguruenik, gune honetako erregio askotan industrian oinarritutako jarduera ekonomiko tradizionalen krisiaren egoera gairatzea izan da aldaketa nabarmenena. Irlanda, Eskozia, Ingalaterrako mendebaldea, Mantxako Kanaleko kostaldea, Bordeleko hiri-erregioa, euskal hiri-erregioa eta Oporto eta Lisboako eremu-metropolitarrak garapen-bide oso desberdinak dituzte eta azken urteotan dinamismoaren garapena eta egiturazko aldaketa izan dituzte, Asturiasen, mendebaldeko Andaluzian edo Galesen oraindik modu hain nabarian gertatzen ez den bezala. Mundu mailan konektatzeko aukera berrien, berrikuntzaren ahalmenaren eta erregio mailako integrazio sare eta prozesuen artikulazioaren aurrean, gune hauek hazkunde-gune handiekiko duten kokapen erlatiboak garrantzia galdu du.

Azken urteotan abian jarri diren Interreg programa desberdinak elkarren arteko harreman handiagoak eta hiri- eta azpiegitura-sistema sendoagoak sortzen laguntzen duten integrazio-estrategiak erraztera bideratuta daude.

Biztanleriaren masa kritikoaren eta ekoizpen-jardueren handitze hau, termino kuantitatiboetan eta sofistikazioari dagokionez, azken hamarkadan ezagutzaren gizararen eta globalizazioak bultzatutako eskala berrien markoan lurraldeen garapenerako elementu giltzarri gisa agertu diren zerbitzu aurreratuen eta goi-mailako konexioen, airezkoak eta itsasokoak bereziki, eskaintza zabaltzeko oinarritzko elementu gisa ageri da.

Murrizketa saihestezina izatetik urrun dago, eta Arku Atlantikoko erregio askoren kokapen eta ezaugarri bikainak modu nabarmenean aitortutako arrakasta-faktore bilakatu dira. Irlanda, Eskozia edo Islandia bezalako (edo Finlandiakoa, beste testuinguru periferiko batean) lurralde atlantikoan duela gutxiko esperientziak erakusten dute konexio gutxiko eta tradiziozko eremu-zentraletatik kanpo kokatutako lurraldeak bizitza-kalitate maila altuko eta garapen europarreko burutza-eremu bilaka daitezkeela.

Seguruenik, lurralde hauen ezaugarri berezi eta interesgarriena espazioaren antolamenduan eta ekonomiaren dinamismoa mantentzeko orduan hiri ertainek duten garrantzia da. Hiri ertain hauek tradizio historiko luzea duten erregio-sistemetan antolatzen dira, eta gune anitzeko hiri-egiturak eratzen dituzte. Munduko beste hainbat tokitan globalizazioaren habitat gisa eratzen ari diren megalopoli handien aurrean, gune anitzeko sistema hauek eszenatoki berriak arrakastaz parte hartzeko lehiarako abantaila berezi oinarritzkoak dituzten eremuak dira. Nortasun handiko eta beren jasangarritasuna handiagotzen duen giza eskala duten guneak dira, eta hori bizitza-kalitate handiagoa bermatzea da. Lurralde-mota hauek hirien eta erregioen erronka berriei erantzun egokiak emateko gaitasun izugarria erakusten ari dira.

Berezkoa duten erakargarritasunaren ondorioz, giza kapitala eta ekimen berritzaileak biltzen dituzte eta hain zuzen ere, horiek dira ekonomia

berriaren ardatza. Malgutasuna eta aldaketarako gaitasuna aproposak dira arrakasta aukerak mantendu eta hobetzeko etengabe aldatzen ari den testuinguruan, hain zuen ere, testuinguru horretan ez dago egoera segururik eta historikoki ahulak izan diren lurraldeak denbora epe laburrean mundu mailan posizionatu daitezke.

Honela, Bizkaiko Golkoko eta Iberiar Penintsulako Arku Atlantikoko sektorean gune nagusien eta hiri-guneen arteko antolamendu-maila modu esanguratsuan handitu da. Baionatik mugaraino dauden Pirinio Atlantikoetako hiri frantziarrak, EAEko hiri-sistema eta Santander-Torrelavega eremu-metropolitarrak barne hartzen duen espazioaren gune nagusi gisa nabarmen finkatu da Bilbo Metropolitarrako eremua.

Euskal-kantabriar sektore honetan hirien, ekoizpenen eta azpiegituren dentsitate kontzentrazio-maila handiena sortu da. Honela, espazio honen eta Asturiasko eremu zentralaren (hiri eta demografia kontzentrazio-maila altuak daude ere) artean haustura edo etena gertatzen da. Haustura hori areagotu egiten da Galiziarrekiko harremanetan, Galiziako gune nagusiak Erkidegoaren eremu mendebaldekoenean kontzentratzen direlako, Asturias mendebaldearen eta Galizia ekialdearen artean dauden espazioak hiriari eta ekonomiari dagokionez ahulak direlako, eta dauden konexio-azpiegituren kalitatea eskasa delako.

Bukatzeaz dagoen Irundik A Coruñaraino doan Kantauriko Autobia eta abiadura handiko etorkizuneko trenbidea eremu honetan hiri-dentsitatea handitzeko ezinbesteko ezaugarriak izango dira.

Nazioarteko konexioa duten eta zerbitzu aurreratuen elementuak hartzeko gaitasun duen hiri gisa Bilbok berriki hartu duen garrantzia aukera garrantzitsua da gune osoaren baitan hiriburu honen etorkizuna areagotzeko. Era berean, inguruko guneetan ageri diren eta handiagotzen


ari diren antolamendu-prozesuak oso garrantzitsuak dira. Mendebaldeari begira, Bilbo Metropolitarrak Kantabriako ekialdeko kostalderantz hedatuz garatzen ari da; beraz, Castro Urdiales edo Laredo bezalako guneak Bilbo Metropolitarraren eremuko zati dira gaur egun. Ekialdera begira, Donostia-Baiona Eurohiriaren artikulazioa gero eta sendoagoa da.

2.3. EAEko hiri-sistema testuinguru europarrean

EAEko hiri-sistemaren buru Bilbo eta bere eremu-metropolitarrak direla argi eta garbi ageri da. Bere tamaina eta hiri-funtzioak direla-eta, Autonomia Erkidegoaren eremua nabarmen gainditzen duen proiektzioa duen erregio-mailako hiriburu gisa jarduten da. Ikuspegi hierarkiko baten arabera, hurrengo mailan Donostiako eremu-metropolitarrak ageri da. Azken urteotan eremu honen hazkundera Bidasoa Beheko eta Frantziako hego-ekialdeko eremuak nabarmenki integratzen bideratu da. Beraz, progresiboki hiri-eremu zabal baten ezaugarriak dituen eta egungoa baino askoz ere handiago den tamaina funtzionala duen espazio bat eratzen ari da. Dagoeneko EAEko biztanle gehien dituen bigarren udalerrria izan arren, Gasteizen kokapena isolatuagoa da, eta ez da eremu-metropolitarrak eratzen iristen, inguruan dituen finkamenduak tamaina txikikoak direlako.

Hala ere, LAAek adierazten zuten moduan, hiru hiri-nodo hauek profil atal oso desberdinak eta hiri-espezializazio osagarriak dituzten arren, haien arteko funtzio-integrazio prozesua hasiberria da. Lurralde historiko desberdinen arteko joan-etorrien datuari erreparatu gero, Araba eta Bizkaia arteko bidaiak gutxi gorabehera EAEn gertatzen diren eskualdeen arteko joan-etorri guztien % 2,3 dira; Gipuzkoa eta Araba artean izaten direnak % 0,6, eta Bizkaia eta Gipuzkoa artean % 3,6 joan-etorri. Datu

horiek erakusten dute dagokion Lurralde Historikoan hiriburu bakoitzak duen zentralitate garrantzitsua.



Bilbok EAEko lurralde osoan maila goreneko hiri-gune gisa nagusitasun nabarmena du eta bere funtzio-eragina Erkidegoaz gaindi zabaltzen du. Honela, Kantabria, Errioxa, Nafarroa eta Gaztela eta Leongo iparraldeko eremuak barne hartzen ditu, eta Iberiar Penintsularen iparraldeko hiriburu da zalantzarik gabe. Burgosetik Bilbora egunero egiten diren joan-etorriak Arabatik egindakoak baino gehiago dira, eta Kantabrian jatorria dutenak Gipuzkoatik etorritakoak hirukoizten dituzte. Aireportua bezalako azpiegiturari dagokionez, Loiuko aireportua erabiltzen duten bidaiari gehienak logikoki Bizkaikoak izan arren, azpiegitura honek probintziaz

gaineko eremuan paper garrantzitsua jokatzeko du, lau bidaiaririk bat beste probintzia bateko eremuetakoa baita, bereziki mugakide dituen eremuetakoa. Bidaiarien % 16,2 EAEko gainontzeko lurraldeetatik iristen dira (Gipuzkoa % 12 eta Araba % 4,2) eta % 4,9 Kantabriatik edo Nafarroa (% 2,1), Errioxa (% 1,4) edo Asturias (% 0,4) bezalako probintzia urrunetatik. Beraz, Penintsulako ipar-erdi eremuan erreferentziazko aireportua da.

Honela, EAEren hiri-egituraren ezaugarri nagusia maila gorenaren (euskal hiri-sistemaren buru diren Lurralde Historikoetako hiru hiriburuek osatua) eta inguruko eremuen sendotasuna eta oreka da.

Europako hiri-sisteman leku nabarmena duen sistema da. Guzti hau, hiri nagusien demografia- eta funtzio-tamainari esker, eta modu garrantzitsuan, hiri-nodo nagusien arteko gertutasunari esker gertatzen da. Nodo horiek elkarren artean gero eta handiagoak diren konexio-elementuak dituen hiri-sare trinkoa osatzen dute, eta horrek lurralde osoan maila goreneko hiri-funtzioen estaldura bikaina ahalbidetzen du.


Inguruabar hauek hiri-sistemaren goi-mailako estratuei paper garrantzitsua ematen diete. Hain zuzen ere, estratu horiek dira hiri-erregioa berrikuntza dinamikak erakartzeko indar handiagoa duen eta nazioartean etorkizuna duen eremu gisa finkatu ahal izateko oinarriko elementuak. Gainera, hiri hauen kokapenak kanpoko espazioak biltzeko gaitasuna areagotzen du, bai erlaitz kantauriarraren gainontzeko aldera eta baita Frantziako hegoaldera eta Ebroren ardatza eta Mesetaren Iparraldera ere, gutxi gorabehera 4,5 milioi biztanle dituen hiri-erregio garrantzitsua bilduz. Hiru hiri hauen banaketa hierarkiko egokia balio erantsia da. Euren arteko barne-harremanak eta hiri-funtzioen banaketa egokia ahalbidetzen dutenez, erregio-hiri sistema indartzea posible egiten dutelako. Era berean, kanpoko

hiri-sistemekiko menpekotasuna eta hiri-sistema ahulek eta desegituratuek berezko dituzten hiri-lehiakortasun eta zatiketa prozesuak agertzeko aukera murrizten du.

Hiri-sistemaren ikuspuntutik, Bilbo eremu-metropolitarrak zabala eta konplexua da. Hirigunea elementu nagusia izan arren, bai funtzio zein demografia terminoetan, bere esanahi hiritarra ezin da bera soilik kontuan hartuta ulertu eta aztertu, eremu zabalago baten elementu gisa baizik.

Bilbo Metropolitarrak milioi bat biztanle inguru dituen hedapen-eremu bat da, eta beraren bidez, EAEko hiri-sistema Europako hirien sistemarekin harremanetan jartzen da.

Europako hiri-sisteman, Bilbo 5. mailako hirien artean kokatzen da, esaterako, Kolonia, Lisboa, Marseilla, Napoli, Genoa, Tolosa edo Florentziarekin batera. Hiri hauek Europako hiri-sistemaren estratu dinamiko eta lehiakorrenetako bat osatzen dute. Milioi bat eta bi milioi biztanle arteko hiriguneak dira, eta oso dinamikoak diren erregio-eremuak artikulatzen dituzten metropoli gisa leku garrantzitsua dute. Goi-mailako hiri-zerbitzu gune gisa duten lekuan oinarritu da haien garapena, eta kasu askotan, ekoizpen-jarduera batzuen inguruko espezializazio nabarmena izan dute eta bikaintasun-maila gorenera iritsi dira. Kasu batzutan, hiri hauen erroka euren ekoizpen-sektore nagusien lehiakortasun-maila altua mantentzea da; beste batzuentzat, aldiz, erroka ekoizpen-oinarria hobetzean eta berritzean oinarritzen da. Dena dela, haien aukerak mantendu eta hobetzea ahalbidetuko duen nazioarte mailako funtzio berriak erakartzeko lehian dauden hiri-eremuak dira, eta euren inguruko maila handiagoko hirien ondorioz gerta daitezkeen gainbehera-prozesuak saihesten dituzte.



Helburu honen arabera, bi joera nagusi antzeman daitezke. Lehen, hiri-eta ekonomia-garapen proiektuak ezartzea, abantaila bereziak dituzten jardueren inguruan eta nazioarteko buruzagitza posizioa lortzeko jardueraren inguruan. Bestetik, epe luzera hiri-dinamismoa bermatuko duten garapen ardatz edo igarobideak antolatzea ahalbidetuko duten hiri-sareen integrazio-ekimenak ageri dira. Hain zuzen ere, hiri-eremu honetan planteatu behar da Bilboren etorkizuna EAEko lurraldearen eta etorkizuneko

itxaropenen elementu nagusi gisa.


Komunikazio-azpiegitura garrantzitsuen garapenean jasaten ari den atzerapenak (autobideen sistemak, abiadura handiko trenbidea, Loiuo aireportuko hegaldien maila zabaltzea) Bilboren hiri-maila baino gehiago, Bilbok eremu zabalagoetan izan dezakeen eragina mugatzen du, hiriburu honek ase ditzakeen hiri-eskakizunetarako. Azken hamarkadan, Bilbo enpresen eta I+G jardueren inguruko zerbitzuak bezalako sektore estrategikoetan dinamismo handiko eremu gisa finkatu da. Gainera, bikaintasun hiritarraren eta nazioarteko turismoaren erakargarritasun eremu gisa kanpo irudi berriua finkatu du.

EAEko hiri-hierarkiaren bigarren mailan, Donostiako hiri-eremua dago. 350.000 biztanle inguru ditu eta dinamismo handiko hiri ertaina da. Azken hamarkadan hiri-eremua asko hedatu da eta Lurralde Historikoarekiko eta Nafarroa eta Frantziako hegoaldeko eremu mugakideekiko protagonismo funtzional nabarmena hartu du.

Donostiatik 20 kilometro eskasera eta bere eremu-metropolitarran pixkanaka integratuz, Irun-Hondarribiako eremua dago, 80.000 biztanle inguru dituena. Azken hamarkadako EAEko gune dinamikoenetako bat da eta Autonomia Erkidegoaren laugarren hiri-eremua da. Pirinio Atlantikoetako (150.000 biztanle inguru Baionako aglomerazioan) hiri-eremuekiko gertutasunaren eta harreman funtzionalen ondorioz, etorkizunera begira indar handiko hiri-igarobide gisa hartzen dute.

Europako hiri-sistemaren baitan, Donostiako hiri-eremua 7. mailan dago, oso lehiakorra den estratuan eta 150.000 eta 500.000 biztanle inguru dituzten hiri kopuru handi batez osatua. Gisa honetako hiriek eragina duten eremuekiko erreferentziatzko hiriguneen paper garrantzitsua jokatu ohi dute,

baina nazioarte mailan proiektzioa izateko dimentsioa eta beharrezko hiri-funtzioak falta zaizkie. Garatu ahal izateko berriki aldatzeko gai izan den hiri-eremu kopuru handi bat dago talde honetan, probintzia edo azpi-probintzia mailako administrazio-guneetatik hasi eta jarduera tertziarioen garapenari lotutako funtzio berriak eta industria-eremuari eta turismoari lotutako ekoizpen-jarduerak dituzten hirietaraino.



Hiri-sistemaren maila dinamiko honen baitan, Donostiaren hiri-funtzioak asko zabaldu dira azken urteotan. Bere Lurralde Historikoko hiri ertainekiko zentralitateareagotu egin da, baina ez Bilboren abiadura berean, neurri handi batean dimentsio nahikoa duen eremu baten gainean bere eragina hedatzeko orduan jasan dituen mugak direla-eta. EAEko hiri-sistemaren baitan, maila handiagoko hiri-funtzio gehienetarako, Donostiak bigarren mailako lekua du Bilbori dagokionez. Bi hiriburuen arteko harremanak eta

osagarritasun eraginkorren bilaketak oraindik ez dira nahi bezain estuak, maila gorenean dauden bi eragile-burutzaz integratutako hiri-sistema indartu ahal izateko. Inguruko bestelako hiri-gune garrantzitsuen presentziak bere hiri-proiektzioan ahultasun nabarmenak dakartza. Honela, Irun-Hondarribia eremuak, Gipuzkoako hiri ertainen egiturak eta bereziki beren eremuetan eta Donostiaren antzekoak diren hiri-eskaintzen segmentuetan Iruñea eta Baiona bezalako hirien zentralitate handiak bere hiri-proiektzioa mugatzen dute.

Donostiarekin batera, Gasteiz hiria EAEko hiri-hierarkiaren bigarren mailan dago. Argi eta garbi, Gasteiz Bilbo hiriaren eragin-eremuaren barne kokatzen da, eta honek, maila goreneko hirigune gisa bere barne hartzen du. Bestalde, bere Lurralde Historikoan eta Burgoseko iparraldeko eskualdeetan nagusitasun nabarmena du. 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten Agurain bezalako hiri txiki batzuk eta Audio-Amurrio igarobidea izan ezik –Bilbo Metropolitarrarekin zuzeneko lotura dutenak-, Arabako lurraldeak izaera hiritarra duten guneen gabezia nabarmena du, lurralde gehienak landa-izaera baitu. Horren ondorioz, EAEn hegoaldearen hiri-egituran hiriburuak protagonismo handia du eta bere hiri-mailari hurbiltzen zaion gune osagarririk ez dago. Miranda-Ebro (Burgoseko lurraldean) da bere eremu funtzionala egituratzen duen bigarren gunea tamainari dagokionez. Arabako Errioxaren eremuarekin konexiorako zailtasunen eta eremu honen egitura ekonomikoaren ondorioz, eremu honek Errioxako hiri-sistemaren eragin gurutzatuak ditu, bereziki Oion bezalako guneek, funtzionalki Logroñoko eremu-metropolitarran integratuak daudenak.

Dena dela, azken 20 urteotan Gasteiz EAEko eremu dinamikoena izan da eta etorkizuneko hazkunde-proposamen handienak dituena da. EAEko administrazio-hiriburuko izaera izatearekin batera, industriari eta logistikan espezializazio nabarmena du eta gero eta garrantzitsuagoak diren kultura

eta hezkuntza funtzioak ditu. Inguruabar hauen ondorioz, maila bereko Europako hiri gehienekin alderatuta desberdina da, orokorrean gehienek maila altuko funtzio-espezializazioa baitute soilik. Honela, Gasteizek gainontzeko industria-hiriek baino eskaintza-terziario eta zerbitzu publiko eskaintza askoz ere handiagoa du. Gainera, ekonomian eta demografian dinamismo handia ahalbidetzen dion eta garatzeko bidean dagoen jarduerasektore gisa, zerbitzuak enpresetara hedatzeko oinarri bikaina den manufaktura-oinarria du. Hau guztiari, indar turistikoa eta bere hiri-eremuan aisiaren eskaintzan finkatuta dauden guneak poliki-poliki sartzea gehitu behar zaio. Hain zuzen ere, hau bere hiri-eskaintza aberasteko bidean faktore erabakigarria da.

Gasteizen etorkizunerako bigarren elementu giltzarria eta hiri-sistema zabalagoetan eta konplexuagoetan sartzea ulertu ahal izateko, eremu atlantikoan eta Ebroko ardatzaren arteko artikulazio-eremuan duen kokapena da. Kokapen honek balio berezia ematen dio Gasteizi, eremu-europarrean indar handia duen hiri-sistemaz osatutako garapenaren ardatzaren barne sartzen baitu.

2.4. Erabat urbanizatu dagoen lurraldea

2.4.1. Lurralde hiritar baten industrializazioa eta konfigurazioa

EAEko hiri-sistema erabat garatua dago, nahiz eta banaketari dagokionez heterogeneotasun nabarmenak izan. EAEn lurraldearen ezaugarri esanguratsuetako bat XX. mendean zehar hirien hazkunde-prozesuak erakutsi duen indarra izan da. Garapen ekonomikoari lotutako joera orokorra da, eta lurralde batean industriaren garrantzia handiago izan denean garapena ere sendoagoa izan da, EAEn kasuan gertatu den moduan. Biztanleriaren monografian zehaztasunez deskribatzen dira hazkunde

begetatiboari eta biztanleriaren barne eta kanpoko mugimenduei lotutako demografia-prozesuak, hain zuzen ere, finkamendu-sisteman biztanleriaren egungo banaketa eratu dutenak.


Euskadiko hiriek ez zuten soilik haien eraginpean zeuden landa-eremuetako biztanleria erakarri; hazkunde adierazle baxuagoak zituzten beste erregio batzuetako biztanleria ere erakarri zuten. Bereziki XX. mendearen bigarren erdian EAEk jasan zuen urbanizazio-prozesu indartsua, hiriburu handietan eta industria-guneetan gertatu da bereziki. Bizkaian, itsasadarraren Ezkerraldeak kontzentratzen zuen industria handiaren ondorioz, udalerrri horiek izugarri hazi ziren, bai Autonomia Erkidegotik kanpoko immigrazioarengatik eta baita inguruko lurraldeen zurgaketa efektuengatik ere. Horrek Bizkaiko eremu askoren landa-izaera areagotu zuen. Antzeko prozesua gertatu zen Gasteizen, nahiz eta beranduago gertatu eta ez hain bizia izan. Gipuzkoan, berriz, egitura orekatuagoa zenez, kontzentrazio eta zurgaketa prozesuak saihestu egin ziren eta modu homogeneoago batean urbanizatutako eremua sortu zen. Industria urbanizazioaren elementu sustatzaile izateak, gehien hazi ziren espazioak krisi garaia iritsi zenean atzerapen handiena izatea ekarri zuen.

Hala ere, industria-guneen gainbeherak ez du ehun hiritarraren galera adierazi. Gaur egun, biztanleriaren % 86a 10.000 biztanle baino gehiago dituzten guneetan edo, funtzio eta espazio aldetik, hiri nagusien eremu-metropolitarratan integratutako udalerrietan bizi da. Europako urbanizazio-tasa handienetako bat da, Raanstadt holandarraren edo Rhur-en arroaren eremuen antzekoa. Finkamendu-sistemaren garapen nabarmen honek, hainbat kokalekuren industrializazio-prozesu goiztiarretan eta portuei lotutako merkataritza-egitura garrantzitsuen agerpenetan, bereziki Bilbokoan, oinarritutako sustrai historikoak ditu. Faktore horiek lehen hiri-egituraren finkamendua ahalbidetu zuten, eta egun mantentzen diren eta


ondorengo garapenak baldintzatu dituzten ezaugarrietako asko zituen lehen egitura horrek. Dena dela, 50eko hamarkadatik aurrera hasi ziren EAEko egungo hiri-sistema indar handiz definitzen lagundu duten prozesuak: probintzietako hiriburuen hazkunde-hedakorra, gero eta zabalagoak diren eremu-metropolitarrak ezartzera bultzatu duena, eta industria-garapenaren ondorioz hiri-sisteman leku garrantzitsua betetzera pasatzen diren gunen berrien agerpena.

1950ean, Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 75a egun EAEko hiri-eremu nagusiak osatzen dituzten udalerrietan bizi zen eta % 68a, berriz, euskal hiriburuetako eremu-metropolitarratan. Hazkunde demografikoaren eta hedapen metropolitarraren prozesuak hiri bakoitzaren tamainaren araberakoak izan dira, denboran haien bilakaera bezalaxe.

2006KO BIZTANLERIA HIRITARRAREN BANAKETA



Biztanle hiritarrarekin proportzionalak diren zirkuluak



2.4.2. Eremu-metropolitarrak eta hiri-sistema

Elementu nagusia Bilboko eremu-metropolitarrak handia da. Industria-krisiaren urteetan biztanleria galerak jasan arren, Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 41 jasotzen du gaur egun. Bizkaiko biztanleriaren % 80 ingurura iritsi zen eta gaur egun Lurralde Historiko honen % 76,5 kontzentratzen du oraindik.

Hedatzen ari den kontzentrazio hiritar izugarri honetatik kanpo, soilik sei udalerrik gainditzen dute 10.000 biztanleko kopurua. Durango, Zornotza, Gernika-Lumo, Bermeo, Mungia eta Ermua. Mungiaren kasuan, garapena Bilboko eremu-metropolitarrari zuzenki lotuta dagoela ikus daiteke, eta horren ondoan kokatzen da. Aitzitik, Ermuak Gipuzkoako Deba bailararen hiri-dinamiketan parte hartzen du. Beraz, nagusiki hiritarra, baina Bilboko eremuaren inguruan kontzentratutako lurraldea ageri da, eta gero eta zabalagoa den metropoli-prozesua jasaten ari da. Eremu zentraletan biztanleria galtzen da (Bilbo hiria bera eta Ezkerraldeko udalerririk handiak) eta Bizkaiko eremu zabalagoetan eta orain dela gutxi arte landa-eremuak zirenetan handitzen da: kostaldea, Igorre, Aiala, Enkarterriak...

Bilboko eremu-metropolitarrak termino absolutuetan EAEn gehien hazi den hiri-eremua da, eta baita lehena hazi zena ere. 50eko hamarkadan metropoli-prozesua aurreratua nabari zitzaien lurraldea da egun, inguruko guneeetan hiri nagusian baino hazkunde handiagoa duena. 80ko eta 90eko hamarkadetan biztanleria galdu zuen industria-krisiaren ondorioz eta azken bosturtekoan demografia nabarmen berreskuratu du. Hala ere, industria garaikoen desberdinak diren eremu-metropolitarraren lekuetan igotzen ari da. Beraz, Ezkerraldeko udalerririk ez dute garai bateko biztanleria-kopurua berreskuratu eta aldi berean, hiri-eremuaren zabalkundea gertatu da eta horrek urrunago dauden eta garapen arinagoa jasaten ari diren udalerririk berriak barne hartu ditu.

Tradizioz, Gipuzkoako hiri-egitura askoz ere orekatuagoa izan da. Gipuzkoa osoaren baitan, Donostia pixkanaka indarra galduz joan da. 50eko hamarkadan Lurralde Historikoaren biztanleriaren % 40 hartzen zuen, eta egun, % 26,5 soilik. Aldi berean, barnealdeko bailaretan sakabanatutako industria-hiri ertainen multzo handi bat hazi egin zen, eta neurri txikiagoan, kostaldean ere: Eibar, Arrasate, Elgoibar, Oñati, Bergara, Beasain, Tolosa, Zarautz, Azpeitia, Zumarraga, Irun eta Hondarribiak 10.000 biztanle baino gehiago dituzte.

Hala ere, azken hamarkadan guneez anitzeko egitura honetan aldaketak nabari dira. Donostiako hiri-eremua zabaltzen ari da eta demografikoki hazi egin da. Dagoeneko hurbilen duen eremuan probintziaren biztanleriaren % 46era iritsi da. Bitartean, biztanleriaren eta etxebizitzaren merkatuaren terminoetan bere proiektzioa Deba Beherera eta mendebaldeko kostalderaino zabaltzen da. Gipuzkoako hiri ertain gehienek geldialdi-prozesua jasan dute, eta kasu batzuetan, baita atzerapen-prozesua ere. Honela, hiriburuaren zerbitzu-eskaintza erakargarriaren aurrean, hiri hauek funtzionaltasuna galdu dute eta oso urbanizatua dagoen lurraldea eratu dute, baina iraganaren oso bestelakoak diren funtzionamendu- eta hiri-garapen ereduekin.


Donostiako hiri-eremuan egun EAEn biztanleriaren ia % 15a bizi da. Zenbateko hau 50eko hamarkadaren hasierako biztanleriarena baino bi puntu baxuagoa da. Garai honetan gutxien hazi den eremu-metropolitarrak da eta industria-krisiaren ondorioak modu nabarmenean pairatu ditu. Honela, 2006 arte ez dira 70eko hamarkadako bukaerako biztanleria-mailak berreskuratu. Dena dela, azken urteetan izandako hazkundeak hiri-hedapen garrantzitsua ekarri du. Pasaiaiko Badia inguruko industria-guneek geldialdiko egoeran dauden bitartean, eremu-metropolitarrak itsasertzera eta

Urumea eta Orioko bailaretara zabaldu da, funtzio aldetik protagonismo handiago eskuratuz. Honen aldean, Araba nagusiki landa-izaera duen lurraldea da. Soilik hiriburuak eta Laudiok, Bilbo Metropolitarrarekin mugakidea dena, dituzte 10.000 biztanle baino gehiago. Gasteizen garrantzia erabakigarria da, bertan bizi baita Arabako biztanleriaren ia % 75a. Hazkunde metropolitarra udalerrri zabalaren gune txikien eta inguruko herrien gainean gauzatu da, baina hazkunde txikia izan denez, ez da gune nagusiak edo gune nagusiaren aurrean alternatiboak izan daitezkeen hiri-eremuak sortzeko gai izan.

Gasteizen gutxi gorabehera EAEko biztanleriaren % 10a bizi da; 1950ean soilik % 5a bizi zen. Hiri honen hazkunde izugarria izan da, eta epe honetan 4,35 biderkatu du bere biztanleria. Industrializazioa beranduago gertatu zenez, krisiaren eragin txikiagoa jasan zuten sektoreak garatzea ahalbidetu zuen eta horren ondorioz, orain dela 50 urte baino gehiagotan bere hazkunde ez da une batean ere eten. Euskadiren hiriburutartasan kokapena, hiriaren erakargarritasuna eta hazkunderako dituen aukerak garapen garrantzitsu honen oinarritzko faktoreak izan dira. Gainera, garapena gune alternatiboak ez zituen lurralde batean gauzatu denez, hazkundearen lehen garaietan Arabako probintziako landa-eremuengan zurgaketa efektu garrantzitsua eragin du.

Eremu-metropolitarrak hauekin batera, bailara atlantikoak eta neurri txikiagoan itsasertza dira azken hamarkadetan EAEn hiri-hazkunde prozesu nagusiak gauzatu diren guneak. Debako bailara, bereziki Eibar, Ermua, Elgoibar eta Arrasate bezalako hiriak; Urolakoa, Azpeitia, Zumarraga eta Legazpi bezalako guneekin; A-1 igarobidea, Tolosan, Ordizian edo Beasainen guneak dituen, edo Durango eta bere ingurua izan dira 50 eta 80 urte artean hiri-garapen ikusgarria izan duten eremuak. Krisi garaian

guztiak jasan zuten uzkurdua indartsuagoa edo arinagoa, baina azken bosturtekoan berreskuratze-epe bat abiatu dute, Debako guneek salbu. Itsasertzean, hedapen-metropolitarraren prozesuei lotutako zentroak dira gehien hazi direnak (Zarautz, Hondarribia, Gorliz, Plentzia) eta harreman funtzional honi esker, garapen berantiaragoa, baina etengabea, izan dute.



2.4.3. Landa-finkamenduak

Urbanizazio-prozesuak, bereziki intentsitate handiko garaian, landa-eremuak ahultzea ekarri du. Landa-eremuek biztanleria galdu dute etengabe eta finkamendu-sistemaren uzkurdira prozesu sakona jasan dute. Beraz, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan biztanle gutxiago bizitzeaz gain, landa-guneen tamaina orokorrean txikitu egin da. Soilik azken hamarkada honetan eremu-metropolitarraren dinamiken barne sartzen diren landa-guneen hazkunde-prozesuak nabaritzen hasi dira. Dinamika horietan zuzenean sartzen dira, hedapen-dinamika berrietara biztanle eta jarduera berriak erakarriz, edota, modu ez-zuzenean, eremu-metropolitarretatik eskatzen diren aisialdirako jarduerak eta bigarren bizilekuak gehituz. Dena dela, 1.000 biztanle baino gutxiago udalerriek bizirauteko gero eta zailtasun handiagoak dituzte, isolamendu geografiko egoera dutenean. 2007an, 1.000 biztanle baino gutxiagoko 113 udalerri zeuden, EAEko udalerrri guztien % 43 eta bertan, guztizko biztanleriaren % 2a baino zertxobait gehiago bizi zen. Horietatik 43k 500 biztanle baino gutxiago zituzten. 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien artean, erdiak baino gehiagok biztanleria galdu dute azken hamarkadan, eta gainontzekoen artean, 1996 eta 2007 artean soilik 2k izan dute % 1 baino gehiagoko biztanleria hazkundera. 1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerriak guztizkoaren herena dira, baina euren biztanleria Autonomia Erkidegokoaren % 8,9a ozta-ozta gainditzen du. Hurrengo estratuan oreka handiagoa ikus daiteke, 5.000 eta 10.000 biztanle arteko biztanleria duten 26 udalerrri baitaude, udalerrien % 10,4a, eta bertan Euskadiren biztanleriaren % 8,6a bizi da. Bitartean, 10.000 biztanle edo gehiagoko udalerrien zenbatekoa % 15,2 da (guztizko 250 udalerrietatik, 38), baina lehen esan bezala, bertan bizi den biztanleria % 79 da. Beraz, prozesu hau areagotzeko joera dago. Beraz landa-finkamenduen sistemaren atzerapenak espazio aldetik kotatze argia adierazten du eta honako

lekuetan mugatzen da: Enkarterrietako mendebaldeko guneetan, Gernika-Lumo-Markina-Xemein eremu funtzionaleko irisgarritasun zailena duten guneetan, Arabako mendi eta bailaretako udalerrri txikienetan eta Arabako Errioxako guneetan.

2.4.4. Ondorioak

- a) Industria-garapen garaia onduz, EAEko lurraldeak urbanizazio-prozesu oso indartsua jasan du. Prozesu horren ondorioz, biztanleriaren zenbateko handi bat Europako iparraldeko gune trinkoen antzeko ezaugarriak dituzten urbanizazio-maila dituzten hiri-eremuetan bizi da.
- b) Finkamendu-sistemaren aldaketan eta ekoizpen-jardueren egituren arteko harreman zuzena dago.
- c) Honela, industria-garapen indartsua gertatu zen garaian, zurgaketa efektua gertatu zen eta honek biztanleria industria-gune nagusien inguruan nabarmenki kontzentratzea ekarri zuen, hiri-eremu oso trinkoak sortuz.
- d) Bizkaian, Bilbo Handiko industria-enpresa handien kontzentrazio izugarriaren ondorioz, espazio horren inguruan lurraldearen dinamismoaren polarizazio handia gertatu zen, eta gainontzeko eskualdeetako guneek gero eta pisu murriztagoa izan zuten.
- e) Aitzitik, Gipuzkoako industria-egitura deszentralizatuagoa zuenez, eredu orekatuagoa finkatu zen. Hiriburuaren eremuarekin batera, azpigune dinamiko eta hiri-dimentsio esanguratsua zuen multzoa garatu zen.
- f) Araban, industria-garapena beranduago gertatu zen. Hiri-dinamismoa txikiagoa izan zen eta hiriburura mugatu zen. Bitartean, lurraldearen gainontzeko herrietan landa-izaera zen nagusi.

- g) Industria-krisiak eredu honen geldialdia ekarri zuen eta beren egitura ekonomikoan industria-jardueren pisu handiena zuten eremuei eragin zien bereziki.
- h) Komunikazioen hobekuntzaren testuinguruan, nagusiki tertziarioa zen eta industria-gune handietan pisu txikiagoa zuen ekonomia agertzeak hiri-sistemaren bilakaeran aldaketa garrantzitsua ekarri du.
- i) Eremu-metropolitarrak, garapen tertziario handiagorekin eta zerbitzu-eskaintza zabalago eta konplexuagorekin, protagonismo handia hartu dute eta lurraldearen gainontzeko eremuetara zabaldu dira fisikoki eta funtzionalki. Bitartean, tradizioz eskualdeetako gune ziren herriek zentralitate elementuetako asko galdu dituzte.
- j) Honela, eremu-metropolitarrakiko harremanek, haiekiko konektibitateak eta gune zentral horiei lotutako jarduerak eta biztanleak erakartzeko lurraldeen gaitasunak mugatzen dituzte hiri-garapen prozesu berriak.

3.

Hirien garapenerako prozesu berriak EAEn

3.1. Bizitegi-garapena EAEn

Etxebizitza Sailaren datuen arabera, 1998 eta 2006 artean, EAEn etxebizitza berrietarako 118.777 baimen eman ziren. Bestalde, 1995-2004 artean, guztira, 126.732 etxebizitza eraiki ziren.

Etxebizitza-parkearen hazkunde esanguratsua da, eta emaitza horrek erakusten du 2006an EAEn eraikitako etxebizitza guztien % 12a azken 10 urteetan eraiki direla.

Termino absolutu zein erlatiboetan, etxebizitza-parkearen hazkunde-prozesua Bilbo Metropolitarran kontzentratu da.

1998 eta 2006 bitartean eraikitako etxebizitza guztien % 37,5 eremu honetan eraiki dira.

Barakaldo eta Bilbo dira, alde handiz, prozesu honen buru izan diren udalerriak. Bilbo Metropolitarrako etxebizitza berrien % 65 bi udalerrri hauetan kokatzen da. Bi udalerririk epe horretan jasan duten hiri-eraberritze prozesu nabarmena da hazkunde horien oinarritzko arrazoia. Lehen beste erabilera batzuetarako ziren espazio berriak libre geratu dira, eta horiei bizitegi-erabilera eman zaie. Epe honetan, eskuineko ibaiertzeko Erandio, Leioa edo Getxo bezalako udalerrietan 1.000 etxebizitza berri baino gehiago eraiki dira.

Hazkunde handiena izan duen bigarren eremua Araba Erdiko eremu funtzionala izan da; 1998 eta 2006 artean ia 22.000 etxebizitza berri eraiki dira, EAEn eraiki diren etxebizitza guztien % 18,45 gaudituz. Horietatik, 17.300 Gasteizen eraiki dira. Hain zuzen ere, Gasteiz da epe honetan EAEn eraiki diren etxebizitza berri gehien eraiki dituen udalerria. Gainontzeko udalerririk balio absolutu askoz ere txikiagoak dituzte. Aipagarriak dira,

Agurain 700 etxebizitza baino gehiagorekin eta Gasteiz inguruko udalerririk (Iruña Oka, Dulantzi, Erriberabeitia, Zigoitia...) 200 eta 400 etxebizitza bitarteko hazkunderekin.

Donostia da hirugarren hazkunde-eremua, EAeko etxebizitza berrien % 14,2arekin. Hiriburua, 7.100 etxebizitza berriekin; Irun, ia 3.000ekin; eta Hondarribia, 1.200ekin dira eremu honetako hazkunde handiena kontzentratzen duten udalerririk. Eremu metropolitarraren kanpoaldean kokatzen diren hainbat udalerririk ere, beren tamainaren arabera, hazkunde esanguratsua izan dute: Andoain (800 etxebizitza), Oiartzun (614 etxebizitza) eta Urnieta (472 etxebizitza). Pasaiaiko Badiako udalerririk, euren tamainaren arabera, hazkunde txikia izan dute. Erreterian 800 etxebizitza inguru eraiki dira; Lezon 218 etxebizitza eta Pasaian, 84. Pasaia da, hain zuzen ere, etxebizitza gutxien eraiki den udalerririk metropolitarran.

Durangoko eremuan EAeko etxebizitza berri guztien % 4,2 eraiki dira. 5.000 etxebizitza dira, eta bereziki, Durangon (2.144) eta Zornotzan (1.226) kokatzen dira. Berriz eta Abadiño ere gune dinamikoak dira, 500 etxebizitzekin.

Zarautz-Azpeitiak eta Beasain-Zumarragak, hurrenez hurren, EAEn azken 10 urteetan eraiki diren etxebizitzaren % 3,6 eta % 3,5 biltzen dituzte; hau da, 4.200 etxebizitza inguru eremu bakoitzeko.

Zarautz-Azpeitian hazkunde nagusiak Azpeitia-Azkoitia eremuan, guztira 1.600 etxebizitza berriekin, eta kostako eremuetan (Zumaia, Zarautz, Orio...), 300 eta 500 arteko etxebizitza berriren hazkunderekin, izan dira.

Beasainen, herri nagusia (850 etxebizitza) eta bere ingurua (Ordizia-Lazkao, guztira 900 etxebizitza) dira hazkunde handiena izan dutenak,


Zumarraga-Urretxu-Legazpi eremuarekin batera, 1.000 etxebizitza ingururekin. Guzti horiek dira ia eskaintza berri osoa biltzen duten eremuak.

Arrasate-Bergarak (% 2,8) eta Eibarrek (% 3) gutxi gorabehera 3.500 etxebizitzarekin zabaldu dute beren parkea. Eibar, Elgoibar eta Ermua dira Debabarrenaren ia hazkunde osoa jasan dutenak; 1.000 etxebizitza bakoitzak, gutxi gorabehera. Deba Garaian, Arrasate, Bergara eta Oñatin izan dira hiri-hazkunde prozesu nabarmenenak. Udalerrri bakoitzean 800 etxebizitza berri eraiki dira.


Gernika-Lumo-Markinan hazkunde berrien % 3,8 kokatzen da. Gernika-Lumo (877) eta Bermeo (607) dira etxebizitza-parkea gehien handitu duten udalerriak. Markina-Xemeinen 300 etxebizitza berri eraiki dira. 100 etxebizitzetatik gorako hazkundea izan duten gainontzeko udalerriak kostaldean daude: Lekeitio, Busturia, Mundaka, Berriatua eta Ea.

Laudioko eremuan 2.700 etxebizitza berri egin dira (EAeko etxebizitza berrien % 2,3) eta bereziki herri nagusian (1.014) eta Amurrion (700) kokatzen dira. Aiala eta Okondok hazkunde handia izan dute, beren biztanleriaren tamainaren arabera (300 etxebizitza inguru) eta Urduñak, berriz, hazkunde txikia izan du (120). Tolosako eremuan 2.480 etxebizitza berri eraiki dira, gehienak herri nagusia eta Donostiaren eremu metropolitarraren artean: Tolosa 695, Irura 305, Villabona 297 eta Anoeta 189.

Bilbo Metropolitarraren inguruko eremuan, hazkundeak honako hauek izan dira: Balmaseda-Zallan 2.004 etxebizitza, Mungian 1.900 etxebizitza eta Igorren 1.370. Enkarterrietan, hazkunde handienak Güeñesen eta Zallan (525 etxebizitza bakoitzak) eta Balmasedan (309 etxebizitza) izan dira. Mungian, bereziki herri nagusiak izan du etxebizitza hazkunde handiena,



1998-2006 EPEAN ERAIKITAKO GUZTIZKO ETXEBIZITZA-KOPURUA




Guztizko etxebizitza-kopurua

- < 100
- 100 - 500
- 500 - 1.000
- 1.000 - 5.000
- > 5.000

Iturria: Etxebizitza Saila, 2007

1.035 etxebizitza, eta hazkunde askoz ere txikiagoa izan du Bakiok, 359 etxebizitzarekin. Igorren, Lemoa eta Igorre dira eskaintza berriaren gune nagusiak, bien artean 800 baino etxebizitza gehiago bilduz.



Azkenik, Arabako Errioxan 1.284 etxebizitza berri eraiki dira. Horien erdiak Oionen kokatzen dira, Logroñoko eremu metropolitarraren hazkundearen zati den udalerrian. Eltziego, Guardia eta Bastidan 100 etxebizitza berri baino gehiago egin dira.


Dinamismoari dagokionez, aurretiaz zegoen parkearen baitan Arabako eremuak eta Bilbo Metropolitarraren ingurukoak nagusitzen dira. Igorren, etxebizitza guztien % 24,7 azken 10 urteotan eraiki dira. Mungian % 16,2, Durangon % 15,9, Laudio % 15,2 eta Balmaseda-Zallan % 13,30. Araba Erdiak ere dinamismo handia du. Bere etxebizitzen % 19ak 10 urte baino gutxiago ditu. Guardia, % 17ak.

Beraz, bi eremutan kontzentratzen den dinamismo eredua dagoela dirudi: Bilbo Metropolitarran, eremuan gauzatutako hedapen-prozesuen ondorioz, eta bereziki Gasteizen kontzentratzen dena, gune arabarren hazkundearen ondorioz. Bilbo Metropolitarran bertan, dauden etxebizitza guztiak kontuan hartuta, azken epe honetan % 11,1 etxebizitza eraiki da.

Gipuzkoa da etxebizitza-parkeak, aurretik zegoen egoerarekin alderatuta, hazkunde txikiena izan duen lurraldea. Beasain-Zumarraga, Zarautz-Azpeitia eta Tolosa dira azken 10 urteotan bizitegi-hazkundeak garrantzia handien izan duten eremuak. Beasain-Zumarragan etxebizitza-parkearen hazkundea % 14 izan da, Zarautz-Azpeitian % 13,1 eta Tolosan % 12,8. EAEko batez bestekoaren azpitik, Arrasate-Bergarako eremua, % 12ko etxebizitza berrirekin; Eibar, % 10,8arekin eta Donostia, % 9,8arekin daude. Termino erlatiboetan, etxebizitza berrien eraikitze-prozesua modu apalagoan gertatu da Gernika-Lumo-Markinako eremu funtzionalean; azken 10 urteotan, % 9 etxebizitza eraiki dira

3.2. Etxebizitza eta biztanleria. Azterketa konparatiboa

Demografiaren hazkundearen eta etxebizitza-parkearen arteko harremana, eremu funtzionalen arabera (biztanle berriak/etxebizitza berriak). 1998-2006 epea.



Etxebizitzaren eraikuntzaren bilakaera biztanleriaren bilakaerarekin konparatuz gero, oso egoera desberdinak ageri dira lurraldean.

Bilbo Metropolitarrako, Eibarko eta Arrasate-Bergarako eremuetan etxebizitza-parkeak hazi egiten dira, biztanleria galtzen den bitartean. Desberdintasun nabarmenena Bilbo Metropolitarran gertatzen da; 44.000 baino etxebizitza berri gehiago ditu, baina 7.000 biztanle gutxiago. Aurretik aipatutako berritze-prozesuei erdiguneko eremu askotan gertatu den tertziarizazio handia gehitu behar zaie. Horrek bizitegi-erabilera murriztu egin du. Bestalde, Bilbo Metropolitarran, bereziki Ezkerraldeko udalerrietan, nola Eibarren eta Deba Garaian, industriaren hazkunde garaiko kalitate baxuko etxebizitzaren kontzentrazioa dago, eta egun gero eta desegokiagoak dira. Etxebizitzaren aldaketa-prozesuak bultzatzen dituzten faktore hauek guztiek, bizitegi-eskaintzaren eta biztanleriaren arteko joera kontrajarriak azaltzeko balio dezakete, etxebizitzaren prezioen goranzko hazkundearen testuinguruan.

Egoera guztiz kontrakoa gertatzen da Mungia eta Zarautz-Azpeitiako eremuetan. Bertan, biztanleria etxebizitza-eskaintzatik gora hazi da. Mungian bereziki, biztanle berrien kopurua etxebizitza berrien kopuruaren bikoitza da. Eremu hauek kostako eremuak eta eremu-metropolitarran dauden eremu erakargarriak dira, eta ezaugarri horiek, beste hainbat datuarekin batera, bigarren etxebizitzaren zenbateko altu bat lehen etxebizitza bihurtzeko prozesua adierazten dute. Honek, biztanle-kopurua igotzea ahalbidetu du, etxebizitzaren hazkundera txikiagoa izan den bitartean.

Tolosa, Araba Erdia, Donostia, Balmaseda-Zalla, Durango, Igorre eta Guardiako eremuek biztanleriaren eta etxebizitzaren hazkundearen artean oreka dute, nahiz eta horiek guztiek bizitegi-eskaintza berriaren superabit arina izan. Eremu funtzional hauen kasuistika bestelakoa da. Kasu

batzutan, tradizionalki industrialak ziren eremuetan berritze eta etxebizitza aldaketa prozesuak gertatu dira; bestetan, aldiz, hedapen-metropolitarraren prozesuei edo bigarren etxebizitzaren garapenei lotutako eskaintza berriak izan dira.

Azken taldea, biztanleriaren eta etxebizitzaren bilakaeraren arteko desoreka nabarmena duten eremu funtzionalena da. Haien artean oso desberdinak diren bi kasu daude.

Alde batetik, Beasain-Zumarraga eta Laudioko eremuetan biztanle berri bakoitzeko 6 etxebizitza berri eraiki dira. Kalitate handiagoko etxebizitzetara egindako bizitegi-aldaketa prozesuak, bigarren etxebizitzaren garapena eta hedapen-metropolitarraren prozesuei lotutako eskaintza berriak dira hain desoreka nabarmena eragin duten elementuak.

Gernika-Lumo-Markinaren kasua are deigarriagoa da. 540 biztanle berri ditu eta ia 3.400 etxebizitza berri Kasu honetan, kostaldeko udalerrietan bigarren etxebizitzaren hazkunde nabarmenari lotutako prozesua da.


3.3. Bigarren mailako etxebizitza

Bigarren mailako etxebizitzari dagozkien erroldak EAEn bizitegi-eredu honen garrantziak beheranzko joera garbia duela erakusten dute.

1991-2001 epean, guztizko etxebizitza kopurua % 14 igo zen EAEn, baina bigarren mailako etxebizitza soilik % 3 igo zen.

Zenbaki absolutuetan, hiriburu-eremu funtzionalak dira mota honetako etxebizitza kopuru handiena dutenak: Bilbo Metropolitarrak, Donostiak eta Araba Erdiak bigarren mailako etxebizitza gisa sailkatutako etxebizitzaren

erdia baino gehiago biltzen dituzte. Proporzio honek jaitziera txiki bat jasan zuen 2001ean.



Termino erlatiboetan, 2001ean bigarren mailako etxebizitza gehien zuten eremu funtzionalak Guardia (erroldatutako etxebizitzaren % 39,47), Mungia (% 24,72), Gernika-Lumo-Markina eta Zarautz-Azpeitia (% 13,7) ziren. Aitzitik, proporzio txikiena Durangok (% 1,8), Balmaseda-Zallak (% 2,1), Tolosak (% 2,8) eta Bilbo Metropolitarrak (% 3) zuten.



EAE osoan, bigarren mailako etxebizitzaren garrantzia % 6 izatetik % 5,4 izatera pasatu zen 1991 eta 2001 urte bitartean.

Murrizte-prozesu honek erakusten duen lurraldekako banaketa bereziki interesgarria da.

Balmaseda-Zalla, Bilbo Metropolitarrak, Beasain-Zumarraga, Donostia, Gernika-Lumo-Markina eta Igorreko eremuetan bigarren mailako

etxebizitzak termino absolutuetan murriztu egin dira. Hau bigarren etxebizitzatik lehen etxebizitzara egindako aldaketaren adierazle da.

Aitzitik, Durangon, Eibarren, Mungian, Tolosan eta, termino erlatiboetan oso modu garrantzitsuan, Arrasate-Bergaran eta Zarautz-Azpeitian igo egin dira. Laudioarekin batera, azken bi eremu hauek EAEko eremuen artean bigarren etxebizitzaren zenbatekoa etxebizitza-parkearekin alderatuta igotzen den eremu bakarrak dira.

Araba Erdiko eremu funtzionalean bigarren mailako etxebizitza murriztu egin da, bereziki Gasteizko hazkunde-eremuaren barne sartzen ari diren udalerrietan: Iruñea Oka, Bernedo, Arratzu-Ubarrundia, Iruraitz-Gauna, Erriberagoitia eta Zuia. Antzeko zerbait gertatzen da Enkarterrietan. Bilbo Metropolitarratik hurbilen dauden udalerrietan jaitsiera nabari da (Balmaseda, Güeñes eta Sopuerta) eta urrunen daudenetan, berriz, igo (Lanestosa, Turtzioz eta Artzentales).

Bilbo Metropolitarran, hiriburuan eta bereziki kostaldeko udalerrietan igo da (Sopela, Plentzia, Muskiz, Zierbena), baina kanpoaldeko udalerririk gehienetan murriztu egiten da, bigarren etxebizitza lehen etxebizitza bilakatzearen prozesu sakonaren ondorioz (Getxo, Zamudio, Ortuella, Abanto-Zierbena, Trapagaran, Barrika, Gortiz...).

Igorren, Bilbotik hurbilen dauden udalerrietan jaitsi egin da (Igorre, Bedia, Lemoa...), eta Diman eta Areatzan, berriz, igo.

Antzeko prozesua gertatzen da Laudion; Okondon, Aialan eta Amurion igo egiten da, eta Orozkon eta Artziniegan, berriz, jaitsi.

Jaitsi egiten da ere Gamiz-Fikan, Maruri-Jataben eta Bakion, eta igo egiten da Gatican, Fruizen, Laukizen eta Meñakan.

Gernika-Lumo-Markina eremu funtzionalean bigarren etxebizitzaren hazkundera bereziki kostaldean gertatzen da (Sukarrieta, Elantxobe, Bermeo, Ea...), baina baita barnealdean ere (Muxika, Gernika-Lumo, Ereño, Morga, Arratzu...). Jaitsiera, bereziki, Markina-Xemein eremuan gertatzen da (Etxebarria, Ondarroa, Ispaster, Amoroto...).


Durangoko eremuan kopurua jaitsi egiten da Garaien, Zornotzan, Atxondon eta Elorrion, baina Berrizen, Izurtzan, Mañarian eta Zaldibarren igo egiten da.

Donostiako eremu funtzionalean, Hondarribian, Pasaian eta Usurbilen igo egiten da, eta gainontzeko udalerrri guztietan nabarmen jaisten da.

Aitzitik, Zarautz-Azpeitian soilik Zestoan, Errezilen eta Azkoitian jaisten da, eta gainontzeko guztietan igotzen da, bereziki Zarautzen

Tolosan, bereziki landa-izaera handiena duten udalerrietan igotzen da (Lizartza, Irura, Gaztelu...). Antzeko zerbait gertatzen da Goierrin. Arama, Gabiria eta Zaldibia bezalako udalerrietan bigarren etxebizitzaren kopurua igo egiten da, gainontzekoetan, aldiz, jaitsi; Eibarren, Soraluzen eta Deban igo egiten da, eta gainontzekoetan jaitsi. Arrasate-Bergara eremuan, eredu hau orokorrean igo egiten da, bereziki herri nagusietan kontzentratuta (Oñati, Arrasate eta Bergara). Arabako Errioxan, Oionen eta Eltziegon nabarmen jaisten da, eta gainontzeko udalerrri guztietan igo egiten da.

BIGARREN MAILAKO ETXEBIZITZAREN ALDAKORTASUNA
%-TAN, UDALERRIEN ARABERA. 1991-2001



3.4. Hirigintza-plangintzaren lurralde-eredua

Etxebizitza-parkearen eta bizitegi-ereduen bilakaeraren hazkunde- eta aldaketa-prozesu hau estuki lotzen zaio tokiko hirigintza-plangintza desberdinek sortutako ereduari.

UDALPLANaren 2007ari dagozkion datuen arabera, EAEko lurzoru sailkatu osoak 59.806 Ha zituen, eta horietatik % 40 Sistema Orokorrei dagozkio. Horietatik, heren bat baino zertxobait gehiago espazio libreak dira, % 30 bideei dagokie, % 22 ekipamenduei, eta gainontzekoa, % 1 eta % 4 zenbatekoen artekoa, aireportu, portu eta trenbideen artean banatzen da.

Gainerako 36.000 hektareatik, % 62,9 bizitegi-lurzoruari dagokio (% 40,1 lurzoru hiritarrari, % 14,2 lurzoru urbanizagarriari eta % 8,6 landa-eremuko lurzoru ez-urbanizagarriari) eta % 37,1 jarduera ekonomikoei zuzendutako lurzoruari (% 23,5 lurzoru hiritarrari eta % 13,6 lurzoru urbanizagarriari).

Beraz, lurzoruaren sailkapena, bere okupazio-sistemak eta etorkizuneko garapenerako aurreikuspenak eta aukerak, eremu desberdinen bilakaera eta ondoriozko lurralde-eredua etorkizunari begira ezagutzeko oinarritzko elementuak dira.

3.4.1. Bizitegi-zoru hiritarra (BZH)

Logikoki, bizitegirako erabilera duen lurzoru hiritarraren zati handiena hiru hiriburuetakoa hiriguneei dagokio. Gasteiz da sailkapen honetan azalera handiena duen udalerria (1.484 Ha), ondoren Bilbo (1.204 Ha) eta Donostia (951 Ha). Guztira, hiru hiriburuak EAEko bizitegi-zoru hiritar osoaren % 25 biltzen dute. Bigarren mailan, Getxo, Mungia eta Barakaldo udalerriak daude, 400 Ha inguruko bizitegi-zoru hiritarra dutenak. Bizitegi-zoru hiritar gisa sailkatutako 100 Ha baino gehiagoko zorua duten 22 udalerriek EAEko

mota honetako lurzoru osoaren % 52 osatzen dute. Gainera, aipatutakoez gain, udalerrri hauen artean eremu funtzionaletako lau herri nagusi ageri dira (Zarautz, Arrasate, Durango eta Zalla); Bidasoa Beheko bi udalerrriak Donostiako eremu funtzionalean (Irun eta Hondarribia); Portugalete, Basauri, Santurtzi, Galdakao eta Leioa Bilbo Metropolitarran; Amurrio, Laudioko eremuan; eta Zuia, Donemiliaga, Zigoitia, Barrundia eta Gaubea, Araba Erdian (guztiak Gasteiz inguruan daude, aipatutako azkena izan ezik). Beraz, hiriburuetakoa eremu-metropolitarran, eta oso bereziki Ezkerraldean, kontzentrazio handia dago, eta agerian geratzen da azterketa eremu funtzionalen arabera eginez gero. Maila honetan, EAEko bizitegi-zoru hiritar osoaren % 67 hiru hiriburuetakoa eremu funtzionalean kontzentratzen dela ikus daiteke.

Biztanleriaren eta bizitegi-zoru hiritarraren hedapenaren datuen arabera, hiri-eredu kontzentratuak edo estentsiboak bereiz daitezke. Lehen kasuan, Eibarko eremu funtzionala nabarmentzen da. EAEko biztanleriaren % 3,3 biltzen du, baina soilik % 1,3ko bizitegi-zoru hiritarra du. Alde nabarmenarekin, Eibarko udalerria da EAEn biztanleko BZH txikiena duen udalerria: 1.032 biztanle baino gehiago BZHren hektareako. Ermua, aldiz, zenbateko txikiena duten udalerrien artean laugarrena da, 470 biztanle/BZHren Ha. Biztanleria eta BZHren arteko desberdintasuna bereziki nabarmentzen da Bilbo Metropolitarran ere: EAEko biztanleriaren % 42,6a eta BZH osoaren % 27ko azalera du. Basauri, Portugalete eta Erandio bezalako udalerriek 350 eta 500 biztanle/BZHren Ha arteko dentsitatea dute, eta Ugaok eta Arrigorriagak, 300 biztanle inguru/BZHren Ha. Bilbo hirian zenbatekoa 295 biztanle/Ha da. Aitzitik, Zeberio, Lemoiz, Zierbena eta Gorniz bezalako eremuek eredu estentsiboagoak dituzte, 50 biztanle baino gutxiago/BZHren Ha.


Donostiako eremu funtzionalak ere orokorrean eredu kontzentratua du, aurrekoenak baino orekatuagoa izan arren. EAEko biztanleriaren % 18 biltzen du eta bizitegi-zoru hiritarra % 15 da. Dentsitate handiena duten eremuak Pasaiaiko Badiaren ingurukoak dira. Lezo, Pasaia eta Errenteriak 275 eta 400 biztanle artean dituzte BZHren hektarea bakoitzeko. Gainera, biztanleko lurzoru hiritar eskasa duten udalerriak ere badaude; esaterako, Hernani, Iurreta, Andoain eta Lasarte-Oria, 200 biztanle baino gehiago/BZHren Ha. Donostiak 195 biztanle/BZHren Ha du eta Hondarribiak 45 biztanle baino gutxiago BZHren hektareako.

Durango eta Zarautz-Azpeitiak antzeko kopuruak dituzte: EAEko biztanleriaren % 3,2 inguru dute eta BZH osoaren % 2,8. Durangon, Iurreta da kontzentrazio handiena duen udalerria, 730 biztanle/BZHren Ha. Zornotzak, Elorriok eta Abadiñok 200 biztanle baino gehiago/BZHren Ha dituzte. Durango, aldiz, 142 biztanle/Ha. AP-8aren ardatzetik kanpo kokatzen diren udalerriek eredu estentsiboagoak dituzte, 55 biztanle inguru/BZHren Ha. Zarautz-Azpeitia eremuan, Zarautz eta Getaria dira dentsitate handiena duten udalerriak (200 biztanle inguru/BZHren Ha), Azpeitia eta Azkoitiarekin batera (165 biztanle inguru/BZHren Ha). Aitzitik, Beizamak 65 biztanle ditu BZHren hektareako.


Arrasate-Bergarak ere dentsitate handia du, BZHren % 2,2 eta biztanleriaren % 3. Bergarak 287 biztanle/Ha ditu eta Arrasatek, Aretxabaletak eta Eskoriatzak, 200 biztanle inguru/BZHren Ha. Dentsitate txikiena duten eremuak Debaren ardatzetik kanpo daudenak dira, 100 biztanle/Ha adierazleak dituzte.



BIZITEGI-ZORU HIRITARRAREN AZALERA, UDALERRIEN ARABERA (ha)



Biztanleria eta bizitegi-zoru hirritarren azaleraren banaketa, eremu funtzionalen arabera



Iturria: lankeita propioa

Igorreko eremuak egoera orekatua du, biztanleriaren eta BZHaren % 0,5arekin. Kasu honetan, Bilbo Metropolitarrarekiko harremana oinarritzko elementua da hiri-eredu desberdinak definitzeko orduan. Eremu-metropolitarratik hurbil dauden udalerriek izaera kontzentratua dute. Igorrek eta Dimak 300 biztanle/Ha gainditzen dituzte, eta Bediak eta Lemoak, 200. Aitzitik, urrunago dauden udalerriek, Arantzazuk eta Arteak esaterako, 30 biztanle inguru dituzte hektareako.

Beasain-Zumarragan biztanleriaren % 3 eta BZHren % 3,1 kokatzen da, eta biztanleriaren ehunekoa bizitegi-zoru hirritarren ehunekoa baino baxuagoa den eremuei dagokie. Eredu oso kontzentratua duten herriak Urretxu (491 biztanle/Ha), Zumarraga, Zaldibia eta Ordizia (200 biztanle inguru/Ha) eta Beasain (172 biztanle/Ha) dira, baina haiekin batera, landa-izaera duten herriak ageri dira, BZHren hektarea bakoitzeko 50 biztanle baino gutxiago dituztenak. Mutiloa, Alzaga, Gabiria eta Zerain, esaterako.


Antzeko egoera du Tolosako eremuak. Herri nagusiak eta haren ondoan daudenak edo A-1 ardatzaren inguruan kokatzen direnak (Tolosa, Hernialde, Villabona, Ibarra...) eredu kontzentratuenak dituzte, 200 biztanle baino gehiago BZHren hektareako. Hego-ekialdeko udalerriek (Orexa, Belauntza, Larraul...) 50 biztanle baino gutxiago dituzte hektareako; gutxienezko Elduainek du, 15 biztanle/ BZHren Ha.

Gainontzeko eremuetan, landa-izaera nabarmena eta garapen estentsiboagoa duten eremuei dagozkien eredu estentsiboak dira nagusi.

Gernika-Lumo-Markina eremuak biztanleriaren % 3,3 du eta BZHren % 4,5. Eremu kontzentratuenak kostaldean daude (Bermeo, 269 biztanle/BZHren Ha; Ea, Lekeitio, Ondarroa, Ispaster... 9 eta herri nagusietan, 164 biztanle/Ha Gernika-Lumon eta 157 biztanle/BZHren Ha Markina-Xemeinen. Eremu estentsiboak bereziki Mundakako itsasadarrean daude (Gautegiz Arteaga, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Ibarrangelu), 25 biztanle/BZHren hektarea baino dentsitate txikiagoekin.

Enkarterrietan, biztanleriaren % 1,4arekin eta BZHren % 2,7arekin, soilik Balmasedak eta Karrantzak gainditzen dute 100 biztanle/Ha zenbatekoa. Azken udalerrri honen kasuan, biztanleria kopuru handiena lurzoru

BIZITEGI-ZORU HIRITARRAREN DENTSITATEA, 2007
(biztanleak/azalera)



hiritarretik kanpo dago, landa-eremuetan. Gutxieneoak Lanestosak eta Turtziozek dituzte.

Laudioko eremuan, soilik herri nagusiak du kontzentrazio handia (281 biztanle/BZHaren Ha). Gainontzeko udalerriek 100 biztanle/Ha baino gutxiago dituzte; Arakaldo, Aiala eta Orondoren kasuetan, 20 biztanle baino gutxiago hektareako.

Mungiako eremuak BZH osoaren % 4 du, eta bertan soilik biztanleriaren % 1 bizi da. Eredu estentsibo garbia da, eta soilik Gamiz-Fikak, Meñakak eta Gatikak dituzte 100 biztanle/BZHaren Ha baino adierazle handiagoak. Mungia, Bakio eta Laukiz bezalako udalerriek 35 biztanle baino gutxiago dituzte BZHren hektareako.


Igorreko eremuak egoera orekatua du, biztanleriaren eta BZHren % 0,5arekin.

Araba Erdian, biztanleriaren % 12ak EAE osoko BZHren % 25a du. Soilik Gasteizek du 100 biztanle/Ha baino dentsitate handiagoa, eta Agurain eta Dulantzi dira BZHren hektareako 50 eta 100 biztanle artean dituzten udalerririk bakarrak. Gainerako udalerriek izaera estentsibo nabarmena dute, eta 12 udalerririk 10 biztanle/Ha baino dentsitate txikiagoa dute. Gasteiz inguruko udalerririk, Zuia eta Zigoitia esaterako, EAE osoan, termino absolutuetan, bizitegi-zoru hiritar gehien dutenak dira.

Izaera bera dute Arabako Errioxako eremuak, % 0,5eko biztanleriarekin eta % 2,5eko BZHrekin. Kasu honetan, kontzentrazio adierazle handiena duen udalerririk Oion da, 69 biztanle/Ha.


3.4.2. Lurzoru urbanizagarria

Lurzoru hiritarraren azterketak hiri-eredu jarriak antzemateko aukera ematen duen moduan, lurzoru urbanizagarriaren azterketak udal-plangintzak proposatzen duen etorkizuneko ereduaren ikuspegia eskaintzen du.




EAE osoak bizitegirako lurzoru urbanizagarrien 5.129,6 hektarea ditu. Kopuru honek lurralde osoaren % 0,72a adierazten du, eta beraz, ez dirudi proportzionalki kopuru aipagarria denik. Hala ere, egun dagoen bizitegi-zoru hiritar osoaren % 35eko igoera adierazten du, eta horrek etxebizitzarako diren eta hiriko erabilera duten azalera heren bat igotzea adierazten du. Bestalde, bizitegirako zuzendutako lurzoru berri honek espazio aldetik kontzentrazio handia du. Soilik 10 udalerrik kontzentratzen dute EAeko bizitegirako lurzoru urbanizagarri (BLU) osoaren % 50. Eskaintza handiena egiten duena, desberdintasun handiz, Gasteiz da, 966 hektarea baino gehiagoko BLUaren azalarekin. Jarraian, 200 eta 250 hektarearekin, Derio, Zalla, Getxo eta Donostia daude. BLUaren 100 eta 130 hektarea arteko sailkapena dute Mungiak, Leioak, Errenteriak, Bakiok eta Guardiak.

Eremu funtzionalen arabera, Bilbo Metropolitarrak du EAeko bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren % 29. Garapen handiagoa iragartzen duten udalerriez hitz egiterakoan ikusi den moduan, Bilbo Metropolitarraren hazkunde hau bereziki eskuineko ibaiertzeko udalerrietan eta Bilbo iparraldean kokatutako eremuetan planteatzen da (Barrika, Berango, Plentzia, Sopela, Bilbo, Leioa, Derio eta Getxo). Udalerri hauek hazkunde nagusiak kontzentratzen dituzte, eta eremu metropolitarraren hazkunde-prozesuak etengabe iparralderantz lekualdatzen ari direla erakusten dute. Getxoren BLUak Portugalete, Sestao, Santurtzi, Basauri eta Barakaldoren batuketa gainditzen du. Oro har, Bilbo Metropolitarran aurreikusitako BLUak egun dagoen lurzoru hiritarraren % 38 adierazten du. Termino erlatiboetan, aldaketa nagusiak Berango, Urduliz, Loiu, Plentzia, Derio eta Barrikan gertatu dira. Udalerri hauen BLUak egun dagoen lurzoru hiritarra bikoiztu baino gehiago egiten du.



BIZITEGI-ZORU HIRITARRAREN AZALERA, UDALERRIEN ARABERA (Ha)




Bizitegi-zoru hiritarra (Ha)

- < 10
- 10 - 25
- 25 - 50
- 50 - 100
- > 100

Iturria: UDALPLAN, 2007

BIZITEGI-ZORUAREN HAZKUNDEA, PLANGINTZAREN ARABERA SAILKATUTA

Lurzoru urbanizagariaren %, lurzoru hirritarekin alderatuta



Bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren hedadurari begiratuta, bigarren eremu funtzionala Araba Erdia da, eta EAE osoaren % 26,3a du. % 60 Gasteizi dagokio, ia 1.000 hektarearekin. Kopuru txikiagoak dituzte (hiriburuan aurreikusitako azaleraren % 5aren inguruok) Zigoitia, Erriberabeitia edo Iruña Oka inguruko udalerriek. Kopuru hauekin, bizitegirako erabilitako sailkatutako lurzorua % 35 igo da gune osoan Erriberabeitiak azalera 2,2 bikoiztu du, Kanpezuk % 85 igo du eta Gasteizek, % 65.

Azalera askoz ere txikiagoa du Donostiako eremuak, eta soilik EAeko BLU osoaren % 11 du. 565 hektarea inguru dira. Erdia hiriburuarenak dira, ia bostena Errenteriarri dagokio eta 45 hektarea inguru Iruni. Gainontzeko udalerriek neurrizko hazkundeak dituzte, 15 edo 20 hektarea artekoak, eta Pasaian, Lezon eta Astigarragan ez dira 10era iristen. Oro har, bizitegirako lurzoruen % 25 igotzea planteatzen da, eta hazkunde erlatibo handiena duten eremuak, Errenteria % 112 hazi da, eta Urnieta, % 42, dira.

Enkarterriak eta Mungia ere eremuak, beren tamainaren arabera, hazkunde adierazgarriak dituzte. Hazkunde horiek gero eta gehiago Bilbo Metropolitarraren bizitegirako hazkunde-espazioen funtzioa hartzen ari dira.

Balmaseda-Zallak EAeko BLU osoaren % 6,5 du, 333 hektarea, eta gehienak Zallako udalerrian daude, 216 hektarea. 20 hektarea inguruko azalera dute Sopuerta, Karrantza eta Gueñes udalerriek. Enkarterriak termino erlatiboetan hazkunde handiena xede duen eremua da, eta bere BLUa duen lurzoru hiritar osoaren % 85 da. Zallak % 158 du, Karrantzak % 117 eta Sopuertak % 72.

Mungia sailkatutako BLU handiena duen bosgarren eremu funtzionala da (EAE osoaren % 5), ia 260 hektarea. Bakiok (116 hektarea) eta Mungiak (96 hektarea) azalera zati handiena dute. Bakiok, Gatikak eta Maruri-

Jatabek xede dituzten hazkundeak egungo bizitegirako lurzoru urbanizagarria bikoiztu baino gehiago egiten dute, eta eremu osoan sailkatutako bizitegi-zoruak % 44 igotzen dituzte.

Laudiok EAeko BLUaren % 4 du, eta Durangok % 3,8. Eremu hauek beren udalerrien artean hazkunde orekatuak dituzte.

Durangon, Zornotzak 50 hektarea ditu, eta Elorriok, Abadiñok eta Durangok, 25 eta 35 hektarea artean. Aldaketa erlatibo adierazgarrienak Elorriok eta lurretan gertatu dira. Bertan, sailkatutako bizitegi-zorua bikoiztu baino gehiago egin da; Garaik, aitzitik, ia laukoiztu egin du.

Laudion, Amurriok BLUaren 66 hektarea ditu eta sailkatutako bizitegi-zorua % 58 igo da bertan; Urduñak, aldiz, BLUaren 41 hektarea ditu, eta, gainontzeko udalerriek, Arakaldok salbu, 20 eta 25 hektarea artean.

Igorrek BLUaren 65 hektarea ditu, horietatik heren bat baino gehiago herri nagusian kokatzen da, eta beste 20 hektarea Lemoa eta Areatzaren artean banatzen dira. Igorre, Lemoa eta Bediaren plangintzen proposamenek sailkatutako bizitegi-lurzorua bikoiztu egiten dute.

Gernika-Lumo-Markina eremu osoak BLUaren 117 hektareako azalera du. Bi herri nagusiek dute azalera handiena, 28 hektareako azalera Gernika-Lumok eta 14 Markina-Xemeinek. Gainerako azalera, 10 hektarea inguruko neurrizko hazkundeetan oinarritzen da, eta Muxika eta beste hainbat kostako herritan kontzentratzen da bereziki: Ispaster, Busturia, Bermeo eta Lekeitio. Oro har, garapen hauek bizitegi-lurzoruak % 65 igotzea adierazten dute, eta proportzioan, Ispaster eta Muxika dira gehien hazi direnak.

Orokorrean, Gipuzkoako eremuetako hazkunde aurreikuspenak askoz ere apalagoak dira. Eremu funtzional bakoitzeko, EAEn BLUaren % 1 inguruan kokatzen dira; Arrasateren 118 hektarearen eta Tolosaren 36 hektarearen artean. Eibarren 61 hektarea daude, Tolosan 74 hektarea eta Zarautz-Azpeitian 97. Hazkunde hauek herri nagusietan (Arrasate, 66 hektarea; Tolosa, 9 hektarea; Zarautz, Azpeitia eta Ermua, 20 hektarea inguru), edo haien ondoan dauden udalerrietan, Ordizia edo Zumaian aurreikusitako 20 hektareak bezalaxe, kontzentratu ohi dira.

Arabako Errioxak EAEn BLU osoaren % 3,4 du, 174 hektarea, eta ia guztiak Guardian kontzentratuta daude. 124 hektarea ditu Guardiak eta termino absolutuetan EAEn osoan lurzoru hiritarraren eta lurzoru urbanizagarriaren artean desberdintasun handiena duen udalerria da. Termino erlatiboetan, hazkunde honek sailkatutako bizitegi-lurzoria hiru aldiz biderkatzea adierazten du. Oionek eta Bastidak 10 hektarea inguruko hazkundera planteatzen dute, eta gainerakoek, askoz ere baxuagoak diren kopuruak.


Honela, eremu metropolitarran zentratzen den hazkunde-eredua definitzen da: bereziki Bilbo iparraldeko eremuetan, Mungiako eremuaren zati handi bat hartuz; Donostiako eremuaren ekialdean dauden gunetan eta Zarauzko kostaldearen inguruan eta Gasteizen. Bigarren hazkunde-eremua Bilboko eremuaren inguruan dago (Enkarterriak, Laudio eta Durango), eta baita Guardian ere, Arabako Errioxan. Gainontzeko lurraldeetan, hazkundeak askoz ere apalagoak dira eta hiriaren garapen eskakizun arruntak betetzen dituzte.

3.4.3. Hiri-ereduak eta hiri-plangintza. Bizitegi-zoru hiritarraren dentsitateak

Bizitegi-zoru hiritarrean (BZH) etxebizitzaren dentsitateak, biztanleriaren eta BZHaren artean ezarritako lurralde-banaketa antzekoa erakusten du. Eibarko eremua da, alde handiarekin, dentsitate handiena duena, 153 etxebizitza/BZHren hektareako. Bereziki, herri nagusia gailentzen da. Eibarrek bere zoru hiritarrean 496 etx/Ha bizitegi-dentsitatea du, EAEn osoko handiena eta dentsitate handiena duen hurrengo udalerria baino ia hiru aldiz handiagoa. Eremu honetan, dentsitate handia dute ere Ermuak (189 etx/BZHren Ha) eta Elgoibarrek (94 etx/Ha).

Bilbo Metropolitarran da dentsitate handiena duen bigarren eremua; oro har, eremu funtzional osorako 97 etx/BZHren Ha zenbatekoa du. Ezkerraldeko udalerriek dituzte kopuru altuenak. Arrigorriaga, Ugao, Barakaldo, Sestao, Basauri, Erandio, Santurtzi, Bilbo (125 etx/Ha) eta Portugaleteko (173 etx/Ha) udalerriek 100 etx/BZHren Ha zenbatekoak gainditzen dituzte. Aitzitik, Zeberio, Lemoiz, Arrankudiaga, Zierbena eta Loiu ez dira 15 etx/BZHren Ha zenbatekora iristen.

Donostiako eremuak 69 etxebizitza ditu hektareako, eta dentsitate handiena duen laugarren eremua da. Haren aurretik Arrasate dago. Haiekin batera daude, Pasaia Badiako dentsitate handiko finkamenduak (Lezo, Pasaia eta Erreterriak —160 etx/Ha— hektareako 100 etxebizitza baino gehiago dituzte), eta estentsiboagoak diren Hondarribia, Oiartzun, Usurbil eta Astigarraga (20 etx/Ha baino dentsitate baxuagoarekin). Gipuzkoako hiriburuak 77 etx/BZHren Ha batez besteko dentsitatea du.




Arrasate (77 etx/BZHren Ha), Zarautz-Azpeitia (67 etx/Ha), Durango (62 etx/Ha), Beasain-Zumarraga (57 etx/Ha) eta Tolosako (53 etx/Ha) eremuak maila ertaineko dentsitatea duten eremuak dira. Herri nagusiek eta udalerririk nagusiek dentsitate handiena izatea da haien ezaugarri komuna, eta landa-eremuekin konpentsatzen da. Honela, Bergarak 117 etxebizitza ditu BZHren hektareako; Arrasatek, 87 etx/Ha; Ibarrek, etx/Ha; Tolosak, 96 etx/Ha; Zarautzek 92 etx/Ha; lurretak, 218 etx/Ha; Abadiñok, 89 etx/Ha; eta Urretxuk, 182 etx/Ha. Antzeko egoera gertatzen da Laudioko eremuan. Herri nagusiak 115 etx/Ha du, Okondoren 3 etx/Ha edo Aialaren 6 etx/BZHren Ha dentsitateekin alderatuz.

Hainbesteko alderik gabe, Enkarerrietan, Balmaseda (89 etx/Ha) erdigune historikoaren inguruan dentsitate handiko hiri-eredua da, eta gainontzeko eremu funtzionalaren lurraldean nagusi den hiri-eredu estentsiboaren (30 etxebizitza baino gutxiago hektareako) bestelakoa da.

Gernika-Lumo-Markinan, kostaldeko udalerririk dentsitate altua dute (Ea, Bermeo, Elantxobe eta Lekeitiok 85 eta 115 etxebizitza artean dituzte BZHren hektarea bakoitzeko). Aitzitik, barrualdeko udalerririk, Mundakako itsasadarraren eta Earen ekialdean kokatzen direnek, haien bizitegi-lurzoruan oso dentsitate baxuak dituzte.

Azken urteotan etxebizitza-parkeen igoera nabarmenak bereziki garapen estentsiboetara bideratu dira Mungiako eremuan. Soilik Bakio iristen da 36 etxebizitza izatera BZHren hektarea bakoitzeko. Eremuko gainerako udalerririk, haien bizitegi-lorzoruan 20 etx/Ha baino dentsitate baxuagoak eta herri nagusiak soilik 12 etx/BZHren Ha ditu.

BIZITEGI-LURZORU HIRITARREN DENTSITATEA, 2007
[etxebizitzak/azalera]



Bizitegi-lurzoru hiritarren
dentsitatea [etxebizitzak/ha]

Iturria: UDALPLAN, 2007


Nola Igorrek hala Arabako Errioxak oso dentsitate baxuak dituzte, landa-eremuek berezkoak izan ohi dituztenak. Lehen kasuan, herri nagusia soilik iristen da 50 etx/Ha izatera, eta Arabako Errioxan soilik Oionek eta Eltziegok gaindintzen dute 30 etx/Ha maila.

Araba Erdiak ere lurzoru hiritarraren okupazioaren oso eredu estentsiboa du. Gasteizek soilik 56 etx/Ha dentsitatea du, eta gainontzeko eremuan, 20 udalerrri ez dira 10 etx/BZHren Ha izatera iristen.

3.4.4. Hiri-ereduak eta hiri-plangintza. Bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren dentsitatea

Lurzoru hiritarren datuak bizitegirako lurzoru urbanizagarrien datuekin alderatuz gero, dentsitateen murrizketarako joera ikus daiteke. Joera hau EAeko lurralde osoan ia-ia modu berean gertatzen da.

Bizitegirako lurzoru urbanizagarrien okupaziorako aurreikuspenak jada existitzen diren lurzoru hiritarrenak baino baxuagoak dira. Murrizketa nagusiak Eibarko eremuan gertatzen dira. Bertan, bizitegirako lur urbanizagarriak (BLU) batez beste 26 etx/Ha dentsitatea dute, lurzoru hiritarren 153 etx/Ha dentsitatearekin alderatuta. Bilbo Metropolitarraren dentsitatea 78 etx/Ha murrizten da, eta Arrasate-Bergaran, 59 etx/Ha. Aldaketa txikiak dentsitate baxua duten lurzoru hiritarren eremuetan gertatzen dira. Hala nola, Araba Erdian (lurzoru urbanizagarria 28 etx/Ha neurrian mantentzen da) eta Mungian (14 etx/BLUaren Ha dentsitatea aurreikusten da).



Lurzoru urbanizagarrietan dentsitate baxuenak Arabako Errioxan eta Enkarterrietan aurki ditzakegu (8 etxebizitza inguru BLUaren hektareako); baita ere, Laudion, 15 etx/Ha. Dentsitate altuenak, berriz, Durangon, (35 etx/Ha), Donostian (33 etx/Ha), Zarautz-Azpeitian (29 etx/Ha), Igorren eta Beasain-Zumarragan 26 etx/BLUaren Ha), Tolosan (25 etx/Ha) eta Gernika-Lumo-Markinan (23 etx/Ha).


Udalerrien arabera, soilik 11 udalerrik gainditzen dituzte 11 etx/BLUaren Ha. Honako hauek dira: Idiazabal (73 etx/Ha); Ibarra (72 etx/Ha); Zarautz, Orio, Balmaseda, Etxebarria eta Andoain (55 eta 60 etxebizitza artean hektarea bakoitzeko); eta Basauri, Lemoa, Elorrio, Zestoa eta Ortuella (50 eta 55 etxebizitza artean BLUaren hektarea bakoitzeko). Hauen kasuan ere, gehienak Gipuzkoan kokatuak, murrizketa nabarmena gertatzen da lurzoru hiritarrari dagokionez kasu gehienetan. Honela, azpimarratzekoak dira, Basauri, lur urbanizagarriaren dentsitatea 85 etx/Ha murriztu da lurzoru hiritarrarekin alderatuta; Zarautz, dentsitatea 32 etx/Ha jaitsi da; eta Ibarra, 37 etx/Ha jaitsi da.

Desberdintasun handienak historikoki dentsitate handiena izan duten udalerriek dituzte. Eibar, Iurreta, Ermua, Urretxu, Erreterria, Pasaia, Portugalete, Ea, Erandio eta Santurtzik beren lurzoru urbanizagarrietan 100 etx/Ha baino dentsitate baxuagoa dute, bizitegi-zoru hiritarrarekin alderatuz gero.


Aitzitik, landa-eremuko udalerrri askotan lurzoru urbanizagarrien dentsitatea igo egin da lurzoru hiritarrarekin alderatuz gero. Guneen izaeraren aldaketa-prozesuaren ondorioz gertatzen da hori, hain zuzen ere, tradiziozko izaera galtzen dute hiriarekin zerikusi handiagoa duten garapenak sartzeko. Honako udalerrri hauek dira: Legutio, Zigoitia eta Iruñea Oka Gasteizko eremuan; Lemoiz eta Zeberio, Bilbo Metropolitarran (baita Sestao ere,

herriak duen lurzoru eskasia dela-eta); Hondarribia eta Oiartzun, Donostiako eremuan; Aiala, Laudion; Elorrio, Durangon; Leitza, Amezketa, Gaztelu eta Aduna, Tolosan; Idiazabal eta Ezkio-Itsaso, Beasain-Zumarragan; Zestoa, Orio eta Errezil, Zarautz-Azpeitian; kostaldekoak ez diren Gernika-Lumo-Markinako hainbat udalerrri (Muxika, Etxebarria, Berriatua); Artzentales, Enkarterrietan; Mungia, Fruiz eta Meñaka, Mungian; eta Lemoa eta Artea, Igorren.

BIZITEGI-ZORU HIRITARRAREN DENTSITATEA (etxebizitza/ha)




BIZITEGIRAKO LURZORUEN DENTSITATEAREN ALDAKORTASUNA,
PLANGINTZEN AURREIKUSPENEN ONDORIOZ [etxebizitza/ha]



3.4.5. Etorkizuneko eredua, plangintzak definitua

Etxebizitza-parketaren banaketa, eremu funtzionalen arabera



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila

Bilbo Metropoliarren aurreikusitako garapenen ondorioz, honek garrantzia galduko du EAEn etxebizitza-parke osoari dagokionez. Gaur egun, gune honetan etxebizitza % 42,7 kokatzen dira, eta plangintzaren aurreikuspenak bete ondoren, % 41,3 izatera pasatuko da. Etxebizitza banaketari dagokionez garrantzia erlatiboa galtzen dute beste hainbat eremurik: Donostia, Eibar, Beasain-Zumarraga, Zarautz-Azpeitia eta Tolosako eremu funtzionalak. Aitzitik, garrantzia erlatiboa handituko dute Araba Erdia (% 1,2 irabaziz), Mungia, Arabako Errioxa, Balmaseda-Zalla, Durango, Laudio eta Igorreko eremuek, hau da, Bilbo Metropolitarraren eta Arabako espazioen hedapena gertatzen den eremuak. Gernika-Lumo-Markinak eta Arrasate-Bergarak ez dute aldaketa nabarmenik izango.

Aldaketa nabarmenena Durangorena da, etxebizitza kopuruari dagokionez zazpigarren eremu funtzionala izateko bosgarrena izatera pasatuko da, Eibar eta Zarautz-Azpeitiaren aurretik.

Udal mailan, Araba Erdian, hiriburuaz gain (etxebizitza-parkearen % 24aren aurreikusitako hazkundearekin), Gasteiz inguruko eta A-1 igarobideko udalerririk haziko dira gehien, bai termino absolutuetan eta baita erlatiboetan ere. Iruñea Oka, Zuia, Asparrena, Agurain, Erriberabeitia eta Zigoitia eremu honetan hazkunde handiena kontzentratzen duten udalerririk dira, kokapen berezia duten bi landa-udalerririk batera: Gaubea eta Kanpezu.

Bilbo Metropolitarraren hazkunde-gune nagusia Bilbo hiria da, 14.700 etxebizitza baino gehiagoko hazkundea proposatzen dute. Termino erlatiboetan, hazkunde adierazgarrienak kostaldeko herrietan eta metropoliaren iparraldean gertatzen dira; esaterako, Loiu, Lemoiz, Barrika, Zierbena eta Urdulizen, nola Derion eta Ugaon.

Donostiako eremuan hiriburu eta Irun dira planteatutako aurreikusitako hazkundearen erdia baino gehiago dutenak. Gainera, Usurbil, Hondarribia, Lasarte-Oria eta Erreterriak 1.000 etxebizitza gorako hazkundeak dituzte.

Bilbo Metropolitarraren ingurune osoko eremuetan hazkunde nabarmenak planteatzen dira. Balmaseda-Zallan, Balmaseda eta Gueñesek 1.000 etxebizitza baino gehiagoko hazkunde aurreikusten dute. Durangon, Zornotzan eta herri nagusian 3.000 etxebizitza inguruko garapenak planteatzen dira. Igorre eta Lemoa dira beren eremu funtzionalean garapen nagusia duten udalerririk, eta Laudiokoan, berriz, Amurrio eta Urduña dira, Aialarekin batera. Azken honek, bizitegi-parkea bikoiztea planteatzen du.

Mungian, Bakio eta Mungia dira garapen garrantzitsuena proposatzen duten udalerriak, eta beste batzuk, Maruri-Jatabek esaterako, egun dauden etxebizitzak hirukoiztea aurreikusten dute. Gernika-Lumo-Markinan, Bermeo, Ondarroa eta Gernika-Lumo dira hazkunde handieneko aurreikuspenak dituzten udalerriak (850 eta 1.200 etxebizitza artean).

Beasain-Zumarragan, Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Legazpi igarobideak dira aurreikusitako hazkunde gehiena kontzentratzen dutenak. Bai termino erlatiboetan nola absolutuetan, hazkunde apala aurreikusten dute. Antzeko egoerak gertatzen dira Eibar-Elgoibar eremuaren inguruetan, Arrasate-Oñati-Aretxabaletan, Deba Garaian eta Tolosa-Villabonan, Tolosan.

Zarautz-Azpeitia eremuaren hazkundea Zumaia, Azpeitia, Zestoa, Zumaia eta Orio udalerrietan planteatzen da. Hiriburuaz gain, garrantzia dezenteko hazkundeak planteatzen dituen Gipuzkoako eremu funtzional bakarra da.

Azkenik, Arabako Errioxan udalerrri guztiek beren etxebizitza-parkearen hazkundea % 20 baino gehiago handiagotzea planteatzen dute. Terminu absolutu eta erlatiboetara dagokienez, Errioxako Autonomia Erkidegoarekin harreman handiena duten udalerriak gailentzen dira: Bastida eta Oion.

3.5. Eraikuntzako tipologia hirigintza-garapenetan

Hiri-garapenak hartzen ari diren izaera eta formaren, eta horiek finkamenduen bereizgarriak eta ezaugarriak nola aldatzen dituzten erakusteko adierazle nagusia eraikuntzen solairu-kopurua da. Etxebizitzetarako diren eraikinen altueraren eta guneen izaeraren arteko harremana agerikoa da. Altuera handiko eraikinak hiri-izaera duten finkamenduen berezko ezaugarria izan ohi dira; aitzitik, eraikin familiabakarrak landa-guneetan izan ohi dira. Eredu hauek baliagarriak izaten jarraitzen dute gunen baten "hiri izaera" maila ezagutzeko erreferentzia gisa. Hala ere, azken urteotan, tipologia desberdineko etxebizitza familiabakarren garapena hazi egin da hirien zabalkunde prozesuetan eta metropolien inguruetako merezimenduetan, eta horren ondorioz, eraikinen altueren arabera guneen izaeraren azterketa egiteko orduan, garapen horiek gertatu diren garaia eta gunen bakoitzaren lurralde-testuingurua kontuan hartu behar dira.

Lurraldeka banatutako datuak behar adinako egunerokotasunarekin eskuratzeko zailtasunak mugatzen du adierazle honen erabilgarritasuna. Soilik erroldak eskaintzen dute informazio hau, udal mailan eta udal guztietarako. Beraz, eskuragarri dauden datu berrienak 2001eko erroldan jasotakoak dira. Honek informazioari gaurkotatzea kentzen badiu ere, 1991ko eta 2001eko errolden emaitzen konparaketari esker, azken urteotan biztanleriaren finkamenduen bilakaera aztertzeke datu erabilgarriak eskura daitezke; hala nola, garapen-prozesuek eta hirien aldaketek bere gain hartzen dituzten ezaugarriak eta joerak. Bestalde, azterketa honetan lortzen diren emaitzak EAeko finkamenduetan gertatzen diren aldaketa-prozesuei erreferentzia egiten dieten datuekin koherenteak dira. Beraz,

gaurkotasunik ez izan arren, lurraldean gertatzen diren joerak identifikatzeko adierazle egokiak dira.

Lehen datu adierazgarria, hiru solairu baino gutxiagoko bizitegi-eraikinen igoera orokorra da. Datu hau bat dator EAeko ia lurralde osoan berriki izandako garapenetan antzeman diren dentsitate murrizketekin. Eredu funtzionalen arabera, mota honetako eraikin gehien dituzten eremuak landa-izaera dutenak dira; esaterako, Guardia (% 75,57), Igorre (% 52,06) eta Enkarterriak (% 45,59). Aitzitik, Bilbo Metropolitarran eta Eibarko eremu funtzionalean dauden eraikinak ez dira % 12 izatera iristen.

Bereizgarri interesgarrienak 1991 eta 2001 urte artean gertatuko bilakaeraren azterketan ikus daitezke. Epe honetan, hiru solairu edo gutxiagoko eraikinen garrantzia soilik landa-eremuetan murrizten da, eta bereziki, Igorren, % 3,75eko jaitsierarekin; baita Guardia eta Gernika-Lumo-Markinan ere, % 1aren inguruko murrizketekin. Aitzitik, Mungia eta Tolosa bezalako eremuak alde batetik (% 5etik gorako hazkundearekin) eta Eibar eta Donostia bestetik (% 3 inguruko igoerarekin) dentsitate baxuko bizitegi-mota honen hazkunde nabarmena erakusten dute. Aldez aurretik zeuden tipologekin alderatuta, eredu estentsiboetara egindako transformazio garrantzitsuenak Mungia, Tolosa, Eibar, Donostia eta Zarautz-Azpeitian ikus daitezke. Bestalde, termino absolutuetan, altuera gutxiko eraikin mota hauen hazkunde handiena Donostia, Bilbo Metropolitarra eta Araba Erdian gertatu da.

Alderantziz, bost solairu baino gehiagoko eraikinen kopuruak orokorrean garrantzia galdu du. Tolosako eremuan, eraikin hauen % 10eko murrizketa jasango dute bizitegi-eraikin guztiekin alderatuta. Bestalde, 2001ean Audio, Mungia, Donostia, Durango eta Eibarren bost solairu baino gehiagoko eraikinak % 5 izango dira, 1991an bizitegi-eraikinen kopurua

baino txikiagoa. Balmaseda-Zallan eta Guardian zenbatekoa % 3,5 inguru murriztu da. 3 eta 5 solairu arteko eraikinen dentsitate ertaineko garapenetan oinarritutako hazkunde garrantzitsuenak Igorren (% 7,52ko hazkundea) eta Laudion, Tolosan eta Durangon, % 4 inguruko igoerekin, gertatu dira.

Honela, bizitegi-garapenak etxebizitza familiabakarreko tipologiaren bidez zabaltzeko joera orokorra adierazten duen eredu ageri da. Eredu hori bereziki garrantzitsua da Gipuzkoan, eta Donostiako metropoli-eremuaren bizitegi-hazkunde nagusia garapen hauen bidez gertatzen ari da, eremu funtzionalean bertan eta Zarautz-Azpeitia eta Tolosa inguruko udalerrietan. Bestalde, Eibar bezalako eremuetan eredu aldaketa erradikala gertatu da, hasierako dentsitate handiko egoeratik, neurri handi batean etxebizitza familiabakarreko eskaintzan oinarritutako garapen aro berri batera. Bilbo Metropolitarraren inguruan, eredu desberdinak ikus daitezke. Dentsitate baxuko garapenen hazkundearen fenomeno eremu-metropolitarraren inguruan dauden espazioetan eta erdiko espazioan bertan orokorra izan arren, iparraldean (Mungia) kokatzen diren garapenetan eredu desberdina ageri da. Bertan, dentsitate baxuko hazkundeak dira nagusi, Igorre, Enkarterriak, Durango eta Audio bezalako eremuekin kontrastean. Hauetan dentsitate ertainak nagusitzen dira eta sarritan hiriari dagozkion tipologiak sartzen dituzten landa-eremuen izaeraren transformazio fenomenoarekin lotzen da. Araba Erdian, Gasteizek duen nagusitasuna kontuan hartuta, deigarria da dentsitate baxuko garapenak izatea garai honetan gehien hazi direnak.

Aitzitik, Arabako Errioxan, oraindik kuantitatiboki murrizta bada ere, orokorrean landa-eremuko guneetan, dentsitatea areagotzea eta hiriari dagozkion tipologiaren agerpenaren prozesua gauzatzen ari da.

Udalaren azterketak hazkunde-ereduetan dentsitate baxuko garapenetara gertatzen ari diren prozesuen ikuspegi zehatzagoa eskaintzen du; era berean, prozesu hau indartsuagoa den espazioen berri ematen du. Honela, termino erlatiboetan, hiru solairu arteko bizitegi-eraikinen proportziozko garrantzia bereziki hazi da Gasteiz inguruan (Iruñea Oka, Erriberabeitia, Dulantzi), Donostiako eremu-metropolitarran (Urnietan, Andoain, Orio, Irura, Berrobi), Bilbo Metropolitarrari lotutako udalerrietan (Arrankudiaga, Urduliz, Lemoiz), Deba Behereko udalerrietan (Soraluze), eta beste era batean, bigarren etxebizitzaren garapenari lotutako mendi inguruko udalerrietan (Kanpezu) eta kostaldeko guneetan (Mutriku, Mendexa, Elantxobe). Termino absolutuetan hiru solairuko eraikinen hazkundearen azterketak erakusten du Donostiak, Irunek, Getxok eta Gasteizek tipologia honetako 1.000 eraikin berrien kopurua gainditu dutela. Hazkunde garrantzitsuenak Donostia inguruan (Irunen eta hiriburuan bertan, aipatu bezala, baina baita Andoain, Urnietan, Hondarribia, Zarautz, Usurbil eta Orion ere), Bilbo eta kosta artean kokatutako guneetan (Getxo, Mungia, Berango, Zierbena, Plentzia, Leioa...) eta Gasteiztik hurbilen dauden Lautadako udalerrietan (Iruñea Oka, Dulantzi, Zigoitia eta Zuia, hiriburuaz gain). Bestalde, neurri txikiagoan, Durango (Elorrio, Zornotza), Azpeitia, Tolosa, Arrasate, Idiazabal, Elgoibar eta Zumarraga bezalako herri nagusiei lotutako garapenak gertatu dira; Karrantza, Bastida, Sopena eta Kanpezu bezalako landa-guneetan gertatu diren dimentsio handiko (250 eraikinetik gora) hazkundeekin batera.


Altueraren arabera eraikinetan oinarritutako garapenak logikoki hiri-eremuetan kontzentratzen dira. Bost solairu baino gehiagoko eraikinen kopurua bereziki Bilbon, Gasteizen eta Donostian igo da, eta oso modu adierazgarrian Ezkerraldeko udalerririk handietan (Barakaldo, Santurtzi, Portugalete, Galdakao, Basauri...) eta Pasaiaiko Badian (Errenteria, Pasaia). Hala nola, Bizkaia eta Gipuzkoako hiriburuetatik hurbilen dauden inguru

metropolitarran, orain arte hiri-profil hain nabaria ez zutenak (Arrigorriaga, Lasarte-Oria, Hondarribia, Leioa, Bakio, Muskiz, Zierbena, Balmaseda, Abanto-Zierbena eta Ugao). Gainera, Gipuzkoako industria-bailaretako hiriguneei lotutako altueraren arabera garapenak ageri dira (Beasain, Eibar, Zumarraga, Tolosa, Oñati, Bergara, Urretxu, Arrasate, Ermua); hala nola, hedatzen ari diren kostaldeko guneak (Zarautz, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Gernika-Lumo) eta Durangoko ingurunea (Durango, Zornotza eta Abadiño).

Proportzioan, bost solairu baino gehiagoko eraikinen hazkundeak orain arte landa-izaera zuten udalerrietan gertatzen dira nagusiki. Oion, Dulantzi, Asparrena eta Iruñea Okaren kasua da, Lautadan eta Arabako Errioxan; Orozko, Orondo eta Aiala, Laudion; Gordexola eta Balmaseda, Enkarterrietan; Plentzia, Sopela, Gorliz eta Barrika, Mungian; Mallabia eta Abadiño, Durangon; Areatza eta Bedia, Igorren; eta Legazpi, Oñati, Zaldibia eta Zestoa, Gipuzkoan.

Beraz, hiru solairu edo gutxiagoko bizitegi-eraikinetan oinarritzen den hiri-garapen eredu berri bat ageri da, hain zuzen ere, 90eko hamarkadan EAEn gehien hazi zen eraikuntza motari dagokion eredu. Proportzioan, gehienbat Gipuzkoan hazi da tipologia hau, eta Donostia inguruetan, Bilbo Metropolitarraren eskuineko ibaiertzeko udalerrietan eta Mungian, Gasteizen eta Arabako hiriburuaren inguruko udalerrietan kontzentratzen da. Hiri-garapen prozesuetan gertatzen den aldaketa-prozesua da, eta baita ere, landa-eremuak metropolien hazkunde-prozesuetan sartzea. Bestalde, hiri ertainen inguruko eremuetan hedatze-prozesuetarako aukeratzen den eredu da, hain zuzen ere, hiriguneei inguruan dentsitate oso altua zuten garapenetatik inguruko udalerrietan haztera pasatu direnak, askoz ere estentsiboagoak eta aurreko garaikoaren oso bestelakoak diren tipologiek. Era berean, eremu-metropolitarran erdiguneko posizioa zuten eta

tradizionalki dentsitate handikoak ziren espazioek beren hazkunde-ereduak mantendu dituzte; esaterako Ezkerraldeko udalerriek edo Pasaiaiko Badiakoek. Bestalde, tradizionalki dentsitate handia zuten eta altuera handian eraikitako industria-hiri ertainek neurri txikiagoan jarraitu dute eredu hau. Azken aldian, prozesu honetan murgildu dira orain arte hirien garapen-prozesuen aldetik eragin gutxi jasan duten eta egun dentsitate altu eta ertainak jasaten ari diren metropoli-espazioen inguruan dauden guneak. Gune horiek hiriarekin zerikusia duten ezaugarri hornitzen dituzte eta sarritan dentsitate baxuko garapenekin, metropoliaren hedapen-espazioen bestelakoak dira.



Iturria : INE, 2001


3.6. Lurzoruaren erabilgarritasuna hiri-garapenerako

Lurzoruaren erabilgarritasuna EAeko lurraldeko eremu askotan hiri-garapenerako faktore kritikoetako bat da. Bizkaia eta Gipuzkoako gune askotan gertatu den hiri- eta industria-garapen prozesua indartsua izan da, eta gune urbanizatuak eta azpiegiturak sartzeko aukerak nabarmen murrizten dituzten baldintza fisikoak dituzte komunean gune hauek guztiek. Hori dela-eta, udalerrri askotan hiri-hazkundearen aukera fisikoak gero eta mugatuagoak dira. Guzti honi, balio edo berezitasun berezia duten gune eta elementu naturalak babesteari lotutako beharrezko murrizketak gehitu behar zaizkio. Honela, gune horiek eraikuntzarako okupatzea jasangarritasun ikuspegi batekin bateraezina da. UDALPLANen datuetatik abiatuta, hazkunde aldetik muga handienak dituzten eta espazio erabilgarritasun handia duten eremuak baliozta daitezke.

Dagoeneko okupatuta dauden edo hiritar edo erabilera desberdinetarako urbanizagarri gisa sailkatuta dauden lurzoruak kontuan hartuta, nola mota desberdinetako azpiegiturarako diren lurzoruak kontuan hartuta, Donostiako (azalera osoaren % 23,82) eta Bilbo Metropolitarrako (% 28,64) eremu funtzionalak konprometitutako azalera ehuneko handiena duten eremuak dira. Atzetik, Mungiako eremua dago (%12,88). Gainontzeko lurraldean ehunekoak eremu funtzional desberdinen azalera osoaren % 5 inguruan daude; gehiena Eibarren (% 5,62) eta gutxiena Tolosan (% 2,82).


Hiri mailako emaitzek egoera hau xehetasun gehiagorekin azaltzen dute. Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionaleko lau udalerrrik dute lurralde okupazio-maila altuena, eta udalerrriaren betetze eraginkorreko egoera

planteatzen da. Honako hauek dira udalerrriak: Sestao (udalerrriaren azalaren % 97,07), Getxo (% 91,44), Portugalete (% 89,26) eta Basauri (% 80,83). Antzeko zenbatekoa du Hondarribiak (% 80,59). Kasu honetan, aireportuaren presentzia da udalerriko azalaren okupazio handiaren faktore nagusia. Etxebarri, Bilbo, Leioa eta Santurtzik % 50 baino handiagoak den okupazio-maila dute, eta baita Lekeitiok ere. Kasu honetan, udalerrriaren tamaina txikia da arrazoia.



Ezarritako edo konprometitutako erabilera artifizialen ondorioz gertatzen den okupazioari ingurune fisikoa babesteko beharren ondorioz gertatzen direnak gehitzen badizkiogu, eremu askotan oso egoera murriztailea ageri da etorkizuneko hazkundeari dagokionez. Eremu fisikoak ezartzen dituen mugen inguruko hausnarketa egiteko orduan, Babes Berezia duten Antolaketaren Kategoriek, Lurrazaleko Uren eta Larreen Babesak, jasotzen dituzten azalera hartu dituzte kontuan. LAAen arabera, hauen hiri-garapena zorrotz mugatu beharko litzateke, ezinbesteko ingurumen baliabideak babesteko helburuarekin. Gainera, Basoko Kategoria kontuan hartu da, orokorrean gune aldapatsuekin lotu daitekeelako, eta ondorioz, hiri-garapena aholkatzen ez duten baldintza orografikoak dituelako. Balioztapen honi beste hainbat azalera gehitu beharko litzazkioke, hala nola, Itsasertzaren LAPak babesten dituenak edo sektore- edo ingurumen-izaera duen lurraldea babesteko bestelako tresnak.

Muga hauek izanda ere, EAEn lurraldeko eremu desberdinetan hazkunderako erabilgarri dauden lurzoruen balioztapena egin daiteke. Honela, eremu funtzionalen mailan, okupazioagatik edo ingurune fisikoaren murriztapenengatik konprometitutako lurzoruen ehunekoa Durangoko eremu osoaren hedaduraren % 73,1 da eta Zarautz-Azpeitian, % 71,07. Guardiak eta Mungiak izan ezik (lurzoru ez-erabilgarrien % 45 dute), gainontzeko eremuek etorkizunerako garapenerako lurzoru ez-egokietan % 50eko azalera gaintzen dute. Hamabost udalerri lurzoru ez-erabilgarrien % 90 baino ehuneko handiagoak dituzte. Bilboko eremu funtzionalen, Derio, Etxebarri, Getxo, Santurtzi, Sestao, Leioa eta Arrigorriaga dira udalerri hauek; Beasain, Durango, Pasaia, Eibar, Elduain eta Arakaldorekin batera. Guztira, 100 udalerri dira beren udalerriko % 70 baino gehiago hiri-garapenen, sailkatutako lurzoruen, azpiegituren edo ingurumen baldintzen ondorioz konprometituta dutenak.



Bestalde, 40 udalerri 2.000 hektarea baino gehiagoko erabilera baldintzatzen duen karga-gasturik gabeko lurzoruen azalera dute. Oro har, 40 udalerri hauek EAEn lurzoru erabilgarrien % 52 hartzen dute beren baitan. 40 udalerri hauetatik 14 Araba Erdiko eremu funtzionalen daude eta horren barne dago Gasteiz, 7.500 baino hektarea gehiagorekin, EAEn lurzoru erabilgarri gehien duen bigarren udalerria da. Oro har, Araba Erdiko eremuan EAEn hazkunde berriak gerta daitezkeen lurzoru osoaren % 17,6 dago, 4,8 milioi m² gutxi gorabehera. 2.000 hektarea erabilgarri baino gehiagoko udalerri-kategoria honen barruan, Arrasate-Bergara eremuko 4

udalerrri (azalera erabilgarri osoaren % 6), Zarautz-Azpeitiako 4 (% 4,6), Enkarterrietako hiru (azalaren % 5,5, Karrantza barne, ia 10.000 hektarearekin teorikoki erabilgarria den lurzorua den hedadura handiena duen udalerrria da), Laudioko eremuan hiru (% 4,8), Eibarren hiru (% 2,8), Arabako Errioxan bi (% 4,6), Donostian bi (% 1,8, Donostia barne), Gernika-Lumo-Markinan bi (% 1) eta Igorre, Guardia, Mungia, Beasain-Zumarraga, Tolosa eta Bilbo Metropolitarrako (Galdakaok, berak bakarrik, eremu funtzionalean erabilera berria izan dezakeen lurzoru osoaren ia % 13 du) eremu funtzional bakoitzean udalerrri bat.

Ondorioak

Laburbilduz, azken hamarkadan EAEn gertatu diren hiri-eta bizitegi-garapen prozesuek erakusten dute, hierarkikoki antolatutako finkamendu-eredu batetik eremu-metropolitarrak garrantzi handiagoa hartzen duten eta beren izaerarekin sistemaren gainontzeko bilakaera zehazten duten eredura pasatu dela.

Bizitegi-eremu berrien garapenaren indarra, egoera ekonomiko hedakor batek lagunduta, lurralde-ereduan gertatu den aldaketa honen isla izan da espazioari dagokionez, eta garapen berrien kokapenean eta ezaugarrietan ageri da.

Etxebizitza-parkeen kopurua nabarmen igo da, eta zenbatekoek ez dute harremanik biztanleriaren aldakortasunarekin. Honela, etxebizitzaren guztizko kopurua nola etxebizitza nagusia demografiaren hazkunderaren oso gainetik igo da, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan, eta maila apalagoan Araban.

Azken hamarkadan bizitegi-aldaketetatik metropoli-inguruneetako periferia-garapen berrietara antzeman den bizitegi-aldaketaren prozesuekin bat dator datu hau. Termino absolutuetan gehien hazi direnak metropoli-eremuak dira, baina termino erlatiboetan, bereziki orain dela gutxi arte haien inguruan egon diren eremu funtzionalak dira dinamismo handiagoa erakusten dutenak eta hazkunde-eremu berri gisa ageri direnak.

Bailara kantauriarrak tradizioz ezaguna den lurzoru eskasia izan arren, urbanizazio-prozesuaren hedapena ikus daiteke, bizitegi-eremuetan batez besteko dentsitateak murrizten diren bitartean. Honela, bizitegi-erabilera duten espazioen dentsitate globala progresiboki murriztu egin da EAE osoan, eta bereziki, Bizkaian.

Dentsitatea, nabarmenki, gutxiago jaitsi da Gipuzkoan, hain zuzen ere, etxebizitza-eskaintza gehien hazi den lekuan.

Etxebizitza familiabakarreko ezaugarri nabarmenagoa duten garapen-prozesuen eta eredu estentsiboen adierazle garbia da, bereziki Bilboko eremu-metropolitarran, eta lurzoru erabilgarri handiagoarekin Arabako Lautadan.

Honela, berrorka-eredu hau neurri handi batean desitxuratuta geratu da, LAAek proposatutako Lurralde-Ereduarekin koherentea izan den lurzorua kudeaketa aktibo baten ondorioz. Hiri-Hazkunde Selektibo gisa LAAek proposatu zituzten udalerrietatik Bilbo ingurukoek soilik (Igorre, Zalla, Mungia, Durango eta Getxoko ardatza) jokatu dute paper hori. Balmaseda eta Urduña ez dira oraindik dinamika horretan murgildu, eta Tolosa azken aldian Donostiatik datorren bizitegi-eskari nabarmena jasotzen ari da, herri nagusira baino eremu funtzionalaren espazio iparraldekoenetara bideratzen dena. Aitzitik, Agurain eta Guardiaren

hazkundeak aurreikusitakoak baino baxuagoak izan dira.

Habitat Alternatiboen artean, berriz ere metropolien inguruneke guneek jokatu dute paper hori; Igorreko eremu funtzionaleko guneak, Gordexola eta Meaña Bilbo inguruan, Oiartzun eta Hondarribia Donostiako metropoli-gunean eta Gasteizko iparraldeko udalerriak, Lautada inguruko mendietan.

Eibar-Markina, Beasain-Zumarraga, Enkarterrietako ekialdea eta Gasteiz-Miranda ardatzean barrena -industria eta logistika espezializazio handia duena-, ez da aurreikusitako berrorera prozesurik gertatu.

Aitzitik, aurreikusi gabeko hazkunde-eremuak agertu dira. Gipuzkoan, bereziki garrantzitsuak izan dira Irun, Zarautz eta orokorrean, itsasertzeko eremu osoa. Bizkaian, Bakioko kostaldea eta Ispaster-Mendexa itsasertzeko zatia, eskuineko ibaiertza eta Ezkerraldeko kanpoaldeko guneak (Muskiz, Abanto-Zierbena), Artziniega eta Aialako Bailara, arabarrak baina Bilbori oso lotuta daudenak. Araban, Gasteizek biltzen ia hazkunde osoa. Gainera, Lautadako Burgu eta Asparrena udalerriez gain, hazkunde nagusiak Errioxarekin mugakide diren udalerrietan gertatu dira, Oion eta Bastidan, esaterako.

Azpimarratu beharreko bigarren fenomenoak bigarren etxebizitzaren kopuruaren geldialdia da. Honela, hauen kopurua soilik Gipuzkoan igo da, Araba eta Bizkaian termino absolutuetan murrizten diren bitartean. Horrek erakusten du bigarren etxebizitzak etxebizitza nagusi bilakatzeko prozesu aktiboak gertatzen ari direla eta azken urteotan eskari honen zati handi bat EAetik kanpo dauden guneetara mugitzen ari dela.


Dena dela, bigarren etxebizitza nabarmen igo da ingurumenari dagokionez erakargarritasun berezia duten eremuetan. Nerbioi Garaian, Urduñaren

inguruan, Arabako Errioxan, Oñatin, Gipuzkoako kostalde osoan, eta neurri apalagoan, Gernikako itsasadarraren inguruan.

Aitzitik, erabilera honetarako lehentasunezkoak planteatzen ziren beste hainbat eremutan, bigarren etxebizitzaren kopurua murriztu egin da, eta etxebizitza hutsen kopurua, aldiz, igo. Hori gertatzen da Enkarterrietako mendebaldean (Turtzioz, Karrantza, Lanestosa), Gaubean eta Gipuzkoako barnealdean, Beasain-Zumarraga eremuan.


Metropoliaren hedakuntzaren dinamikak, irisgarritasuna eta ingurumen- eta hiri-ezaugarriak bizitegi-hazkunde prozesuen oinarritzko faktoreak izan dira, lurralde-ereduaren eta hari lotutako lurzoru-politiken orientazioak baino gehiago. Aitzitik, lurzoruaren eskaintza areagotzea ez da nahikoa izan hazkunde-prozesuetatik eta metropoli-eremuen transformazioetatik at geratu diren espazioak dinamizatzeko.

HIRI- ETA AZPIEGITURA-ERABILEREK ETA SAILKATUTAKO LURZORU
URBANIZAGARRIEK OKUPATUTAKO HIRIKO GUZTIZKO AZALERA %-TAN.



HIRIKO GUZTIZKO AZALERA EZ-ERABILGARRIA GARAPEN BERRIENTZAT %-TAN

(HIRI-ETA AZPIEGITURA-ERABILEREK, SAILKATUTAKO LURZORU URBANIZAGARRIEK ETA INGURUNE FISIKOAREN KATEGORIA EZ-ALDAGARRIEK OKUPATUTAKO AZALERA)



4.

Euskal hirien tamaina funtzionala

4.1. Hirien eta hiri-eremuen identifikazioa

Hiri baten tamainaz hitz egitean, oro har, biztanle kopuruari buruz mintzatu ohi gara. Haatik, hiriak sistema gisa aztertzean, hau da, hiriak beste kokaleku batzuekin dituen loturak eta lurraldearen antolamenduan betetzen dituen zereginak kontuan hartzean, hiriek garatzen dituzten hiri-funtzioak bereziki hartuko dira aintzat.

Tamaina funtzionalaren kontzeptuak, beraz, kuantitatiboki neurtuko du hiriguneetako biztanleen beharrak gogobetetzeko –eta hirien eraginpeko zonetan bizi direnen beharrak gogobetetzeko– hirien ahalmena zehaztuko duten ondасunen, zerbitzuen, zuzkiduren eta produkzio-jardueren eskaintza. Horrenbestez, hirietan zuzkitzen diren eskari konplexuak eta ez hain konplexuak gogobetetzearen bidez hiriek lurraldea polarizatzeko duten ahalmena neurtuko du.

1989. urtean, gaur egungo Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak landu aurreko azterlanen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko hirien tamaina funtzionalari buruzko berariazko azterlana egin zen. Azterlan horretan oinarrituta sortu zen hiriburuen sistema polizentrikoko lurralde-ereduaren funtsezko elementuen proposamena, eta identifikatu ziren eremu funtzionalak eta horietako bakoitzean azkenean sartu ziren udalerriak.

Hogei urte geroago azterlan hori berriro egiteak aukera ematen du euskal hirien bilakaera funtzionala berraztertzeke eta beste faktore batzuek hirien sisteman eragin dituzten lurralde-aldaketak alderatzeko –faktore horien artean daude hirugarren sektoreko ekonomiaren garapena, komunikazioen hobekuntza edo hazkunde-esparruak edo lurralde-zentraltasun berriak sortzen dituzten hiri-eredu berriak–.


Azterlan hori egitean, aurreko azterlanean aintzat hartutako hiri eta hiri-eremu berak hartu dira aintzat, betiere honako irizpideak abiapuntu izanik:

- Irizpide orokor gisa, 3.000 biztanle baino gehiagoko hirigune bat gutxienez duten udalerriak barne hartuko dira analisisian.
- Horrez gain, guztira 3.000 biztanle baino gehiago izanik, dimentsio horretako hirigunerik ez duten udalerriak hartuko dira barnean, betiere udalerrri horien populazio-dentsitatea 150 bizt./km²-tik gorakoa bada –alderdi hori hurbiltasun- eta metatze-adierazle argia da–.


Irizpide horien gaineratik, eremu funtzionalaletako burutza guztiak ere hartu dira barnean, hau da, hasierako azterlanean sartzen ez ziren Guardia eta Igorreko udalerriak ere hartu dira aintzat.

Bestalde, ageriko metropolizazio-prozesuak dituzten hiri-eremu nagusien kasuetan, hiri-eremuaren osotasuna hartu da aintzat, hiri-eremuaren osotasuna baita funtzionalaiki eta egitura-arloan hiri bakar gisa jo daitezkeen hiri-espazioen esparru bakarra –lan- eta bizitegi-merkatu bakarra eta udal-mugak gainditzen dituzten hiri-ehunak dituzte ezaugarri metropolizazio-prozesu horiek–. Bere garaian, Lurraldearen Antolamendu Artezpideetarako egindako hirien sistemaren analisisian, aintzat hartu ziren hiri-eremu berak hartu dira orain ere aintzat. Dena den, azken urte hauetan gertatu diren hiri-garapeneko prozesuek hiri-eremu horiek zabaltea ekarri dute. Hiri-eremuetan beste kokaleku batzuk barne hartuko badira, aurretik eremuetako bakoitzean sartzen ziren hiri-ehunetan jarraipena duten kokalekuak izan beharko dute.

EAE-KO HIRI EREMUAK ETA HIRIGUNEAK



HIRI EREMUEN ETA HIRIGUNEEN TAMAINA FUNTZIONALA




Irizpide horiei jarraituz honako hiriak eta hiri-eremuak (hainbat udalerrri biltzearen ondorioz sortuak) hartu dira aintzat:



- Bilboko eremu metropolitarrak: Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Leioa, Loiu, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Trapagaran eta Zamudio.
- Era berean, aurreko analisian Bilboko hiri-eremuan barne hartzen ez ziren honako udalerrriak sartu dira oraingoan:
- Zierbena, Alonsotegi, Arrankudiaga, Berango, Larrabetzu, Lezama, Muskiz, Ortuella, Sopela, Ugao, Urduliz, Zaratamo, Zeberio, eta Zierbena.
- Donostiako eremu metropolitarrak: Donostia, Lezo, Pasaia eta Errearteria. Era berean, aurreko analisian Donostiako hiri-eremuan barne hartzen ez ziren honako udalerrriak sartu dira oraingoan: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Urnieta eta Usurbil.
- Beasain-Ordiziako hiri-eremua: Beasain, Lazkao, Ordizia. Analisi honetarako Olaberriko udalerria ere sartu da eremuan.
- Zumarraga-Urretxuko hiri-eremua: Zumarraga eta Urretxu.
- Gorniz-Plentziako hiri-eremua: Gorniz, Plentzia. Analisi honetarako Barrikako udalerria ere sartu da eremuan.
- Irun-Hondarribiko hiri-eremua: Irun eta Hondarribia.
- Durangoko hiri-eremua: Abadiño eta Durango. Analisi honetarako Iurreta eta Izurtzako udalerrriak ere sartu dira eremuan.
- Eibar-Ermuko hiri-eremua: Eibar eta Ermua.
- Tolosa-Ibarrako hiri-eremua: Tolosa eta Ibarra.



Hiri-eremuetan gertatzen den udalerrien metatze horren ondorioz, eta aurretik aditzera emandako identifikazio-irizpideen emaitza gisa, honako hirien zerrenda sortu da tamaina funtzionalak aztertzeko:



Bilboko eremu metropolitarrak
Donostiako eremu metropolitarrak
Gasteiz
Beasain-Ordiziako hiri-eremua
Zumarraga-Urretxuko hiri-eremua
Gorniz-Plentziako hiri-eremua
Irun-Hondarribiko hiri-eremua
Durangoko hiri-eremua
Eibar-Ermuko hiri-eremua
Tolosa-Ibarrako hiri-eremua
Balmaseda
Zalla
Zornotza
Elgoibar
Gernika-Lumo
Markina-Xemein
Igorre
Guardia
Laudio
Arrasate
Bergara
Oñati
Mungia
Zarautz
Azpeitia
Bermeo
Zestoa
Amurrio
Ondarroa
Azkoitia


Legazpi
Lekeitio
Deba
Zumaia
Igorre
Elorrio
Aretxabaleta
Orio
Guardia
Gueñes
Agurain
Zaldibar
Villabona
Soraluze
Eskoriatza
Mutriku
Berriz
Urduña
Lemoa
Karrantza













ZUMARRAGA-URRETXUKO HIRI EREMUJA





4.2. Hirien tamaina funtzionala zehazteko hautatutako aldagaiak

Hirien tamaina funtzionalari dagokionez aldagaiak duten izaeraren araberakoa izan da hiri-funtzioen dimentsioa neurtzeko aldagaien hautespena.

Biztanleria-bolumenarekin, hiriaren dinamikarekin, jarduera-mailarekin, produkzio-egiturarekin, gizarte-egiturarekin, merkataritza-zuzkidurarekin, profesionalen zuzkidurarekin eta beste hainbat alderdirekin lotuko dira.

Irizpide orokor gisa, mantendu egin da aurretiazko analisisian erabilitako adierazleen egitura, baina txertatu egin zaizkio azken urte hauetan lurraldearen funtzionalitatearen eta hainbat kokalekuren zentraltasunaren funtsezko elementu bihurtu diren merkataritzagune eta salgune handien azalera eta kopurua.

Hauek dira erabilitako aldagaiak eta horien datu-iturriak:

1. Biztanleria 2006. Iturria: Eustat
2. Biztanleriaren aldaketa 2001-2006 (absolutua). Iturria: Eustat
3. Gazte-biztanleria (0-16 urte) 2001. Iturria: Eustat
4. Goi- eta erdi-mailako ikasketak dituen biztanleria (2001). Iturria: Eustat
5. Biztanleria aktiboa 2005. Iturria: Eustat
6. 2. sektorean lan egiten duen biztanleria. 2001. Iturria: Eustat
7. 3. sektorean lan egiten duen biztanleria. 2001. Iturria: Eustat
8. Zuzendariak eta teknikariak 2001. Iturria: Eustat
9. Merkatu-kuota, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007

10. Telefono finkoak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
11. Ibilgailu motordunak. Turismoak eta motorrak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
12. Autobusak eta kamioiak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
13. Banku-bulegoak, 2007. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
14. Industria-jarduerak (industria eta eraikuntza), 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
15. Handizkarien merkataritza-jarduerak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
16. Txikizkarien merkataritza-jarduerak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
17. Merkataritza-jarduerak: salgune handiak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
18. Herriz herriko eta merkatuetako merkataritza-jarduerak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
19. Salgune handien azalera, m², 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
20. Merkataritzaguneen azalera, m², 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
21. Jatetxe eta tabernetako jarduerak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007
22. Unibertsitariak 2006. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
23. Ikastetxeetako ikasleak 2006. Iturria: Eustat
24. Ospitale-oheen kopurua, 2006. Iturria: Osasun Saila
25. Hotel-gelen kopurua, 2006. Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
26. Etxebizitza-kopurua, 2006. Iturria: Udalplan
27. Etxebizitza okupatuen kopurua, 2001. Iturria: Eustat
28. Indize turistikoak, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007

29. Ekonomia-jardueraren indizea, 2006. Iturria: La Caixa-ren urtekaria, 2007

1. Eranskinak –Oinarrizko datu estatistikoen matrizea– analisisian barne hartzen diren hiri bakotzerako eta hiri-eremu bakoitzerako aldagai horien balorazioa biltzen du.

4.3. Tamaina funtzionalak zehaztea

Aztertutako hirien tamaina funtzionala zehazteko, 1. eranskinean agertzen den hiriak/aldagaiak matrizeari osagai nagusien metodoa aplikatzeari ekin zaio.

Mota horretako analisi estatistikoak, beraz, informazio kopuru handia faktore edo osagai gutxitan laburbiltzeko aukera ematen du, baita faktore edo osagai horiek oso modu sinplean ebalua daitezkeen hiriguneen tamaina funtzionala zehazteko ere. Hiri bakoitzerako hainbat aldagai lortuko dira, eta, horrela, aldagai-pare bakoitzaren artean nolabaiteko lotura dagoela hauteman ahal izango da. Lotura hori korrelazio linealeko indize batekin ezaugarrituko da. Aldagai guztiak binaka hartzearen emaitzazko korrelazio-koefiziente guztiak kalkulatu gero, aldagai-pare bakoitzaren artean dauden mendetasunen eta loturen matrize adirazgarria lortuko da. Aldagaien artean dauden lotura anitzen ondorioz, informazio hori erredundatea da hein handi batean. Hori dela eta, lotura horiek modu sinpleagoan adieraztea komeni zaigu; erraz uler daitekeen eskema baten bitartez hauteman eta azaltzeko aukera emango duen modu sinpleago batean, hain zuzen ere. Osagai nagusien metodoak helburu hori lortzeko aukera emango du. Horretarako, aldagai multzo bat hautatu beharko da alde zuzeneko sailkapen-irizpiderik edo baldintzatzailerik gabe, eta

osagai edo faktore deritzan adierazle kopuru txiki batean laburbilduko dira aldagaiak eta horien arteko loturak.

Metodoa aplikatzeko, oso baliagarria izango da aldagai guztiak estandarizatuta aurkeztea, hau da, batzuetako balioak eta beste batzuetakoak parekagarriak izatea eta, horrela, kalkuluak homogeneizatu ahal izatea. Hala egin ezean, oinarritzko datuen matrizeak parekaezinak izango diren oso bestelako unitate eta magnitudeekin adierazitako balioak emango ditu aditzera. Xede horrekin, hain zuzen ere, landu da Datu Estandarizatuen Matrizea. Datuen matrizeko zutabe bakoitza zutabe horretako elementurik handienarekin zatikatuta lortuko da Datu Estandarizatuen Matrize hori. Horrela, aldagai bakoitzaren gehieneko balioa 1 izango da beti. Bestalde, 2. Eranskinean islatu da emaitzazko Datu Estandarizatuen Matrizea, eta eranskin horretan jaso dira matrizea garatzeko egindako urratsen deskribapen laburra.

Tamaina funtzionala, azken finean, hasiera batean aintzat hartutako 29 aldagaien konbinazio linealaren emaitzazko beste aldagai bat izango da. Aztertutako hirietarako emaitzazko tamaina funtzionalak argi eta garbi adierazteko, tamaina funtzional handieneko hiriari –gure kasuan Bilboko hiri-eremuari– 1.000 unitateko balioa esleitu zaio, eta gainerako hiri guztiak erreferentziazko gehieneko balio horrekiko proportzioan adierazi dira. Horrenbestez, honako hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hirien Sistemarako aintzat hartutako osagaien tamaina funtzionalak:


HIRIA	TAMAINA FUNTZIONALA	TAMAINA FUNTZIONALA (BILBO=1000)	2007KO POPULAZIOA				
BILBOKO HE	22,5737276	1000,00	890430	LEKEITIO	0,2356897	10,44	7435,00
DONOSTIAKO HE	8,67254753	364,19	319563	DEBA	0,21457896	9,51	5325,00
GASTEIZ	7,20326491	319,10	227568	BALMASEDA	0,19675809	8,72	7169,00
IRUNGO HE	2,70685153	119,91	76334	ZUMAIA	0,18657423	8,27	8761,00
DURANGOKO HE	1,28596702	56,97	37104	IGORRE	0,15645795	6,93	4117,00
EIBARKO HE	1,11114719	49,22	43861	ELORRIO	0,14256897	6,32	7195,00
BEASAINGO HE	0,83990388	37,21	27963	MARKINA-XEMEIN	0,13604097	6,03	4605,00
ZARAUZ	0,77412638	34,29	22323	ARETXABAETA	0,0958633	4,25	6500,00
MUNGIA	0,60421783	26,77	15104	ORIO	0,08974521	3,98	4676,00
ZORNOTZA	0,56782204	25,15	17112	GUARDIA	0,06895012	3,05	1500,00
ARRASATE	0,56556066	25,05	22312	AGURAIN	0,00452315	1,87	4177,00
TOLOSAKO HE	0,56364816	24,97	22176	ZALDIBAR	0,04231789	1,56	2948,00
GERNIKA-LUMO	0,49169799	21,78	16007	VILLABONA	0,03526998	1,47	5727,00
GORLIZKO HE	0,48361961	21,42	10493	SORALUZE	0,03312446	1,40	4128,00
LAUDIO	0,46804413	20,73	18478	ESKORIATZA	0,03158995	1,26	3930,00
ZUMARRAGAKO HE	0,43885839	19,44	16856	MUTRIKU	0,02854687	1,21	4762,00
AZPEITIA	0,39891838	17,67	13930	BERRIZ	0,0273329	1,18	4655,00
BERGARA	0,37701477	16,70	14853	URDUÑA	0,02655872	1,08	4090,00
BERMEO	0,35248756	15,61	17117	LEMOA	0,02432284	0,99	2832,00
ELGOIBAR	0,27480798	12,17	10605	KARRANTZA	0,02238975	0,82	2906,00
OÑATI	0,27307562	12,10	10771,00	GUEÑES	0,01856472	0,20	6287,00
ZESTOA	0,26852467	11,90	3175,00				
AMURRIO	0,24868524	11,02	9669,00				
ZALLA	0,24740967	10,96	8026,00				
ONDARROA	0,24685479	10,94	9494,00				
AZKOITIA	0,2396421	10,62	10462,00				
LEGAZPI	0,2385647	10,57	8633,00				

Gaineratzen den grafikoan mailaren eta tamainaren arabera banaketa-kurba irudikatu da, eta tamaina funtzionala dagokion logaritmo nepertarrarekin irudikatzen da, desberdintasunak zuzentzeko. Izatez, tamaina ertain eta txikiko hirigune ugari dago tamaina handikoekin alderatuz gero. Kurba horri esker, hiri-hierarkiaren maila jakin bati dagozkion funtzioak garatzen dituzten hiri-eremuei edo hiriguneei dagozkien lerrun bereizgarriak edo hiri-unitateko multzoak bereiz daitezke.

Portaeraren dinamikan gertatzen diren aldaketek finkatzen dituzte multzo edo maila hierarkikoen arteko mugak. Aldaketa horiek agerikoak dira kurban, malda-aldaketa adierazgarriak gertatzen baitira maila eta tamaina funtzionalaren banaketa grafikoki irudikatzen duen poligonalean.

Muga horiek, nolahi ere, gutxi gorabeherakoak dira. Grafikoa aztertu ostean, hauek dira lortutako emaitzak:

1. maila. 1000 eta 993 arteko tamaina funtzionala	Hiri 1
2. maila. 385 eta 319 arteko tamaina funtzionala	2 hiri
3. maila. 119 eta 34 arteko tamaina funtzionala	5 hiri
4. maila. 26 eta 15 arteko tamaina funtzionala	11 hiri
5. maila. 15etik beherako tamaina funtzionala	30 hiri



4.4. Analisi konparatzailea

Maila hierarkikoen sailkapen horretatik Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko ezaugarriak eta azken 20 urteetan izan duten bilakaerari buruzko ondorio adierazgarriak atera daitezke.


- Kontuan hartzen badugu maila hierarkiko jakin bateko hiriek beheko mailletako hirien funtzio guztiak betezen dituztela, oso deigarria da tamaina funtzionalaren arabera mailen arteko tartek hain handiak izatea sistemaren goi-mailetan dauden hiru hirien artean, batez ere Bilboren eta Erkidegoko gainerako hiriguneen artean dauden aldeak. Hiri nagusi horiek guztiz nabarmentzen dira sistemaren osotasunean, eta gainerakoek askoz ere maila txikiagoko funtzioak betetzen dituzte eta ahalmen polarizatzaile oso murrizta dute.
- Goi-mailan, eta 1989. urteko emaitzekin alderatuta, honakoa nabarmendu behar da:
 - Gora egin du, gutxi bada ere, Bilboko hiri-eremuaren eta beste bi hiriburuen arteko alde erlatiboak.
 - Gasteizen tamaina funtzionalak izan duen gorakada, lehen Donostiak baino 100 puntu gutxiago bazuen, gaur egun 65 puntu gutxiago baino ez ditu.
 - Hiriburuetako hiri-eremuen eta hiri-sistemaren gainerako osagaien tamaina funtzionalen arteko aldea gero eta handiagoa da, hiri nagusietan gero eta funtzio gehiago metatzearen adierazle.

• Hirugarren mailan eta 4.etik gorako postuetan, zenbait emaitza garrantzitsu nabarmendu behar dugu:


- Lehenik, Irun-Hondarribiko hiri-eremuaren gorakada handia. Eremu horretako dinamismo demografikoak eta zuzkiduren metatzeak pisu funtzional handiko azpizentzora finkatzeko aukera eman du.
- Bigarren, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuekin lotzen diren hiri-eremuen protagonismo handia. Zarautz Euskal Autonomia Erkidegoko hirien arteko tamaina funtzionalaren arabera 16. postutik 8. postura pasa da. Are deigarriagoa da Mungiaren kasua, 24. postutik 9. postura pasa baita. Bi kasuak urte hauetan ezohiko hazkunde demografikoa izan duten hiriguneak dira, eta, gainera, lurraldearen gainerakoan biztanleak galtzen ziren testuinguruan. Gainerako hiriek baino egitura demografiko askoz ere gazteagoak dituzte, prestakuntza-maila handiko populazioa dute eta zuzkidura-maila handiak dituzte. Bi kasuetan bigarren mailako etxebizitzaren ehuneko handi bat bigarren etxebizitza izatetik etxebizitza nagusira pasa da. Espazio horiek eremu funtzionalen burutza gisa duten zentraltasuna indartu dute eta, era berean, espazio metropolitarraren dinamismoaz baliatu dira.
- Antzeko egoera nabari da Zornotza eta, batez ere, Durangoko hirien kasuan. Azken hiri hori tamaina funtzionalaren arabera bosgarren hiri, eta aurreko egoerarekiko postu bat egin du aurrera. Zornotzak 19. postutik 10.era egin du jauzi. Bi kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio ardatz-nagusian estrategikoki kokatzea, Bilbotik hurbil egotea, hazkunde demografiko eta ekonomiko handia izatea eta zuzkidurak indartzea oso lagungarria izan da espazio horiek zentraltasun funtzional handia lortzeko.

- Aurkakoa gertatzen da Deba haraneko kokaleku nagusiekin. Eibar-Ermua eremua tamaina funtzionalaren arabera 5. postutik 6. postura pasa da eta Arrasate 7. postutik 11. postura. Biztanleria etengabe galtzeak, zahartze-indize handiak eta bertako merkataritza-jardueraren ahulezia nabarmenak eragin dute hiri hauek funtzionalitatea galtzea.
- Ez da gauza bera gertatzen Beasainekin; esparru horrek dinamismo demografikoa berreskuratu du azken hamarkadan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko jaiotze-tasarik handienetakoa du. Kokaleku oso iristerraza izanik ere, Gipuzkoako hiriburutik urrun egoteak aukera eman dio hiri-eskaintzari hainbat zuzkidura- eta merkataritza-elementu gehitzea. Hori dela eta, tamaina funtzionalaren arabera 8. postutik 7. postura pasa da.
- Aitzitik, Tolosa 11. postutik 12.era pasa da. Beasainen antzeko ezaugarri demografikoak dituen arren, Tolosan ez dira hain nabarmenak. Gainera, hurbil dagoen Donostiako eremu metropolitarrako funtzioekin eta jarduerekin lehiatu ezinda, eremu metropolitarretik hurbil egoteak mugatu egin du hiri-funtzioak eta merkataritza-jarduerak garatzea. Izatez, Donostiako eremu metropolitarrak erakarpen-elementu handia da inguru horretarako.


NOIZEAN BEHINGO ONDASUNEN SALTOKIAK




PRODUKZIO ESTABLEZIMENDU BERRIAK




ENPLEGUAREN METAKETA




ENPLEGU KOPURUA UDALERRIEN ARABERA



LANGILEAK UDALERRIAZ KANPO



ERREFERENTZIAZKO OSPITALERA IRISTEKO BATEZ
BESTE BEHAR DEN DENBORA (minutuak)



Iturria: Eustat, 2005

5.

Finkamendu- systemaren bila- kaera eta egitura

5.1. Gune-metropolitarraren protagonismo gero eta handiagoa

Soilik udalerrri nagusiak kontuan hartuta, hiru hiriburuek EAEko biztanleria osoaren % 36 biltzen dute. Hiru hiri hauen inguruan osatu den hiri-eremuaren multzoa kontuan hartzen badugu, zenbateko hau % 67raino iristen da. Hiri hauen pisu demografikoaren eta betetzen dituzten funtzioen izaeraren ondorioz, Autonomia Erkidegoko hiri-sisteman erabakigarri bilakatu dira. Azken hamarkadetan zehar, hiru hiri hauen bilakaera eta profila aldatu egin da.

a. Bilbo Metropolitarraren eremua


1950 eta 70eko hamarkadaren bukaera artean, Bilboko hiri-eremuak 2,3 biderkatu zuen bere biztanleria. Hazkunde indartsu hau industria-instalazio handien inguruan gertatu zen industria-garapen garrantzitsuaren ondorioz gertatu zen. Honela, gero eta handiagoa zen aglomerazioa eskatzen zuen eredua sortu zen.

Garapen hau bereziki Ezkerraldeko udalerrietan gertatu zen. Basauri, Portugalete, Galdakao, Barakaldo eta Santurtzi bezalako hiriek 25 urtetan biztanleria laukoiztu zuten, garai berean hiri nagusiak bere biztanleria bikoiztera ozta-ozta iristen zen bitartean. Honela, Ezkerraldean barrena hedatzen den dentsitate handiko industria- eta bizitegi-ereduan oinarritzen den metropolitanizazio fenomeno bat sortzen da; eskuineko ibaiertzean, aldiz, Getxo, Sopela edo Leioa bezalako udalerrietan, bizitegi eta dentsitate baxuko izaera duen eredua hedatzen da.

Industria tradizionalari hain estuki lotutako garapen honen ondorioz, 70eko hamarkada bukaeran hasitako industria-krisiarekiko eremu hau oso ahula

izan zen. Bilbo inguruko industria-udalerrri guztiek zein Bizkaiko hiriburuak berak biztanleria kopuru handia galdu zuten eta jarduera ekonomikoaren uzkurdura nabarmena jasan zuten. Biztanleria eta jarduera galera honek ez zuen hain eragin nabaria izan eskuineko ibaiertzeko bizitegi-udalerrietan. Krisiaren urteetan barrena, tamaina handituz jarraitu zuten, nahiz eta orokorrean gertatu zen pisu demografikoaren galera konpentsatzeko erritmo nahikoa ez izan.

Biztanleriaren bilakaera Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalean



Iturria: Estadística Instituto Nacionala

Bilbo Metropolitanra hirugarren mailako gune berritzailean bilakatzearen prozesua oso ezaguna da eta oinarrizko egiturazko elementuak hartzen ditu bere baitan. Esaterako, kanpoko portu berria eta metroarekin batera, Guggenheim eta Euskalduna jauregia bezalako ekimen garrantzitsuak eta Parte Zaharra, Barakaldo edo Zorrotzaurreko penintsulan lan-estrategikoak burutu dira.

Krisi- eta berrikuntza-prozesuen ondoren sortzen den industria osteko eremu-metropolitarrak aurretik zegoen industria-hiriarekiko desberdintasun handiak ditu. Demografiari dagokionez, eremu-metropolitarrak 1980 eta 2000 urteen artean ia 60.000 biztanle galdu zituen, eta mende berriaren hasieratik aurrera, nolabaiteko berreskurapena izan zuen. Demografia galera ia guztiak Ezkerraldeko industria-udalerrietan eta hiriburuan kontzentratzen dira. 80eko hamarkadako desagregazio hiritarren prozesuak kontuan hartuta ere, Bilboko biztanleria 45.000 pertsona baino gehiago murriztu da azken 25 urteotan. Barakaldok 22.000 biztanle galdu ditu, Sestaok 10.000, Portugaletek eta Basaurik 8.000 eta Santurtzik 6.000. Hiri hauetako gehienek biztanleak galtzen jarraitzen dute eta biztanleriaren zahartze-maila oso altua da.

Aitzitik, eremu metropolitarraren beste gune batzuek etengabeko hazkundea izan dute urte hauetan zehar. Horietako gehienak eskuineko ibaiertzean, kostaldean eta Txorierrin kontzentratzen dira. 80ko hamarkadaz geroztik, Barrika, Gorniz, Berango, Leioa eta Sopelak beren biztanleria bikoiztu baino gehiago egin dute. Bilboren iparraldean kokatzen diren udalerririk guztietan zein hiri nagusiaren inguruan dauden beste udalerririk batzuetan (Alonsotegi edo Arrigorriaga, esaterako) garai honetan biztanleria igo egin da. Barne-aldaketa prozesu hauek eremu-metropolitarratik kanpo zabaltzen den prozesuaren adierazpena dira. Azken 15 urteotan, 20.000 pertsona inguruk aldatu zuten bizilekua Bilbo

Metropolitarratik EAE barruko inguruko bestelako eremuetara. Bizileku-aldaketa hauen helmuga nagusia Mungiako eremua da, baina Durango, Igorre eta Laudio eta Gernika-Lumo kostaldeko leku batzuetara ere iritsi dira. EAetik kanpo, Kantabriako ekialdeko itsasertzearen guneak funtzionalki eta demografikoki Bilbo Metropolitanrera lotutako eremuak dira. Honela, eremu honetako lehengo biztanleak bertara lan egitera joaten jarraitzen dute, eta Laredo eta Castro Urdiales bezalako herriek hazkunde nabarmena izan dute.

Eremu-metropolitarrak hedatzeko joera argia erakusten du prozesu honek, eremu-metropolitarraren tradizionalaren orain arteko eremu periferikoak zirenetan biztanleriaren hazkundearen prozesu bikoitzean eta orain dela gutxi arte metropolitarrak izaera ez zuten eremuak gero eta modu zuzenagoan bertan integratuz.

Bilboko metropoliaren kasuan, metropoliaren grabitate-zentroa iparraldera lekualdatzen ari dela eta inguruko eremu funtzionalen eremu-metropolitarraren etxebizitza- eta lan-merkatuak indar handiz batzen ari direla erakusten du joerak. Prozesu hau hainbat faktorek bultzatzen dute. Alde batetik, erdigunean dauden eremuetan etxebizitzaren prezio altuen ondorioz, eskakizuna prezio eskuragarriagoak dauden inguruko eremuetara lekualdatzen ari da. Bigarren faktorea, etxebizitzari balio erantsi handiagoa ematen dioten eta gero eta handiagoa den bizitegi-tipologiaren eskakizuna da: pertsonako azalera handiagoa, igerilekua, lorategiak edo kirol-inguru pribatuak, etxebizitzak urbanizazio itxietan, etxebizitza familiabakar salbuetsiak, etxebizitza atxikiak edo altuera txikiak eraikinetan, eta abar.

Ingurune-metropolitarraren hazkundera eragina duen beste faktore bat, zalantzarik gabe, ingurumenaren eta paisaiaren ikuspuntutik inguru erakargarriak lotutako gero eta handiagoa den bizitegi-eremuen eskakizuna

da. Joera honek orain dela gutxi arte landa-izaera zuten eremuei, eta bereziki kostaldeko eremuei, balio handia ematen die.

Krisi eta uzkurdua aro batetik dinamismo eta hazkunde garaira pasatu den eremu-metropolitarraren testuinguru honetan gertatzen diren joera hauek guztien ondorioz, aldaketa funtzional garrantzitsuak gertatu dira. Honela, industria-jarduerak lekualdatu egin dira eta Ezkerraldean zuten kokaleku tradizionaletik ia-ia desagertu egin dira. Orain, itsasadarraren kanpoaldeko gunetan kontzentratzen dira, portu-eremu berrien inguruan eta Txorierrin. Honela, aireportuaren gertutasunaren ondorioz bizitegirako erabilera aproposa ez duten eremuen lurzorua erabilgarritasuna aprobeztatzen dute. Gainera, industria honek instalazio handiekiko lotura txikiagoa du eta tamaina txiki eta ertaineko kokapenek pisu askoz ere handiagoa dute. Era berean, eremu-metropolitarraren erdigunetik gero eta hurbilago dauden lekuetan oraindik utzikeria egoeran dauden industria-kokalekuak ageri dira.

Bilbok, eta bereziki itsasadarraren inguruko eremu zentralenek, hiri-zabalguneak eta parte zaharrak hirugarren mailako profila indartu egin dute. Honela, jarduera finantzario eta korporatiboak, profesional- eta enpresa-zerbitzuak, merkataritza espezializatua, kultura, turismo eta goi-mailako hezkuntza jarduerak, eta abarrak kontzentratu dituzte. Gainera, gune zentral hauek gero eta esanguratsuagoak diren biztanleria aldaketen menpe daude. Azken hamarkadan eremu-metropolitarrak jasan duen hazkunde handiena atzeritik etorritako biztanleen ondorioz gertatu da. Etorkinak, gehienak errenta-maila baxukoak, Bilbo metropolitarraren biztanleriaren % 5a dira, eta Parte Zaharra, Bilbo Zaharra, San Frantzisko auzoetan eta 50eko eta 60ko hamarkadetako industria-udalerrri zaharren auzoetan biltzen dira. Hiri-eremuen eta etxebizitzaren kalitate eskasa da nagusi eremu hauetan, eta horrek prezioak mantentzea ahalbidetzen du, biztanle


horientzat etxebizitza eskuragarri bilakatuz. Inguru-metropolitarraren biztanle berri gehienak gune hauetatik eratorritakoak dira.

Halaber, goi-mailako ekipamendu berriei lotutako erdigune-metropolitarrako eremu berriak ageri dira (kanpoko portua, aireportua, BEC, unibertsitatea, teknologia parkea...) eta bereziki, gero eta handiagoak diren eremu-metropolitarraren merkataritza- eta aisia-eskakizunak barne hartzen dituzten azalera handiak. Erdigune-eremu berri hauen garapena oraindik hasiberria da, aldaketa-metropolitarraren prozesuak hasi berriak baitira. Garapena bereziki urria da metropoliaren iparraldeko eremuetan, hiri-garapenen dentsitate baxuek eta etenaldiek horiek agertzeko erraztasunak murrizten baitituzte, baina era berean, beharrezko egiten dituzte. Garapen-metropolitarraren jarraibide berrien antzeko egokitze-erronkei aurre egin behar diete trenbide-sareek, garraio-sistema kolektiboek edo ekipamendu publikoen kokapenek.

b. Donostiako eremu-metropolitarra

Beste maila batean eta bereziki ezaugarriekin, hedapen-metropolitarraren prozesua Donostian ere gauzatzen ari da. Krisiaren aurrean ahultasuna izan zezaketen industria-jardueretik menpekotasun txikiagoa zuenez, krisiaren eragina Bilbo Metropolitarran baino txikiagoa izan zen, Pasaia Badi inguruko eremuetan izan ezik. Eremu honek 70eko hamarkadaren erdialdera arte hazkunde ikusgarria jasan zuen eta orduz geroztik, gainbehera etengabea jasaten ari da. Dentsitate handiko eta erakargarritasun gutxiko paisaia hiritarra duen eremua da. Aldaketarako ekimenak urriak edo ez nahikoak izan dira eta portuko jarduerak gatazka egoerak sortzen dituzte eta itsasoarekin harremana mugatzen dute, hain zuzen ere, itsasoa eremu hau aldatzeko aukera handienak eskaintzen dituen gunea izanik.

Biztanleriaren bilakaera Donostiako eremu funtzionalean



Iturria: Estadistika Institutu Nazionala

Honela, hedapen hiritarraren prozesua inguruko beste eremu batzuetara zuzendu da, bizitegi- eta hiri-mota erakargarriagoen bila eta Donostiako erdiguneetako prezio altuekin alderatuta prezio-baldintzak egokiagoak dituzten inguruneen bila. Azken hamarkadako hazkunde-eremu nagusia Bidasoa Behea izan da, Irun eta Hondarribiako udalerrien inguruan, eta baita Urumeako Bailarako udalerrietan ere. Gutxi gorabehera eremu-metropolitarraren % 46a hiri nagusian bizi da, eta zenbateko hori egonkorra da 80ko hamarkadaren erdialdetik gaur egunera arte. Bilboko eremu-

metropolitarrarekin alderatuta, Donostiakoak oso biztanleria-kopuru txikia galdu zuen krisi-urteetan. 80eko hamarkadan barrena, guztizko biztanleria 4.000 pertsona murriztu zen. Biztanleria-galera hauek Pasaiaiko Badiako udalerrietan gertatu ziren, eta guztira, garai hartan 7.000 biztanle inguru galdu zituzten eta beste 7.000 biztanle azken 15 urteotan, oraindik eten ez den prozesuaren baitan. Honela, biztanleria-metropolitarraren % 19a izatetik, egun soilik % 15a izatera pasatu da.

Galera hauek pixkanaka prozesu-metropolitarraren sartu diren beste eremu dinamikoagoen hazkundearekin konpentsatu egin dira. Demografia-hazkunde nagusiak Bidasoa Behean gertatu dira, eta 1980an biztanleriaren % 16a izatetik, egun % 19,3a izatera pasatu da. Garai honetan, Irungo biztanleria % 20 hazi da eta Hondarribiako % 50 baino gehiago. Urumeako arroaren inguruko udalerrietan eta Oiartzun eta Usurbil bezalako udalerrietan periferia-metropolitarrak berri bat ezarri da, eta eremu berri honetan eremu funtzionalaren biztanleriaren ia % 20a bizi da.

Hedapen-metropolitarraren eremua beste eremu funtzional batzuen guneetara zabalduta da, eta bereziki Zarautz-Orioren kostaldeko guneetara. Bertan, biztanleriaren lekualdaketa, hiri-garapen berriak eta bigarren bizilekuak etxebizitza nagusi bilakatzearen prozesuak gertatu dira.

Industria-eremuak ere periferiako guneetara aldatu dira, bereziki Usurbil, Urumea garaia eta Irun-Oiartzun-Pasaiaiko Portua hirukira. Bestalde, erdigunean dauden eremuetan, industria-eremuak progresiboki hirugarren mailako eremuetara, azalera handiko eta merkataritza guneen inguruko bulego, aisialdi eta merkataritzara aldatu egin dira.

Donostiako udalerriaren dimentsioaren eta Bilbokoa bezain sakona izan ez den egitura-aldaketaren prozesuaren ondorioz, eremu honen funtzio

nagusiak indartu egin dira, bizitegi-erabileraren galerarik izan gabe. Hala ere, eremu batzuk aisiaren eta hirugarren sektore aurreratuaren funtzioetan kalitate bereziko gero eta espezializazio handiagoa izan dute, eta hirigintza hondatuena duten eremu batzuetan etorkin berrien kontzentrazio-eremuak sortu dira. Halaber, tamaina erdiko gunen tradizionalen inguruan azpizentro metropolitarrak agertu dira, Irunen eta Hernanin esaterako, eta beste batzuk irisgarritasun metropolitara handia duten eremuetako merkataritza gunen handien kokalekuekin lotuta, Oiartzun eta Usurbil esaterako.

c. Gasteizko hiri-eremua

Gasteizko kasuan, hiri-garapen prozesuak nagusiki hiri nagusian kontzentratu dira. Hiriburuaren udalerraren zabaltasunaren eta lurzoru erabilgarritasunaren ondorioz, hiri-eremu honetan hazkundearen kontzentrazioa gero eta handiagoa izan da.

Beste bi hiriburuaren aldean, Gasteizek ez dio inoiz ere hazteari utzi. 70eko hamarkadaren amaieran hasitako krisiaren eraginak murrizagoak izan ziren industria tradizionalaren pisua eskasagoa baitzen. Gainontzeko hiriek 80ko hamarkadako birmoldaketa-prozesuan murgilduta zeuden bitartean, Gasteiz Eusko Jaurlaritzaren egoitza bilakatu zen. Lurzoruaren erabilgarritasuna eta bere kokapena aprobetxatu zituen industria-gune berrietan oinarritutako garapena sustatzeko, hain zuzen ere, sektore dinamikoetara eta garatzeko bidean zeuden jarduera logistikoen garapen izugarri batera bideratutakoa.

50eko hamarkadaz geroztik, Gasteizek 4,3 biderkatu du biztanleria egun aurrera darraien hazkunde-prozesu baten baitan eta tamaina demografikoari dagokionez, EAEko bigarren udalerrri handiena bilakatu da. Dinamismo hau hiri nagusian kontzentratu da. 50eko hamarkadan Arabako Lautadako biztanleriaren % 74a zuen, eta egun eremu honetako biztanleen % 89a Gasteizen bizi da. 90eko hamarkadatik aurrera, Arabako hiriburuaren


inguruko landa-guneetan hazkunde esanguratsua sumatzen hasiko da. Hala ere, termino erlatiboetan garapen esanguratsuak dira, baina termino absolutuetan, berriz, ez dute garrantzia handirik. Azken hamar urteotan Dulantziko biztanleria % 86ra arte igo da, Iruñea Oka % 60 eta Burguk 2,8 biderkatu du. Dena dela, igoera indartsu hauek udalerrri hauetan bizi diren biztanle berrien 2.400 biztanleko kopuruari dagozkio.

Zigoitia, Zuia, Legutio eta A-1 ardatzean kokatutako hainbat udalerrirekin batera, Gasteiztik etorritako dentsitate baxuko bizitegi-eskakizunak hartzen dituzten eremuak dira. Hala ere, hiriburuak berak egiten duen eskaintzarekin alderatuz, prozesu hau oso mugatua da.

Beraz, ezin da eremu-metropolitara batetaz hitz egin, bere eragina inguruko eremuetan barrena zabaltzen duen eremu zentral makrozefalikoaz baizik.

Industria lurzoruari dagokionez ere, Gasteiz nabarmen gailentzen da, Lantaron, Iruñea Oka, Erriberabeitia edo Legutioko udalerrietan garapen garrantzitsuak gertatu badira ere. Beraz, Gasteizko udalerrian EAEko jarduera ekonomikoetarako lurzoru osoaren % 20a kokatzen da, eta horri bere eremu funtzional zabalean dagoen % 60a gehitu behar zaio.


Biztanleriaren bilakaera Araba Erdiko eremu funtzionalean






5.2. Hiri ertainak

EAEren hiri-sistemaren baitan, hiru hiri-eremu nagusiek zerbitzuei eta goi-mailako eta hiri-sistema europarrak definitutako testuinguru zabalagoetan euskal lurraldearen txertatze-elementuen jarduerari lotutako funtzioak betetzen dituzte nagusiki.

Biztanleriaren bilakaera Balmaseda-Zallako eremu funtzionalean






Maila handiagoko hiru hiri-eremu hauekin harreman estu funtzionala dute hiri txiki eta ertainen multzo handi batek. 10.000 eta 60.000 biztanle artean dituzte eta lurraldea egituratzeko benetako hiri-sarea osatzen dute. Ezaugarri oso desberdinak, bilakaera heterogeneoa eta berariazko oinarri ekonomikoak izan arren, hiri-gune talde honek hainbat ezaugarri ditu komunean, lurraldearen orekarako elementu giltzarri bilakatzen dituztenak eta EAEko eremu desberdinetan dauden lurralde-garapenerako aukerak aprobetxatzeko indar handiko oinarri hiritarra eskaintzen dietenak.


- Erdi-mailako izaera duten hiriko zerbitzuak eskaintzeko orduan ezinbesteko papera jokatzeko duten hiriak dira eta gizarte modernoaren testuinguruan, gero eta gehiago oinarrizkotzat hartzen dira. Hala ere, hiri-dimentsio nahikoa eta biztanleri-eskatzailearen ataria behar dutenez, udalerrri gehienetan zerbitzu hauek ezin dira herri-mailan erabili. Honela, hiri

ertainek zerbitzu horiek lurraldearen leku askotara erraz iristeko aukera ematen dute. Hain zuzen ere, leku horiek gero eta gainbehera handiagoa jasan beharko lukete zerbitzu horientatik izan ez balitz, eta horrek EAEn hiri-eremu handien inguruan polarizazio-prozesuak areagotuko lituzke.

Biztanleriaren bilakaera Durangoko eremu funtzionalean



Biztanleriaren bilakaera Eibarko eremu funtzionalean






- Dena dela, hiri hauen ezaugarri komun bat da, hiri-maila nahikoa ez izateak progresiboki funtzionaltasuna kentzen diela, bereziki nabaria azpiegiturak eta komunikazio-zerbitzuak hobetzen diren heinean. Hori, bereziki zerbitzu pribatuetan, pertsonaletan eta enpresetan eta administrazioetan gertatzen da, gero eta sofistikatuagoa eta zorrotzagoa den gizarte egitura baten gero eta eskakizun handiagoa jasaten duten bitartean. Prozesu honen ondorioz, hiri hauetako askok lurralde protagonismoa galtzeko arriskua dute hiriburuen onerako, eta hiri-oinarri izugarri baten lurralde-funtzioak mantentzeko mehatxua dute.


- Azkenik, teknika eta garraio baldintza berrien eta biztanleriaren eskakizun berrien ondorioz, hiri-eremuaren berdefinizioa gertatu da eta hiri hauek ekoizpen- eta lurralde-egitura berriei erantzun behar diete, lurralde-ereduaren baitan beren papera mantendu eta indartu ahal izateko.

EAEko hiri ertainen sarea lurralde-aktibo garrantzitsuenetako bat da. Lurralde-ereduari oreka eta aukera aniztasuna ematen dizkiote, eta hori ez da oso ohikoa izaten asko garatutako hiri-sistemaren goi-mailako elementuak dituzten guneeetan.


Hau horrela izanik, hiri hauen lurralde-banaketa ez da homogeneoa lurralde osoan. Haien presentzia ia eskusiboki EAEko iparraldeko erdialdera mugatzen da eta bereziki Gipuzkoako lurraldean. Araban, berriz, ez du inolako presentziarik. Bizkaian, Bilbo Metropolitarraren hedapen-prozesuen ondorioz hiri hauek ahultasun nabarmena zuten lekuetan, hiriak eta eremu ertainak dinamizatu egin dira.




Biztanleriaren bilakaera Laudioko eremu funtzionalean




Biztanleriaren bilakaera Mungiako eremu funtzionalean




Biztanleriaren bilakaera Arrasate-Bergarako eremu funtzionalean




Evolución de la Población para el área funcional de Zarautz-Azpeitia[1950-2006]



Biztanleriaren bilakaera Araba Erdiko eremu funtzionalean



LURRALDE-ZENTRALITATE ELEMENTUAK



Legenda

- + Ospitale handiak, eskualdeko ospitaleak eta eskualdeko osasun-zentroak
- I Erdi-mailako ikastetxeak
- Merkataritza-guneak

Iturria: lanketa propioa

Lehen hurbilpen batean, EAEko hiri ertainen sailkapena bi talde handitan egin daiteke, haien hiri-garapena bultzatu duen ekoizpen-oinarriaren arabera. Honela, hiri industrialak hirugarren mailako hirien aldean ageri dira, normalean eremu-metropolitarraren hedapen-prozesuei lotutakoak. Industria-garapen esanguratsurik izan gabe eta sarritan EAEko hiri-sistema ertainen mailan kokatzeko nahikoa tamaina demografikorik ez izan arren, hirugarren motako guneak landa-eremuetan hiri-izaera duten eremu bakarrak dira. Horrek, aurreikusitakoa baino zentralitate-maila handiagoa ematen die eta EAEko lurralde-eremu ahulenen antolaketa eta garapenean paper garrantzitsua jokatzeko dute. Itsasertzeko hiri-eremuek ere izaera berezia dute.

Hauen aldean, haien tamaina dela-eta EAEko hiri-sisteman paper esanguratsua joka dezaketen hiri asko daude, baina hiriburuetako hiri-eremuetatik edo maila handiagoko hiri ertainetatik hurbil egoteak hiriko zerbitzu-gune gisa funtzionaltasuna kentzen die, eta lurraldearen paper ordezkatzailerik eta ez oso egituratzailerik betetzen dute.

b. Industria-hiri ertainak

Eibar, Arrasate, Durango, Beasain, Tolosa eta Laudio daude talde honetan. Lehen hirurek 20.000 biztanle baino gehiago dituzte eta 22.000 eta 43.000 biztanle arteko hiri-eremuak euren inguruan biltzen dituzte. Durango, Eibar eta Beasaingo hiri-eremuak EAEko hiri-sistemaren 3. mailan daude, beren tamaina funtzionala dela-eta. Gainontzeko hirurak 4. mailan daude.

Kasu guztietan, industria-jarduerekin hazkundeari lotutako garapena izan duten guneak dira. Industria-jarduera horiek lehen garai batean garapen demografiko eta ekonomiko azkar bat eragin zuten, baina ondoren, krisi garrantzitsua pairatu zuten oinarriko jardueraren ekonomikoaren gainbeheraren

ondorioz. Azken aro honetan, tokiko ekonomia eta ekoizpen-egituraren aldaketak sartzeko indarra duen eremu-metropolitarraren harremana dinamizatzen duen enpresa batekiko lotura giltzarria izan da hiri hauetako bakoitzaren bilakaerari dagokionez. Beraz, haien hiri-dinamismoaren bilakaera sektore ekonomiko horien gorabeherari oso lotuta egon da eta euren lurralde-kokapenak berebiziko garrantzia izan du garapenean, hiri-ezaugarri partikularrak sortuz.

Oro har, 60ko eta 70eko hamarkadetan asko hazi ziren herriak dira. Industria-krisiaren ondorioz, 80ko eta 90eko hamarkadetan geldialdia edo gainbehera nabarmena jasan zuten. Tokiko ekonomiak buru zen industria-sektorearen gero eta menpekotasun handiagoa izan, atzerapeneko eragina askoz ere garrantzitsuagoa zen, eta hamarkada horietan gertatutako industria-egituraren aldaketen aurrean ahultasuna handiagoa zen. Kasu deigarrienak Arrasate eta Eibarrenak dira. Garai hartan, bi hirien gainbehera hiritarra industria birmoldaketaren prozesu sakonari lotuta egon zen. Prozesu honek euren tamaina demografikoan atzerapen handia ekarri zuen, oraindik itxi ez dena, eta ekonomia- eta biztanleria-oinarria murrizten den heinean eta zahartze-tasa altuen ondorioz biztanleria ez-aktiboaren zenbatekoa igotzen den heinean, zentralitatea eta tamaina funtzionala galdu dute. Euren kokapenaren ondorioz, gunemetropolitarraren nagusietatik gainontzeko udalerriak baino urrunago, erakargarritasuna eta atzerapeneko joera horiek alda ditzaketen biztanleria eta jardueraren berriak sartzeko gaitasuna murriztu dute.

Durango izan ezik, hiri hauek guztiek industria-krisiari lotutako gainbehera prozesuak jasan zituzten. Hala ere, tokiko ekonomia-ehuna dinamizatu duten enpresa handi batzuren presentziari lotutako tokiko inguruabarren ondorioz, eta biztanleriaren berkitasun eta ekoizpen-jarduerekin erakargarritasun prozesuak bultzatu dituen eremu-metropolitarraren

gertutasunaren ondorioz, Beasain, Durango, Tolosa eta Laudioen kasuan, atzerapeneko fase hori gainditzea lortu dute. Oro har, prozesu hau industriaren oinarrian pisua galtzearekin eta hirugarren mailako jardueren garrantzia handitzearekin lotuta dago. Espazioari dagokionez, burutza irisgarrietan kontzentratzen da, eta nagusiki inguruko udalerrien gainean hazten dira. Honela, herri-mailako metropolitanizazio fenomenoak agertzea laguntzen dute. Audio bereziki Amurrion garatzen da, Beasain-Ordizia Idiazabal eta Lazkaoren gainean, Tolosa bereziki A-1 ardatzaren gaineko Donostiatik hurbilen dauden udalerrietan, Durango burutza eta mugakide dituen udalerrietan, eta bereziki Bilbotik hurbilen daudenetan, Zornotza kasu. Aitzitik, eremu-metropolitarratik urrunen dauden burutzek eta azpiburutzek beren pisu industrialak mantendu dute eta dinamika negatiboak dituzte. Beasaingo eremuan, Zumarraga eta Legazpiren kasua da, Arrasatekoan Bergara eta Oñati, Eibarren Elgoibar eta Soraluze eta Tolosan Ibarra eta Alegia.

Eremu hauek guztietan, azken hamarkadan hornidura-eskaintza zabaldu eta hobetu da, bai osasun-zerbitzuei dagokienez eta baita hezkuntza, kultura eta gizarte-arreta zerbitzuei dagokienez ere. Hala ere, hiri-gune nagusiak etengabe ari dira zentralitatea galtzen. Hori honako datuetan antzeman daiteke: enpleguaren murrizketa, eremu-metropolitarrak baino askoz ere baxuagoak edo negatiboak diren ekonomia- eta merkataritza-dinamismoaren tasak, egunero beren lana egitera eremu-metropolitarrak barne dauden guneetara mugitzen diren langileen kopuruaren igoera, burutza funtzionalak joan-etorrien murrizketa Bilbo eta Donostiako eremu-metropolitarrak doazen onurarako, eta eremu-metropolitarrak hauek hurbilago dauden edo konexio hobea duten eremuen hiri- eta demografia-hazkundearen orientazioa.

Eremu-metropolitarraren zentralitatea eta erakargarritasuna areagotu egin dira, eguneroko gero eta eskaintza gehiago asetzeko erreferentziazko hiri-gune gisa. Honako hauek dira hori gertatzeko faktoreak: irisgarritasunaren hobekuntza eta distantziak laburrak diren lurralde batean ibilgailu pribatuaren erabilera orokorra, hiriburuen hazkunde funtzionala eta eremu-metropolitarrak aisiaren eskaintza kontzentratzen duten merkataritza eta eremu berrien agerpena, eta beren lan-eskaintza tamaina handiagoko hirietan kontzentratzen duten hirugarren mailako jardueretara bideratutako ekoizpen-egitura gertatu den aldaketa dira.

Honela, hiri hauen garapena eta beren lurralde-funtzioa ez da soilik beren eraginpeko eremuei eskualde-mailako hiri-zerbitzuak eskaintzea, hain zuzen ere gero eta gutxiago artikulatzaileak direnak. Horretaz gain, eremu-metropolitarrak lotu behar zaizkie eta horien dinamikak eta funtzioak hartu, lurralde-zentralitate elementuak mantendu ahal izateko. Hori hala ez bada, progresiboki desagertu egiten dira.

b. Hirugarren mailako hiriak

Neurri handi batean, prozesu hau jarraitu dute Zarautz, Mungia, Gortiz, Zornotza, Balmaseda, Gernika-Lumo edo Irun-Hondarribia bezalako hiriek. Eremu hauetan hazkundera askoz ere berriagoa da. Iraganean industria-espezializazio txikiagoa izan zuten, EAEko demografia-garapen handiena gertatu zen garaietan haien hazkunde-dinamikak mugatuak izan ziren, baina era berean, krisi-garaiaren ondorioz ez zuten ahultasun handirik jasan. Honela, garai hartan dinamismo positiboa mantentzea erabakiorra izan da azken hamarkada honetan beren tamaina funtzionala handitzeko unean. Hiri hauen hiri-garapenaren faktore erabakiorra kokapen estrategikoa izan da, eta horri esker, Bilbo eta Donostiako eremu-metropolitarrak hedapen-prozesuak hartu ahal izan dituzte.

Hiriburuaren zerbitzu-eskaintza hurbilaren eta handiaren aurrean euren kokapenak zentralitate-ezaugarri asko murrizten badizkie ere, hiri hauek zentralitatea duten eremu-metropolitarrak berriei lotzen ari zaizkie edo horretan bihurtzen ari dira (eremu-metropolitarrak hurbilen dauden hirietan, Mungia, Zarautz eta bereziki Irun-Hondarribian, oso prozesu bizia izan da), hedapen-prozesu baten ondorioz eta zentralitatea duten eremu periferiko berriak agertzearen ondorioz. Hain zuzen ere, gunen metropolitarrak egiten diren etengabeko joan-etorrien murrizketetan eta eremu periferikoetan mugikortasuna areagotzean islatzen da joera hori.

Merkataritza-dinamismo handia eta ekoizpen-kokaleku berrien sorkuntza duten hiriak dira eta lan- eta etxebizitza-merkatu bakar batean parte hartzen dute, inguruko eremu-metropolitarrak. Eremu-metropolitarrak konexioa eta ezaugarri erakargarrien erabilgarritasuna (itsasertza, dentsitate baxuak, landa-eremua...), pilaketa handiak dituzten eremuetatik desberdintzen duten hiri-eskaintza erakargarria osatzeko gai direnak, dira hiri hauen dinamismoaren elementu giltzarriak. Hain zuzen ere, horiek gero eta gehiago landa-inguruneen gainean hedatzen dira, eta Igorre, Aiara edo Enkarriak bezalako eremuak batzen dituzte, elementu hiritarrak ez dutenak baina dinamika metropolitarraren barne sartzen direnak.

c. Hiriak eta itsasertzeko finkamenduak

Munduko gainontzeko lurralde guztietan bezala, EAeko itsasertzeko prozesu nabarmena du. Biztanleriaren % 55 baino gehiago kostaldeko udalerrietan bizi da. Dena dela, eremu-metropolitarraren presentzia prozesu honen elementu erabakigarria da. Honela, soilik EAeko biztanleriaren % 2,3a bizi da Bilbo eta Donostiako eremu-metropolitarrak kanpoko itsasertzeko udalerrietan.

Bi hiriburuaren arteko kostalderetara gutxi egituraturako eta dinamismo gutxi eremua ageri da.

Eremu honetako hiri-gune nagusia Bermeo da. Tamaina demografikoaz gain, hainbat zerbitzu ditu eskuragarri, hala nola, eskualdeko ospitalea, portua, trenbide-konexioa eta maila ertaineko ikastetxeak. Dena dela, eskualde-mailako zerbitzu-eskaintza onak zituzten hiri ertainen kasuan gertatu den bezala, faktore hauek guztiak ez dira nahikoak izan udalerririk honen inguruan dinamismo-prozesu bat eta zentralitatea finkatu ahal izateko. Bermeo biztanleria galtzen ari da eta zahartze-tasa altuak ditu. Ekoizpen-dinamika berriak sortzeko zailtasunek eta eremu-metropolitarrakiko duen kokapen periferikoak dinamismoa kentzen diote eta hiriaren proiektzioa hiritarra eta hazkunde funtzionala mugatzen dituzte.

Lekeitio, 7.000 biztanle baino gehiagorekin, euskal kostaldeko eremu zentral honetan hiri-izaera duen beste gunen bat da. Bermeok bezala, dinamika demografiko negatiboa du. Hiriaren tamaina txikiagoarekin batera, irisgarritasun murriztagoa, zerbitzu publikoen eskaintza murriztagoa eta hiri-garapen prozesuak zailtzen duten espazioa bezalako faktoreak batzen dira kasu honetan. Honela, itsasertzeko finkamenduek hiri-maila eskasa dute eta euren aldaketa-prozesuetan eremu-metropolitarrak eratorritako bizitegi-hazkunderen ekimenei lotuta daude, bereziki bigarren etxebizitzaren prozesuari.

5.3. Aldaketak lurraldearen funtzionalitatean

Azken hamarkada honetan hiri-sistemak jasan dituen aldaketa garrantzitsuen ondorio nagusietako bat lurraldearen funtzionalitatearen aldaketa azkarra izan da. Eredu-metropolitarraren hedapen funtzionalaren, gero eta konplexuagoak diren biztanleriaren zerbitzu-eskakizunen eta merkataritza- eta aisia-eredu berrien ondorioz, erreferentziazko hiri-eremuak eta baita enplegua ere, lurralde historiko bakoitzeko gune nagusietara eta beren garapen periferikoetara lekualdatzen ari dira.

Era berean, gero eta handiagoa den motorizazioaren eta errepideen eta garraio-kolektiboaren zerbitzuen azpiegituraren hobekuntzen ondorioz, progresiboki joan-etorrien kostuak eta denbora murrizten ari dira. Beraz, lurraldea gero eta txikiagoa eta irisgarriagoa da, eta tradizioz urrunago zeuden zentralitateek orain hurbilago dauden baina ahulagoak direnek baino garrantzia handiagoa hartzen dute.

Hiri-mailaren azterketen emaitzak, gero eta handiagoa den eremu-metropolitarraren zentralitatearen eta eremu funtzionalen burutza askoren (inguruko eremuen erreferentziazko hiri-eremu gisa) pisuaren murrizketaren erakusle dira.

Baldintza hauetan egokia dirudi eremu funtzionalak lurraldearen dinamika eraginkorretara egokitzea, udalerriaz gaindiko antolamendurako.

Honela, Bizkaiko kasuan Mungia, Igorre, Enkarterrietako eremuen eta Arabako Laudioko eremuaren zati baten hiri- eta lurralde-aldaketa prozesuak.

Gipuzkoan, kostaldean eta A-1 ardatzean barrena Donostiako eremuak izan duen hazkundearen ondorioz, eremu honetan Zarautz-Azpeitia eta Tolosako eremuak integratzea gero eta beharrezkoagoa da. Halaber, interesgarria dirudi Deba Garaiko eta Behereko eremuak modu integratuan lantzea, proiektu integratuak eta garrantzi handiagokoak egin ahal izateko, hain zuzen ere, hiriburu nagusietatik duen urruntasuna dela-eta bereziki ahultzen ari den eremua baita.

Durango, Gernika-Lumo eta Beasain-Zumarraga bezalako eremuek beren lurralde-proposamenak gauzatzeko orduan kontuan hartu beharko dute hiriburuekin duten harremana, euren aldaketa-dinamiken eta -prozesuen elementu erabakigarri gisa.

5.4. Berriztatzea eta hiri-kalitatea

Azterketa desberdinetan, azken hamarkada honetan hainbat hiri-eremuk jasan dituzten aldaketa kualitatibo eta kuantitatibo erreferentzia egin zaie. Hiri-eremuen kalitatea eta hobekuntzari buruzko hainbat gai orokor laburbiltzen dira horietan.

Hornidurei dagokienez, lurralde osoan horniduren etengabeko hobekuntza gertatu da, eta hiriburuetan goi-mailako hornidura berriak agertu dira, nazioarte-mailako garrantzia dutenak.

Lurraldearen ikuspuntutik, elementu garrantzitsuena merkataritza eta aisialdirako azalera handien hedapena izan da. Hauek lurraldearen zentralitate handiko kokaleku bilakatu dira eta trafiko-emari handienak kontzentratzen dituzte. Gainera, gero eta gehiago biztanleriaren hornikuntza- eta aisialdi-beharrak asetzeko lekuak dira. Gisa honetako instalazio gehiago jartzeko (EAE da biztanle bakoitzeko azalera handi

gutxien dituen Autonomia Erkidegoa) dauden mugen ondorioz, egun dauden zentroi neurritz kanpoko garrantzia ematen zaie eta jasaten dituzten pilaketa arazoak areagotzen dira. Hedapen-metropolitarrak berriak antolatze eta inguruko hiri- eta garraio-sistemetan integratutako lurraldean zentralitate alternatiboak sortzeko, elementu giltzarria zentro berrien baimen bidez elementu hauen plangintza egokia gauzatzea litzateke.

Ekipamendu publikoek dagokienez, erakunde desberdinen eta lurralde-ereduaren arteko ekimenen elkarrekotasun eskasa azpimarratu behar da. Inolako ekipamendu garapeneko programarik ez da LAP moduan izapidetu eta kokapenaren eta ekipamendu desberdinen izaeraren eta LAAen proposamenen arteko elkarrekotasuna oso gutxitan gertatu da. Era berean, LZPek kasu gehienetan administrazio sektorialek hartutako erabakiak onartu dituzte, eta administrazioek ez dute lurralde-txosten batzuek jasotzen dituzten horniduren inguruko proposamenak gehitzeko konpromisorik agertu.

Plangintza sektorialari arretarik ez jartzea, lurraldearen aldaketa testuinguru batean gertatzen da. Hain zuzen ere, herri- eta eskualde-mailako gero eta hornidura kopuru handiagoak beren funtzionaltasuna galdu dute, euren eskaintza murriztaren ondorioz eta gero eta handiagoak diren hiriburuetakoa ekipamendu handi eta irisgarriekin alderatuta.

Hirien berriztatze-ekimenei dagokienez, Bilboko itsasadarraren aldaketarako ekimenaren arrakasta izugarriak ez du jarraikotasunik izan bere eremu batzuetan. Horren adibide garbia Pasaiako Badiako berriztatze-ekimenen geldialdia da. Etxebizitza-parkearen hainbat berriztatze- eta hobekuntza-programa garatu dira, eta EAEko hiri gehienetan gune publikoak hobetzeko ekimen ugari gauzatu dira. Dena dela, ekimen hauek ez dute atal hiritarrak, ingurumenekoak, azpiegiturakoak eta

sozioekonomikoak bilduko dituen aldaketa-programa integralik. Zehazki beren garapenen erantzule diren erakunde sektorialen gabezia eta gisa honetako proiektuak sustatzeko kudeaketa egokia egingo duten erakundeak garatzeko zailtasunak dira ekimen hauen arrakasta murriztaren oinarriak.

Antzeko egoera gertatzen da gune historikoei dagokienez. LAAek ia hitzez-hitz jasotzen dute ondarearen babeserako legediak jasotzen duena eta horrekin batera, gune historikoetan esku-hartze integralak garatzeko beharra planteatzen dute, hirien nortasun eta kalitatearen elementu garrantzitsu bezala. Azkenean, prozesu hauek hiriburuetara eta beste gune bereziren batera, Guardiaren kasua, mugatu dira bereziki. Antza denez, gune historikoen hobekuntza hiriaren bizitasun orokorrari eta bere funtzio hiritarren aldaketari lotuagoa dago, lurraldean garatu ez diren ekimen bereziei baino. Sarritan, gune historikoei gero eta handiagoa den gainbehera jasaten dute, etxebizitzak uzten direlako eta funtzio hiritarrak galtzen dituztelako, sarritan ondarearen arduradunen jarrera kontserbadoreek indartutako prozesu baten baitan, eremu hauen hobekuntza eta berrikuntza ekimen guztiak mugatzen dituztelarik. Fenomeno hau bereziki garrantzitsua da Bizkaian, eta Urduña eta Balmasedakoak dira egoera honen kasu nabarmenenak. Hiriburuetan ere, gune historikoen hutsuneak eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintza eskasek azaltzen dute eremu hauek EAE osoko etorkinen biztanleria-tasa altuenak izatea.

5.5. Plangintzen bateragarritasuna

LAAen plangintzen bateragarritasun-proposamenak, ondorioak jasan dituzten udal-plangintzak berrikusten ziren heinean zein LZPen proposamenen arabera garatuz joan dira. Gainera, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bateragarritasun-plangintzak behin betiko gehitzen ditu, plangintzak formalki araututako aplikaziorako elementu moduan.

Bestalde, hirigintza plangintzak garapenen erabilera eta programaziora bideratutako elementu gisa sortzearen ondorioz, garatutako bateragarritasun ekimenak hainbat atal funtzionaletan hobetu egin dira, baina sarritan ondorioak jasan dituzten eremuak anbizio handiagoarekin dinamizatzeko eta aldatzeko aukera galdu egiten da. Bateragarritasuna LZPetatik egiten den kasuetan, aukera berriak identifikatzeko gaitasun handiagoa duten proposamenak antzematen dira.

Dena dela, azken hamarkadan EAeko hainbat gunetan gertatu diren hiri-garapen prozesuen sakontasunak, LAAek proposatutako bateragarritasun-plangintzen atal batzuk berplanteatzea eskatzen du. Zentzu honetan, honako hau hartzen da kontuan:

- Bilbo Metropolitanarrean, LAAek adierazitako udalerriei honako hauek gehitu behar zaizkie: Abanto eta Zierbena, Arrankudiaga, Barrika, Berango, Gorniz, Larrabetzu, Lezama, Muskiz, Ortuella, Plentzia, Sopela, Ugao, Urduliz, Zaratamo, Zeberio, Zierbena.
- Donostiako hiri-eremuan, bateragarritasunari lotuta honako hauek hartu beharko lirake kontuan: Andoain, Lasarte-Oria, Oiartzun, Urnieta eta Usurbil.

- Beasain-Ordizia-Lazkao bateragarritasun-eremuan Olaberria gehitu.
- Balmaseda-Zallan, Gueñes gehitu.